


MI
KE
LATS

A
MA
REN
E
TXE
AN

Felix
Zubia
ga



**Mikelats
amaren
etxean**

Félix Zubiaga

Mikelats amaren etxean

Félix Zubiaga

© Felix Zubiaga Legarreta

Azalaren diseinua eta maketazioa: Felix Zubiaga Legarreta.

Ekoizpena: Erroteta

ISBN: 978-84-17607-14-2
Lege Gordailua: BI-1115-2019

Inprimaketa: Printhaus

Autorearekikoa
Telefonoa: 94 673 04 86./48340-Amorebieta, Orue (Bizkaia)
edo <fzubiaga@orue.biz>

AURKIBIDEA

SARRERA.....9

MITOEN GARAIA

I. ATOR>ADORE, AMAREN ETXEA.....	11
1.1. Ator, "Or etxea".....	11
1.2. Ator, Erra aitaren ohoretan.....	12
1.3. Ator adoretzu, maite Inkoa.....	13
1.4. Or, Ator-en semea, "txori" abian.....	14
1.5. Inko Amaren manamenduak.....	15
1.6. Or, bere amaren Eskolako.....	17
1.7. Ma.aT-en >matoa.....	18
1.8. Bata>Patah, Batekoen erreinua.....	19
1.9. Set-en >seta.....	20
1.10. Ma.aT-en jusea.....	22
1.11. Emakundea gaurko jusean.....	24
1.12. Zalduendoko epaia.....	25
II. ARURU, AUR BIREN AMA.....	26
2.1. Amatasuna Sumer-en.....	26
2.2. Sumer eta Akad.....	27
2.3. Aruru>aur>or>arrorró.....	28
2.4. Gilgames eta Enkidu.....	29
2.5. Gilgames eta Enkidu vs Basajaun.....	32
2.6. Gilgames vs Ishtar.....	33
2.7. Gilgames zezenketan Uruk plazan.....	35
2.8. Enkiduren damuak.....	36
2.9. Gilgames Herio bildur.....	38
2.10. Hilezkortasun belarra.....	40
2.11. Jainko bizardunen Kontseilua.....	40
2.12. Azken Jusea.....	42
III. ANBOTOKO MARIEN SEMEAK.....	44
3.1. Anbotoko Mari, Ama arketipoa.....	46
3.2. Mari eta Maddi izenak.....	47

3.3. Mariren marrak.....	48
3.4. Mariren jusea.....	49
3.5. <i>Nippur Duranki Durangon</i>	52
3.6. Mari eta Sugoi, senar-emazte.....	54
3.7. Atorrabi eta Mikelats, Mariren semeak.....	55
3.8. <i>Akertipoa</i> eta Jesus.....	57
3.9. Abatak Anbotoko Damaren aurka.....	60
3.10. Andra Mariren martiriak.....	62
3.11. Egiptoko padarrak eta Maria.....	64
3.12. Mikelats Amaren Etxean.....	66

EGUNOTAN MINTOA MINTZO

IV. AMAREN ESKOLAN.....	68
4.1. aN>uiN, aMa sinbolo eta arketipo.....	68
4.2. uTu>Su, aiTa sinbolo eta arketipo.....	70
4.3. eRa>iru, eRoi sinbolo eta arketipo.....	72
4.4. iLu>Loi, hiLkor sinbolo eta arketipo.....	74
4.5. Ka>gai, Gorputz sinbolo eta arketipo.....	76
4.6. Ba>baita, sinbolo eta arketipo.....	78
4.7. aSa>ats, eTXa, sinbolo eta arketipo.....	80
V. GRAMATIKA OHORETAN.....	82
5.1. Ortografia vs Analogia.....	84
5.2. Prosodia vs Analogia.....	86
5.3. Asaben Arbolatik begira.....	88
5.4. Euskara sendatzen.....	90
5.5. Morfologia vs arketipoak.....	92
5.6. Teologia argitzen.....	94
5.7. Angerutarekin burrukan.....	96
ONDORENAK.....	102
ETIMOLOGIAZKO HIZTEGIRAKO.....	105
BIBLIOGRAFIA.....	120
<i>ELBIKER</i>	127
<i>Eskemak eta oharrak</i>	

Ma.at-en manamenduak.....	16
Adapa ^(s) /Abata ^(eus) >Ptah ^(k)	18
amatu/amakatu>magia.....	20
Oihuzkoen analogia arketipoen arabera.....	22
Maite izendegia arketipoen arabera.....	26
Mariren marrak.....	48
Moisen aginduak.....	48
Nortzu garen Gramatikan.....	58
Hizkuntza arketipoak: sinboloen ordezko diren kontsonanteak...	64
Izadiko elementuak [arketipoak] Gizakia bere baitan.....	70
Otoi-eskaria eta oihuzkoak arketipoen arabera.....	86
Gonbaraketa analogiak arketipoen arabera.....	88
Zenbakien iraultza arketipoetan.....	90
Alofonoen jatorria.....	92
Izadia analogiazko ikuspegian.....	100

Siglen irakurketa: (s) sumeriera, (k) koptoa, (eusk) euskera, (h) hebraiera, (g) gerquera, (l) latina, (ga) gallegoa, (ca) catalana, (gaz.) gaztelania, (f) frantxesa, (i) ingelesa, (it) italiara, (al) alemniera.

SARRERA

Konparatisten metodoari jarraiki, *Mikelats* euskal mitologiako mutilagana urbiltzekotan, Ama Eskolako beste kulturen mitologia parekideak begiratzeak bidea lautzen digu. Beste kultura hoiek ez bide-ziran gurea baino zaharragoak eta alderik izatekotan honetan da: beste kulturek, sumeriar edo koptoak idatzita utzi zituztela euren memoriak eta, eskerrak oraintsuko Arkeologia lanari, jakin al izan dugula euren barri eta euskaldunok osterara, ezelako idazki barik kontuizu, berbarik berba, edo ipuinez ipuin jaso izan dugula arazoaren barri, Anbotoko Mariren airean, *Mikelatsen* kasu honetan. Eta eskerrak abozko jakinduria hone-ri, bada Arkeologiaren txistadarik-edo jasoko bagendu, judizializatu egingo leuskigue sekuletan Ama Eskolaren arerioek.

Mikelats mitologi-gaia Ama Eskolako aipatu kultura bakoitzak berera dakar eta, nahiz gurea koptoarekin urbilago dagoen, Sumerrekoarekin ere gonbaratu genezake, formen gainetik, funtsezko edukinean, *Mikelats* deitu nortasuna ulertzeko. Lehenengo, gure *Ator* Amaren seme *Or* eta *Set* anaiak aurkeztuko ditugu, gure *Atorrabi* eta *Mikelats*, *Mari* Anbotoko Amandrearen semeekin urbilago datozenak eta gero Sumerren akadiarren garaiko kutsua duen *Aruru* Amaren *aur* birena: *Gilgames eta Enkidu*, eurak direlako Ama Eskolak ordutik jasaten dituen estrepozen salapen argienak.

Anaien arteko lehia, amarekiko arazoa gertatzen da eta amagan baino harago, seme bien arteko tirabira delarik ere, anaien arteko tirria sendiko, herriko eta gizarteko eztabaida eta talka gertatzen da. Tiriak edo tirriak tirabira dakar eta hori zertan den jakiteko, Gramatikazko pertsonen nortasunak ezeze, Jung-en arketipoak aztertzeak lagun diezakigu, banaka, nahiz taldean bizi dugun ohargabe iluna, edo boxkatzen dugun politika, argitzekotan.

Gizakia den nortasun nastu eta mugatua, ez da bakarrik, Esau eta Jakobek bezala (Has. 25:19-34) anai bikiñek amaren sabeletik dakarken lehia, ezpaere geure mugatasunak eta heziketak, orobat ideologiak, geroko garapenean izan dezaken aldea baino.

Izadiko liburu idekiak andi-andiki eta bizitzako eskarmentuak markatzen digu gizarteko portaera, hagaitik herrien Inko Ama+-Aitak bere aginduak utzi zizkigun, anai-arreben arteko jarduera abereen joketatik bereizten gaituena, eta amak abozko berbaz erakutzi ziguna. Hitzza agindu horri lotua dator, euskera orduan jaio zan, ama hizkuntzetako beste hizkuntzen gida eta eruedetan.

Antxinako mito idatziek abozko euskaran erantzunik ez balute, gitxirako litzaken gure berben balorea, baina Arkeologiako emaitzak euskerarekin adosten direnean, geure berbea ere hein berean baliagarri gertatzen da: Ama Eskolak aintzinatik Ekologiaren alde eta gudaketen aurka egin duen aldarrikan. Atxegina ere badalako, Ama Eskola horren memoria gorde al izan dugula jakitea eta harago, eskola berari jarraitzeak salba gaitzakela jakitea.

Uriolak ito eta guduaren errak erre zuena Arkeologia zientziak lokatzetik edo autsetatik itoitu du, eta geure memoria aulak astu duena, barriz, geure ohargabe orokorreko arketipoak, Sikiatria lagun, aztertzeak lagundu digu, hatan ere euskera bera dugula argibide aparta.

Arkeologia, bestalde, erliginoetako idazkarien mito faltso asko ankaz gora jaurtitzen ari den uneotan, idazki gabeko hizkuntzen mintzoa baloratzen dator, izan ere, erliginoen gonbaratze arian esana alde daukagu euskaldunok: “egiarik sinistagarriena hizkuntzarena da, hizkuntza herriek euren Jainkoekin hitz egiteko erabili zuten berbea delako”.

Ama Eskolako seme-alaben artean ere, hauxe jazo zan: bata esanekoa eta bestea saiestua burutu zirela, elkarren aurka, seme bata bestea erailterainoko burruka egin zutela: ama+aita gurasoek epaia eman zutela eta jarraibidea utzi gizarte familiari.

Mitoen garaiak joan direnarren, *mito*>*mintzo* dator gure egunotan: entzun euskeraren garaikide den mitoei zer dinoskuen, eurak, salatzen bai ditue ondoen seme saiestuek euren zapuskeriak zuritzeko asmatu kontra-mitoeak. Hau dogu asmo: Ama Eskola ezagutzea eta haren memoria gaurkotasunez osatzea.

MITOEN GARAIA

I. ATOR>ADORE AMAREN ETXEA

1.1. Ator,

Egipton sorkuntza ama+aitatar da eta *Ma-aT* izenaz agertzen da.

Geroago baten Menfisko *abateek Bata*>*Ptah* magiagundun sorkuntza aitortu zuten.

Iraulta izan zan. Tebasek amarekiko amatigoa itzuli zion herriari.

Ator, maite jainkosaz grekoek *Afrodita* irudikatu zuten, eta haren seme *Or^(k)*>

Orzi^(eusk)>*Horus^(g)*>

Eros^(g) maite jainko ezbaikorra deklinatu.



Ator. andre serio-
sa baizen ederra
dager Egiptoko
mitogrametan, bei
adarrez koroatu eta
erdian aita Erraren
sinboloa, iruskia
duela ikurtzat.
Grekoek *adorea*
itzuriz, *Hator*
idazten dute,
euskaldunon
aitor>*jator* gerta-
tu bailitzan eta *Or*,
bere semea *Horus*
idazten duten lez,
euskerak *Orzi* eza-
gutzen duena.
Beraz koptoak, eus-
kerak eta grekoak
badute mitorik edo
mintzorik naiko.

“Or etxea”

Ator izenak “*Or etxea*” esan nahi du koptoeraz. *Or+ate* ulertzen digu, etxea eraikitze bilatzen den *orue*. *Or+ate*>*borda* baitatzen da, gure amek *bordaltzean* erastuntzat *dorua* eta janzkeran *atorra* jantzi zutenetik. Ama *atorrantea* izan daitekela?

Or izena aztertuz, *artzan+or* daukagu, Erra-ren zaindari lez, (Ikus 12 or.) *etxe*ko+*or*>*txakur* datorrena eta *beor*>formatik ibेरikora >*perro*² dena. Baina harago, *Or*> *etxe*ko *Aur* da, amarena.

1 *Atorrante* hitza Galdakon baserritar emakumeari entzuna daukat, gero alboko edo Amerikako gazteleran ere agertzen dena.

2 *Dic. Etim. R. Acad.* gaztelaniak ez daki *perro* hitza nondikoa den.



Erra, eguzki jainko gaztea bere arkan doa, aurretik Ama Ma.aT gidari eta ostetik Tot Aita idazkari dituela. Goitik alderik alderako *orbian*, *Arrano* andiak babesten du *Aurra Errensubiaren* amarruetatik, beko aldetik *txakur* bana dituela zaindari.

1.2. Ator Erra aitaren ohoretan

Gaitza ez da metafisikoa, gizarte arazoa baino. *Herria*, *Erra* jainkoaren *erregetzaz* gogaitu zenean eta haren aurkako *arramantza* sortu, *Ator* alabak *Erra* Aitaren alde *adorez* urten zuan. *Erra* jainkoak bere *erraietako* seme-alabak *arrasatzeko* arrasta eman zuan orduan. *Ator* alabak, bere buruaz Sekemet, leoi eme eginik, aitaren *erabagia* betetzen *arrastari* ekin zion, gizadia *arras* odoltzen. *Errak* larregikeria ikusi eta bere *arrakastaz* *errukiturik*, *arratail* bat bederen salba zezan, alabari *ardano* antzeko edakia edaraziz, *adorea* *arrapatu* zion, mitoak dinoskunez³.

Ator amaren karantza eta burukoa ere ikustekoa da: *Erra*>*iruzki* Aita du buruko edergailu eta, bei asartuaren adar artean zaintzen du, amak bere umeak ohi bezala. Norbere izantasuna abere munduarekin urbiletik nastatze horrek, izadia eta, batez ere aberedia, jainko mendeko izakitzat hartzetik dator.

Ator-en buruko adarrak, abere analogiatik, *adorea* eta ausardia adierazten dute erabatera, Sekemet ganora hartzeak bezala, eta emakumearen alde biguna eta aldiz genio errimea adierazten.

Ator jainkosak, emakumeak bezala, gizonezkoak baino urragotik bizi du izadia, eta *arro* dagoke gizadiko *arrakasta* gidatzen duelako, amatasunak ematen diolako halako *arrandia*.

3 *Rescate de la Humanidad de la destrucción*. ANET 10-11. Cf: Hizkuntza arketipoetan *Erra*>*erena* da (ikus or, 14), hagaitik aurretiz *R*-dunak azpimarratzen ditugu, hala *arrastatu*>*arrestar*^(gaz), hizkuntza sorreraren kosmoko lau elementuak eta giza nortasun hirukoitzak duen garrantzia argitzearren.(Ikus or. 58)



Maurizia Aldeiturriaga eta Iruñe Elizagoien, lehengo eta oraingo *arrazko* edo *pandero* jole bikainak, euskal jaia animatzen. *Arratza*>*artza* borobilak iruski antza du, *Ator* maite jainkosaren seinua eta berdin *artzari* lotu kaskabel jostariak, *Atorren* sistroa, metalezko maraka astingarria iduri eta arteko maite koplak edo zirikadak abesten dituzte emakume eta neskatxek antxinatik hona.

1.3. Ator adoretzu, maite Inkoa

Ator ama alai zana, eta hagaitik egitiarrek “maite Inko” auke-ratu zuten eta haren burukoaz musika tresna eginik eta *arrasko* deituaz jaia prestatu zuten, “maitasuna alai” delako⁴ eta maite koplaz ospatzekoa. *Ator* amak sistroaz deitzen zuan erromerira, gure jai animatzaileak zurda edo trikitixa lagun, *arraskoa*⁵ joz ohi bezala.

Maitasuna pozgarria dena adierazten idatzi ziren lehen koplak ere, batzuk besteak baino ausartago, maitasuna aitortzen, Egipton *Ator* Inkoa ospatzean bezala. Handik datoz gure baserri kutsudun karistiar maite koplak edo lirainago diren zuberotarrak ere⁶.

4 “*Amoris laetitia*”, Franzisko Aita Santuak oraintsu aipatu bezala, maitasuna pozgarria ezeze, kantuz ospatzeko bizikizuna bai-da.

5 Euskal trikitian ere, emakumeari dagokio *arraskoa*=*panderoa* jotea, eta, al bada, sistroaren txilinteri nabarmena duela aldean.

6 Eurotan Bibliak *Kantika ederrena* opa digu. Ezagunak ziran maite *jar-txak* moriskoen artean ere XI gizaldian. Euskal kulturak Ainamendi alde bietako ufada izan du, herrikoia Egotik, lirikoia Ifarretik.

Ator maite Inkoak, *Or* semeaz landa, edozein alabak bezala,

bere orni eta ornigarriak ditu buruko edo soineko⁷ bere burukoa, ostera, *at-ornia* da, *at-* aurrizkiak hitz arruntari ezarten dion bultzadaz, hotz, Tot aitonaren arketipoaren oroitzapenetan⁸.

Hala ta guzti ere, Ator maite Inkoaren adornurik ederrena *Or* bere *aurra* da, eta amarentzat *ornu/orni* gehiengoan. *Ornis*⁽⁹⁾ “txoria” edergailus *ornidu* egaztia, *Or aurra* gogotan zutelarik.

1.4. Or, Ator-en semea, “txori” abian

Aberedian egaztiak dira zeruko jainkoen aideko esparrua gozatzuten dutenak. *Utu/Tot* berak, hagatik lurrean *idi*⁸, *udo*, *otso*, *dogo*, patarien kidegoa hartzen badu ere, aidean *txori* eta *txorruen txorrotxia* obetsiko du, edo *uso*, egada luzeak eta iraunak egiken azkarra, beti ere bere abiaganako apeguan. Halatan, *Ator* “Or etxea”, ezese, “Or abia” ere bada, beraz *Atorrabia*s.

Or semearen eredia ere *ursoa* da bat egaztietan, edo arketipok itzuliz, *azore* antza hartzen du. Nonbait *Ator* amak *azoratuz* <*atoratu* egiten du bere abira, hotz, *at-+oratu*, halako erabagiz *oratu* eta erakarri, fededunen *orhoak*⁹ bakarrik egin dezakena.

Oriko txoria Orin laket esakerak egada luzea du, *non gogoa han zangoa* formak bezala. Hori egaztiek bakarrik eman dezaketen txangoa da eta hala ere ez dago bere abiari apegua ez deutson txoririk. *Txoria*, maite kantuetan norbera da, bere tirriak geureak, lurreko patarienak edo narrastarien lerak baino ere, aidean zehar, gorago tiratzen diguna¹⁰. Ze Txori Ama da gu, *aurrok*, halako egazti keinuaz *azoratzen* gaituena? *Ator* Maite Inko eredia hain zuzen, mitoak eta euskera mito biziak adierazten digunez.

7 Holan maite koplá baserritarrak: “Mari Juana lutudune, krabeliñe zuridune, krabeliñe zurie baiño oba dona hik lagune”.

8 Latinak eta erromanikoeak har dezakete *adorno* hitza heuren hiztegitan, baina bere etimologia euskera mitoanalizatuak bakarrik azaldu dezake. *Or azoreak*, *Ator* maitasunez ezpada, erpaz *oratzen* du, edo bestelaz *arrobaten>robar*, edo *arrapatzen*. *Atorrabi/ Atarrabi* izenak, barriz, Anboto Mariren seme zintzozag gonbaratzeko beta ematen digu.

9 Hagaitik *Utu-ri otoi*, *Erra-ri orho>orazione*, *otoitza* eta oihuzkoetan (ikus or.22) ere nabari dena, argi dago norainoko egada duen euskerak.

10 “Txori erresoñula” [...] Beste orok baiño ere obeki kantatzen, arek du engainatzen, mundua tronpatzen [...] udaran jin baledi, kontsola naite ni”.

MaaT<*ama+ata*<*matte*>*maite*
Inkoa lur gaiñeko lehen mailan
patxaraz *eseri>ser=izan* da,
Utu>jo>joz>joaneko>Jotean
nauzitzen denez,
Ama umeekin gelditzen da eta elkar
onartzeko bakerako
denen eskubideak begiratzeten
erakusten die. Amak etxekoen poza
eroapenez bilatzen du.
Buruan ostruka luma du, bere amati-
goa zein leuna den, adierazten.
Luma berak gidatuko du
zuzentasun balantza pisuan.
Belaun gainean daukan salbamen
aingura *ank* eskeintzen digu



1.5. Inko Amaren manamenduak

Laster konturatu zan ama etxeko umeak gobernatzeko araudia beharrezkoa zuenaz: “Ez hori, ume, ez beste hori ere, hau baino” eratara heziketa lana sortuz eta sakonduz, eta *amon-aitonen* arauak gogoratuz, *Ma.aT manamenduak* eratu zituan. Ez dute agertzen Sinai mendiko trumoi otsik, ez arrandirik, amatigoa baino. Ez datoz zemaz, ezpaere maitasunez: amarenak dira, ez aitordearenak¹¹. Amaren aginduak bihotzean ezarriak direlako eta Moisenak, harrian. Berrogei dira amaren manamenduak, zazpi bakarrik “aintzat hartu=errespetatu” aholkuz emanak. (ikus 16 or.)

Zenduak, Maaten jusora aurkestean, haren manamenduak bete dituela aitortzen du, *Ez dut inor erail*, *ez diot inori ezer ostu*, *ez dut inor tristetu*, *ez negarrik eragin*, etab. Ez dago ezinezko agindurik, “gogozko bidean aldaparik ez” esaten denean lez, amaren maitasunak amatigoa duelako, amaren eskutik umea ikastolara doanean bezala. Hako basatitxoak eskolatzen dihardu. Aginduok gaurkotasun andia dute. Ohar, adibidez, ekologiaz dinona

11 Izan ere, patriarkatuaren jainkoa ez da *Aita*, aitordea baizik. *Aita* balitz, *Ma+aT* tankeran, ama izenari lotua, zintzoro legoken, baina lotsagarritzko hiruzurra eginez, aurretik dagoen *Ama-* izena atzindu egin zuten eta Kristoren aleginak ez dira gaurdaino nahiko izan erratu hori zuzentzeko.

Ma.aT-en Manamenduak

- | | |
|---|--|
| 1) Ez inor hil eta ez inor hilterik amore eman. | 22) Aintzat hartu toki sakratu guztiak. |
| 2) Ez saldu maite duzuna edo haren eskontidea. | 23) Aintzat izan eta lagundu sufrizten dagoena. |
| 3) Ez bizi aserrear. | 24) Ez zaitez aserretu, benetako arrazoi barik. |
| 4) Ez sarrakiorik zabaldu lagunartean. | 25) Ez ostopatu uraren bidea. |
| 5) Ez eraso eta ez mindu lagunurkoa. | 26) Ez alperrik galdu urik zeure beharizanetan. |
| 6) Ez uztiatu geidea eta ez onartu joputza. | 27) Ez kutzatu lurra. |
| 7) Ez egin gizaki edo abere mindu dezaken kalterik. | 28) Ez alperrik agotan hartu Inko izena. |
| 8) Ez negarrik eragin. | 29) Ez gaitzetsi besteen siniskerak. |
| 9) Aintzat hartu lagunurkoa. | 30) Ez uztiatu besteen eritziak, txarto egiteko. |
| 10) Ez ostu zeurea ez denik. | 31) Ez larregi edo gutxiegi errezatu Inkoei. |
| 11) Ez jan dagokizun baino eliku gehiagorik. | 32) Ez uztiatu auzoaren ondasunak. |
| 12) Ez kaltetu Izadia. | 33) Aintzat hartu zenduak. |
| 13) Ez inor maite duenaz gabetu. | 34) Aintzat hartu egun sakratuak, sinistuezarren, |
| 14) Ez urten gesurraren lekuko. | 35) Ez ostu Inkoei egin opariak zeuretzako. |
| 15) Ez esan gezurrik, inor kaltetzearren. | 36) Ez ezetsi errito sakratuak, nahiz atsegin ez izan. |
| 16) Ez behartu besteak zeure eritzira. | 37) Ez kali abererik, benetako arrazoi barik. |
| 17) Ez jardun besteak kaltetzekotan. | 38) Ez izan lotsagabea. |
| 18) Ez maizatu besteen bizikera. | 39) Ez jardun andi ustez. |
| 19) Ez zelatatu besteen arazoak. | 40) Ez arrotu ondo izateaz besteen aurrean. |
| 20) Ez aztu Egia eta Justizia. | 41) Astapenok aintzat hartu. |
| 21) Ez inor juzkatu, ezagutu barik. | 42) Aintzat hartu legea, astapenon bideko bada. |

12, 25, 27 dinona. “Ez kaltetu izadia”, “Ez mindu lurra” oraintsu Frantziskok *Laudato si* idazkian ogartuak. Edo (3) “Ez bizi aserrear”, Merkelek herria gobernatzen gogotan izan duena.

“Lagunurkoa norbere burua lez maitatu” dino Jesusen laburpenak (Mt. 2,39). Ikus Ma.aT-ek (9. 16,17, 18, 19) zelako zehaztasunez uztartzen dituen bakoitzaren askatasuna eta elkarganako deduak eskatzen digun muga. Bezatu gabeko patariak hezi guztiak zapaltzen ditu eta, ahal badu, unai bera eraso. Gizakia ere abere antzekoa da berez, gizakiak abere mailako *adna* duelako. Espiritu den aldetik, Ama Eskolak etxekotu ezeze, zuhurtzira deitzen ditu seme-alabak. Magia zaleak, templo arrandiaz baliaturik, behartu egiten du gizakia (Mt. 23,4), ez etxekotu. Hagaitik herria antiklerikala da. *Ma.aT-en manamenduak mana* dute ostera, eta ez *mina*¹², Ama hezitzaile eta baketzailerean Eskolan.

Kontsumismoa gaitzesten du (11, 32), ez eukiez, etorkinez ardura da, bai eta (2, 13) gorroto du *descarte* jardukera: ez du ontzat emoten umea amagandik banantzea edo elkarrengandik gurasoak.

12 “*Mana*” ona eta gozoa da, *mina*⁽¹⁾ “meatxu”, euskeraz “neke”, *amarena* bai-da *amatigoa*>*mitigar*, etxeko suaren garrak ibitzen dakizanarena.



Or eta Set. Atorren seme biak Azor eta Sator burudun, Egipto biez, Goikoaz eta Bekoaz, Bat egin aleginetan. Menfisko abaten asmoz alde biak Batuz, oiku batu>Egipto sortu al izateko, jainko Bata>Ptah asmatu zuten. Aurkalarri bien nortasuna eta gizabidea ondo dager euren azore edo sator mozorroan: batak egunaren argitan, besteak gauaren azpijanean jardungo dute elkarren aurkako adurrerian.

1.6. Or, bere amaren Eskolako

Or, Ator-en seme *aitorra* ama zalea zan eta Amaren Eskolako, geroago baten euskaldunek amestu zuten *Aitor* asabaren *jatorrikoa*, beraz *jatorra*. *Or* semeak, *urso* ganora hartu eta egunero *Oromenditik Orzomendira*, lurreko *oruetatik* ate *ortzirainoko* egada egin beharra zuan bizibide, arratsberako itzuleran amarenean ostatuan otsitzeko¹³. *Ator* amak nolabait *atoratu* egiten zuan *Or* semea, maitasunak maitea, *toz* esanaz *azoratzen* duen bezala eta hortik zetorren *Or* semeak ere *Ator* ama *adoratzea*.

Ama eskola berak “*Ator, mutil, etxera*” abestuazo digu ordurik gozonenetan, kale borrokako destaiñak bakarrik eragotzi zezaken maite kantu baino harago, bake inoa dena, Amak afal orduan, *torri, tori* esanez, gosetuen mokauak banantzen dituenan lez.

Ator amagandik Aprodita konpondu zuten grekoek, *Or* haren semeaz ere, *Horus>Eros* asmatu zuten, maitasuna bera ere kinkan ezarri eta Ama Eskolari sasieskola eginez.

13 Hala uste du Gorbeiaiko artzainak ere: “eguzkia ba doa bere amagana, biar etorriko da, denpora ona bada” dinonean. Hala dakus eta hala ulertzen du.

1.7. Ma.aTen > matoa

Amak eskola du, *Ma.aT* inkoak *matoa* du eskuetan, *maesa* delako seinale eta, andereiñoak lez, *manatzen* ditu umeak. *Ma.aT* izadiko zuzentasuna eta egia da (20), ama gure bizi sortzaile den legez. Hortik “amari ez yako guzurrik esaten” oharra (14, 15).

Egipton ere ez egozan denak *Ma.aten* matoaz edo aginduekin ados. Zer dela-eta *Ma.ati* men? Gure ama delako? Mundu honetara ekarri gaituelako? Eta *Ma.aT*-en eskolari sasieskola egiten saiatu ziran. Aipatu dugun *Bata>Ptah* dotrina baitipat. Zer da ba *Bata* horren dotrina *Ama+Aita* maitale pareta ukatu eta haien eskubideak lapurtzea baino? *Menfisko Sorkuntza* deritso lapurretari: *Amonaitunen* errotiko eta erraitiko sorkuntza ezaintzat eman eta bihotzetik abora doan abotsaren magian jartzen dute sorkuntza barria, *Bata>Ptah ta tenen^(k)* izendatuz. Haraz gero, erlejino magikoen jainkoek “ino in, esan eta egin” arabera sortzen zuten. Baina magia hori egiteko, zer dela-eta behar zuten *Ma.aT*-en matoaz jabetu?

Ma.aT-en *matoa* ez dator inor *matutuz*-edo *amatatzen>matar*, *amatigatzen* baino. Argi dago horretan *Ma.aT*-en asmo eta agindua hitzetik ortzera: (1) ez inor hil, ez eta hilterik amoregin”.

Adapa^(s)/Abata^(eus)>Ptah^(k) hitzen jatorria*: *Adapa* Eridun Enkiren tenploko *abadea* izan zan, berak ezarri zituan erlejinoko errito aratzak. Itzuli bat dago *ada+pa/aba+ata>abate>abad* zerrendan eta gero, *abade>apaiz* datozenak. “Jainkoa Bat eta bera nahikoa” esan ohi da. **Bata>Ptah** dator, ain zuzen. Koptoa eta euskera elkar ulertzen dira. Jainko hau **Ba** arketipoz gizakiagan baitatua dago. Bere aldarria “*La teología menfita de la Creación ANET, 4-5*” da. **Ptah** jainkoak hitzaren bidez sortzen du: bihotzean erne eta abotzez gauzatzen, *bihotz/abotz* aldarrikatzen duela, geroago *Enuma elys* eta *Génesis* liburuetan ikusten dugunez. Halako Sorkuntzaz, **Ptah ta tenen^(k)/aita denen^(eusk)** izatera dator. Euskaldunok ere ondo katekizatuak izan gara: *Batek badaki* “Jainkoak daki” edo “Jainkoa Bat eta bera nahikoa” oroipenezko atsoititez. Orain bada, **abata<Bata>** dator eta **Ptah^(k)** honek beragan batzen dituelako jainko guztiak. Beraz, euskerak zenbakiak aldatu behar izan ditu, halako teologiaren misiolari koptoekaitik: lehengo *hona*, orain *bata*, *batekoa* nausitzeraino.



Estela del faraón Shabaka (Menfis, 712-698 a.C. dinastía XXV)

Menfis tenploko *Abatak*, leoi narua duela soineko, (ohar leoi erpak eta isatza [Judako leoia] kapa mendelean) *Bata>Ptah* giza arketipodun, jainko faltsoari *Ma.aT*-en eskubide seiñuak opa dizkio. Eskuetan duena *Ma.aT*-en *buruko* luma, balantzaren *fulkroa*, jusoaren zehatza, adierazten duena da. Amari lapurtu idunekoa eta *uas>baso*-makila jadanik eskuetan ditu. *Bata>Ptah* bakarra da *Bat* *Ma.aT=Ama+Aita* bi alkartu diren lez, bakarka, Ama barik, magiaren buruz, razionalisten Sorkuntza egin gura eta tirria duen magia da, izan ere, Patriarkatuak Matriarkatuaren aurka jaso zuen ikurra, elizak ere emakumea baztertzeraino.

1.8. Bata>Ptah, batekoen erreinua

Batekoa daukanak nagusi da karta jokoan. Diruaren eta magiaren domeinua dauka, iruzurrarena alegia. *Bateko* nortasunak Biko kidea alboratu eta erail egin du, bere askatasunaren goralpenerako. Beretzat ez dago *Ma.aT*-en manamendurik, “gizakia bera bai-da denaren negurri eta eredu”, zinikoen arabera.

Bateko>Pateko dator. Marduk Babilonian, *Tia-Maat*, erritualki erail zuena. Biblian Egilearen irudi partele den Eba errudun joz, *Ma.aT* izen irauliaz, *aD.aM* izendatuz, patriarkatua goraldtu zuena, Grezian *Tia-Ma.at+Ra>Demeter* baztertuz, *Zeus* sortzaile bakartia aukeratu zuena eta, armez baliatuz, inguruko herriak elenismora behartu zituena eta Erroman, bide beretik, falangeaz faszioa muindu zuena, hotz, *patekoen* **BAT** tenplora jaso eta halako kortez indartu zuena, herriak, emakumea lez, tratatzekotan.

Deitu “totalitarismoa, zesaropapismoa, masonería, faszismoa, sexismoa” eta itoazo gizakia, Ama Eskola, amaren etxea, familia,

amatu/amakatu>magia: Euskerak bai, argi dezake zer den *magia*, itxurak egin eta tati egitea, politiku askoren antzera. Amaren alaba bat *amatu* denean, ume ederra agertzen da. Norbaitek itxurakeria askoz, zerbait agintzen duenean, *amakatu* egiten du: *amatu/amakatu* elkarren aurka datoz, *muin/muineka* bezala. Horrela, *amakatu>amagar* dator gaztelanian ere, eta *amaka>magia:* engainuzko ondarea, planta asko, gero sonbreirutik *muineko* bat atera eta erakusteko. Hatarako, hizkirimiriak ere erabilten dira, hitz arraroak bailuen magiaren giltza. Amaren erraiak maitasuna dute, ez magiarik, ez hitz trukatuaren gezurrik; amatasuna erdeinatzen duenak egiten ditu *magia* saioak, bai eta gizakiek asmatu jainko berriak (dela Marduk edo Ptah, dela Zeus edo Brama) aitortzeko, denak gizonetzkoak hatan ere, sorkuntza berria egin asmo zutenek: *amakatu*, egiten bai-dute, *amatu* ezinean.

anaitasuna, eskubideak eta Ekologiazko bizi-ugaritasuna.

Egiptoko eskarmendua mito utsa balitz, ez genduke jasango gaurdano *patetiko*en amorrua. Vatikanon bertan ere, susmo denez, masoneriak konpondu Dogmazko egia nahi du, baina Ama Eskolako hizkuntza zaharrak, Gramatikako akatzak salatzen ditu.

“Jainkoa BAT eta bera nahikoa”, baina hala ere, *Set-en setak set* egin du gurean, *Ma.at*-en leinuko *Maite*, *Maidi*, *Maixa* formak *maiteago* ditugulako, Ama Eskolara heziak izan diren umeek lez.

1.8. Set-en >seta

Amatasuna da emakumearen koro nabaria eta hari aginte makila, hotz, *Ma.aT* Inkoari matoa kentzeko *magia* asmatu zuten Menfisko *abate>abade>apaizek*, erligino berriari bide egin eta Ama jainkoa ezaintzat eman, haren irudia ezabatzeraino. Menfisko apaizek Munduko Jainko Arkitektoaren erdua asmatu zuten eta *Bat bakar* horren *pateko*en nahiz *patetiko*en gurtza (Dt.6.6.) jaso¹⁴.

14 Hizkuntza guztietako zenbakiak *ona*, *unu*, hasten dira kontatzen. Zergaitik da euskera salbuespen, *bat* formaz hasteko? (Ikus or. 90) Euskerak ANU jainkoaren lehentasuna BAT jainkoaz trukatu oroitzen du, bada *hona* “este” adierazleetan mantentzen du. Ez ete da euskera garbitu behar den lekuko iguingarria? (F. ZUBIAGA, *Iruña Veleia, el Calvario de Euskalherria*, or, 42)



Mut eta *Amon* jainkoak Tebasen. Menfisek 500 urte iraun zituan, XII Dinastian, Tebas nausitu zaino *Mut<Ma.at* bera da, arquetipo parekideen nortasunaz: Faroiaren emaztea eskuman, zeruan lez, lur-rean ere. Ama+Aita guraso biak. Hala ere, *BAT*-en erexiak *pateko*ek euskera ezeze, Babiloniako erligi-noa ere kutsatu egin zuten eta euren asmoko ondare diren Grezia eta Erroma gero. “Baina asieran ez zan horrela”. (Mt. 19,8) *BAT* erexiak lur-rean ama+aita arketipoen eredu den Jainko PAREA ezabatuz, eta apurtuz. Eleizan ere “Satanas-en kea sartu zelakoa” entzun da gure egunotan. Noiztik, nola galde genezake edo zer egin du Elizak Inko Amaz?

Europar XIX-ko filosofo susmakariak azia erein ez balute, ez ziran gertatuko Guda Orokor biak. Ator maite Inkoaren ederrak onera dakar Or eta, bide erratu, okerrera lerrazoten du Set anaia.

Set semeak, berea izan zezaken *Or* anaianako tirria eta ezin-ikusia, Ama eskolak hatarako bidea eragozten zionarren. Zein zuan orduan amorragarriago: *Or* anaia, ala *Ator* Ama? *Ma.aT*-en Eskola ukatu, ezabatu eta golpe batez biak minduko zituan¹⁵. *Seta* gaiztoak *Or* anaia gorrotoarren erailtera eraman zuan. Nondik ikasia du euskerak ezpaere, *seta*, *setati*, *seta* gaizto, *setoso*, eta jokoan “*set* egin”, *utz* esateko¹⁵, edo “*esti!*” aurka oihua? Mitoa bizi denean, ez dago beste hizkuntza modarik, harago euskera mitoen garaiko mito bizia denean. Egipton deabrutara emona izan zen *Set*, gehien-goan *Satan* izendatua, behin *Or* bere anaia eta beste behin Osiris, bere aita, erail zituelako. Hala ere, “*set* egin zuan” bietan *Ator*=*Isis* ama eta emazte ardurak bizi berrira jaso bai-zituzten.

15 Abereen artean arrak egiten dute burrukan, emeeanako tirriagaitik. Gizakien artean anaien arteko burrukan agertzen da antzeko grina.

1º laburgoa: OIHUZKOEN ANALOGIA ARKETIPOEN ARABERA

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
ene/en	otoi/iso	ara/ario	alá(ar)	bea/vae	ka/quia	ixi'che'txen
enei	ut,ux,aida	ra/aira	olé/iole	ba/bua	gel/gora	jau'chao
iño/año	txut'ixo	aro'urra	(h)il/lúe	ave'afa	ako'ecco	asa'ajai
oino	et'eit'at	arraio	ola'alló	ep'vah	gerô/coño	zaust
ena	uju,ujuí,jo	arre'rau	ely(h)	puf'huf	agur	xapi'zape
ainü	otian,utinam	rayos	elas/alto	eup/hip	cáspita	txist'chitón
aan	zut'tira,tus	eurt	ale'ela	vaya	kontuz	esti'este
ainintz	oste'ospa	arren	al'alajina	balinba	agian	ezbe

1.10. Ma.aT-en jusea

Ma.aT-en *buruko* > den ostruka luma berak egiten du *fulkro* lana *Ma.aT-en* balantza > *matematikoan*. Gizakiei manamenduak ezarri eta jakinduriaz eskola eman dien Amak berak juskatzen¹⁶ ditu, bere umeak bailiran. Horretan da ama batek eman dezaken epaia, aita batek eman dezakenarekin gonbaratuz.

Ama Eskola, jatorrizko pedagogia da: amak ezagutzen ditu bere umeak eta umeek ezagutzen dute halaber bere ama eta *adnan* sakontzen ditu sustarrak, hotz, aragiaren argitan¹⁷. Eskola hori apurtzen duenak familiaganako ondamendia dakar.

Aragi < *Erra/Arra* + *-ki* dator, *argi* bezala, gizakia jainkoen herrietako sorkaria dela adierazten. Idea hau Bibliak (Has 1, 26) baino lehenago jaso zuan Egiptoko jakinduriak, "ume hau Inkoak in eta miskatzekoa bai-da" euskal esakerak ere dinonez. Beraz, zelan jusga dezake amak bere erraietako umea? *Erra* jainkoak errudunak *arras* desegiteko erabagia hartu zuan, nahiz gero *erruki*¹⁸

16 Agintariak eskuan daroan *soz* > arinak ordekatzen du > *jus*¹⁶ *jusea*. eta *norbait juse gabe uztea jus-ka-tzea* > *jusgatzea* da. Hizkirimiriak dino: "Zer da basoan jai, basoan hazi/ herrira etorri eta bera nausi? -- Alkatearen makila". Hori da Ma.aten *vas*^(k) > *baso* > *bastoia* ere, (Ikus or, 50) Hizkuntza errotoari lotua dator beti ere, *matisis*⁽⁹⁾ *Ma.aten* balantza egitiar pisuari bezala.

17 "Ondo onritu dagoz gizakiak. bere jainkoaren artalde bai-dira, [...] berak egin zituan zeru-lurrak heuren onerako [...] heurak bere aragitik sortuneko irudiak bai-dira". (*La Instrucción para el rey Mericaré*, 134-137)

18 *Argi* < *aragi*, *erru* > *erruki* < *Erra* Jainkoaren teologian dager, euskerak aitortzen duen bezala, hotz, *errua* egotsi ostean, guraso *Erra* bera >



Maaten jusea matematikoa da. Balantza lanean Anubis, plater baten zenduaren bihotza, bestean Maaten *buluko* luma > *fulkro* egina. Anubisen aurrean. bihotz ilunak iresten dituen munstroa. Tot idazkariak papiroan apuntatzen du, *Or* gidariak arima Osiris aitari aurkezten dio, haren tronua ostean dagoz Maat eta Isis ere.

izan zituan, denak ezean, *errastua* behintzat salbatzearen.

Horrela ikusten dugu Sikologian aitaren abronadazko agirika eta amaren amaiñoa eta amatigoa ere. Teologiak ez badu Sikologiazko amainorik, ez da Salbamen Teologia, akadiarren inpernuko *Nergal*¹⁹ Satangoaren kalkulua baiño. Hako Ugoldea gaiztaginen zigortzat ematen da Biblian (Gn. 6), baina ez du esaten Ama Inko Nintu eta alaba Inannak negarrezko jasargoa egin zutena gizonezkoen aurrean ondamendia ikustean²⁰. Bibliak gudaroste zorrotzarekin gonbaratzen du Maite neskearen edertasuna *Kantikan* (6,10), baina epaiari dagokionez, ez dazagu amaren amatigorik.

"Otsoak zema gutxi" edo "otsoak jango al hau" gizarteko jakinduria edo destaiña izan daiteke, baina Ma.aT-en juseak, haren manatuak bezala, ba du gaitzari gaiña hartzeko pedagogiarik²¹.

>egiten da *erruki* > *errukide*, bere buruari egozten dio *erru* parte, *arrakasta* salbatzearen. (*Rescate de la Humanidad de la destrucción*. ANET 10-11.)

19 Inpernuko errege, *En.eri.gal*^(s) "erreinu andiko nagusi" *Nergal*-ek goi andeparako ateak idekiz, *galarrena* sortu zuan, bere biztanlegoa ugaritzearen. (*Gilgames*, IX, 101) Ba al du *En.eri.gal*^(s) forma itzuliak *galarren* > *galerna* hitzarekin zerikusirik? Ala obe da mitoak utzi eta alboko mailebatua jasotzea? *Galen* > *galán* > *galai* ere bide beretik datoz eta jakitekoa nork nori prestatuak.

20 *El Diluvio*, 101, ANET 42-44,

21 Ma.aT, ama+aita dira ume baten auzian, umea zigortu beharreko orduan. Zalduendoko Markitosen epaian ama+aita batean agertzen dira. Horra patriarkatuaren erlijinoak ezin atzindu izan duen Inote erritua. (Ikus or.25)

1.11. Emakundea gaurko jusoan

Patriarkatuaren eleiztar dotrinak Azken Jusora deitzen gaitu, [lekutan], nolabaiteko pedagogia egin gurarik, baina emakumeak ezin zezaken ordura arte itxaron eta zalapena jarri du kale gorrian. Apaizek ez dute jada “itxaron Jainkoaren epaiari” ots egiteko adorerik. “Herriaren abotza, Jainkoarena” denez, aldien seinale ere ba-delako. Ez dago Josefateko Zelaian emateko zen Azken Juizioraino itxaron beharrik. Aurreratu egiten da Azken Jusoa.

Emakundearen jusoa Ma.aT-en jusoaren jarraipena da, izan ere. Orain arte politikaren Plazan edo abadeen Tenploan Set egin duten gidarien ordua amaitu da. Aitordeen aukerari beda jarri zao, Amaren Etxeko Ama Eskola nausituz, argia ager dadin.

Auzia Baradisuan hasi zan, orbelpetik edo “gaitzaren eta onaren arbolako” ostro artetik “ez jan gaitzaren eta onaren arbolatik” (Has. 2) aginduari subeak berbaz erantzun zionean: “Arbola hortatik jaten badozue, jakina, Jainko adina izango zareena”. Jan egin zuten eta jarraian Adanek Eva erruduntzat jo zuan.

Asiera baten Jainkoak bere irudira sortu ginduzan: gizon eta emakume (Has 1,26), baina idazlari azkarrak gero, emakumea Ama Inkoaren muietik barik, Adamen saietzetik harako egiten du, nor noren menpeko izan behar zuen adierazteko.

Halatan, aldien epea bete zenean, behin fariseuek ezkontza autzineko emakumea dakartse Nazareteko Profeta Jesusi, Moise-sen legera harrikatzeko epaia emon zezan. Jesus, oster, makurtu eta lurrean zirriborroak egiten asi zan. Fariseuek euren salapenetan jarraien eta Jesusek burua jatorik: “zuetatik garbi dagoenak -dintose- jaurti deiola lenengo harria”. (Jon, 2.21-23) Denak alde egin zuten, emakumea Jesusen aurrean ustean zutela. Hori izan zan, Jesusek, patriarkatuari eman zion lehen erantzuna.

Or eta Set-en arteko auzian, Ma.at eta Ptah-ren arteko dotrinan lez, Itun Zahar eta Barriko letra eta espirituaren arteko aldea dagoelarik, ezinbestekoa da gaitza non dagoen ezagutzea eta errua bata besteei botaka barik, norbere erru parte aitorzea, beti ere, geroko jusoei begiratu barik, gaurko kale gorrian salatuz.



Ma.at-en jusoa Zalduendon (Arabian) Inote ospakizunetan urtero marka egin duen Markitos juskatzen da. Irudian letradunak erabakia irakurten du. Markitosek arrauts azalez egin idunekoa du samatik dindilizka. Ma.aT<ama+aita gurasoak dira batean lekuko eta epaile. Borrero eskerga [Munstroa] gertu dago apaia betetzeko. Hiztegia: **Inote**, Anu-ren seme, INOren garaia. **marra** legeak aipatu esia. **marka**, legezko marra gainditzea. **Markitos**, marra zapaltzailea **juso** alkatearen txuso, sotz, txotx, eskubide xeguna edo sinboloa. **juskatu** jusoa, eskubidea kendu, latinez>judicare gaztalaniaz juzgar Amaren Eskola, euskera, epaile. (Eskerrak Inotearen memoriari)

1.12. Zalduendoko epaia

Euskerak eta baserrietako Inoteek bere mezua utzi digute milaka urteen buruan, gure sentzunen ernegarri: Zalduendoko honakoan Markitos-ek ere *Set egin du* eta juskatu egingo dute *ama+aita*>Ma.aT lekuko dituela. *Ama+Aita* biak batean, *Ma.aT* antzo eta ez hitzaren konpongaiki errebestu, Baradisuko *aD+aM* formaren antzera, norbere maite-kideari errua egosten.

Euskal mito, erritoak eta euskera Ama Eskola dira eta Inoteek eta Anboto mendia bezelako santutegiek, halako egonarriaz, *atoratu* ta *adoretu* egin dute antxinako gureen fedea, artean tartetu diren eretxiak *esti! estikatuz* eurretan *Bata>Ptah>patekoen* herexia.

Anbotoko Mari, Baradisuko suge narrasak barik, Kosmoko *Utu>Su>Sugoi* goitarrak maitez bisitatzen du, mendiko koban dagoelarik ere, alkarganako fedea utzik ez duela adierazten, “bada Inko zoriak alkartu dituenak giza asmoak ez beiz banandu”. (Mt, 19:6)

Maite izendegia arketipoen arabera						
AN	UTU	RA	ILU	KA	BA	ASA
<i>ama</i>	<i>aita</i>	<i>arreba</i>	<i>alaba</i>	<i>kutun</i>	<i>aba, biloi</i>	<i>seme</i>
amatu	autu	arrobotu	love ⁽¹⁾	gura izan	berezi	estimatu
amar	totil, dod ⁽²⁾	irrikatu	laztan	querer	preziatu	ezkondu
amorio	tulikatu	oratu	liluratu	caro	bilatu	zaletu
maitatu	atoratu	eroo ⁽³⁾	lera	curar	vollo ⁽⁴⁾	etxekotu
nai	adoratu		lausengu	cupio ⁽¹⁾	fileo ⁽³⁾	
naitu	azoratu		loxin	agapao ⁽³⁾		

Maite izendegi honek ba du **Maite** Inkoarekin zerikusirik: **Ma.aT**>*amatu*, *maite*>*maitatu*, **Inanna**>*nai*>*naitu*, **Ator**>*autu*, *atoratu*, *azoratu*, *adoratu*.

II. ARURU AUR BIREN AMA

2.1. Amatasuna Sumer-en

Sumer kulturaz Egipto beraren aurretik garatu zan, baina biek ere Ama Eskolako jakinduriaz inutuak dagerz, Ama Inkoen izenak adierazten duten lez. Egipton *Ma.at*, *Nut* eta Sumer-en *An-tu*, *Nintu*, *ama+aita*, euskeraz ere *no+to maite* nortasunez osotuak. Sumerrek aintz handitan zuan amatasuna, “eskontza giza-kien asmoa da, baina ama izatea, jainkoarena”¹ aitortzeraino.

Sumerreko Baradisua Ninursag² ama eta Enki aita ezagutu zituan. Enkik “ur barrenak” antolatzeke zeregina zuan Anu jainkoagandik. Alabak jaio ziran eta Ninursag amak Enkiri ohar, alabak ez ikutzeko: eztabaida eta erra izan zuten³, gainontzekoz bakean iraun zuten (ikus or. 27) han ez zan azaldu Egipton bezalako abaterik, ez Israeldarren Baradisuko suge nastatzailerik.

Sumerren Nintu Inko Amaren alaba, *Inanna*³ da Maite Inkoa.

1 *Provervios de la colección sumeria I*, 160, DB n° 26

2 *Enki and Ninhursag a paradisi myth*, ANET 37-41. Cf: Nin.Ursag “andre *Ursaku*” edo *ur utxa >urruxa>uxor⁽¹⁾* ulertzen duenez eta *Enki* barriz, “Anu lurrean” hagandik lurreko urak antolatzeke agindua bai-zuan.

3 Eztabaida hori zela-ta, Enki zortzi gaisoz zigortua izan zan, baina Nin.Ursag-en ardurak zortzi osabelar sortu zituan baratzean, senarra osa zedin.

3 *Nin.Ana* “andre *Ana*” dino eta *Ana* barriz, *Anu* “zeru alaba”-



Ninursag eta *Enki* Baradisuan, emazte-senarrek biek janzen dituzte soinean zazpi gona, hako *zazpi jostunek josiak* lezkoa, biak aulki bardingoetan eta eskubide berdindun.

Bere izenari dagokio *nai*, *naia*, *naitu* izendegia (ikus or. 26) gurasoek semealabekiko apeguan barneratzen dutelako maitasuna.

2.2. Sumer eta Akad

Sumerreko Baradisu zoriaren aintza apurka amatatzen joan zan, kultura berriko herria, *amortarrena*, *mortutik* hara sartu-
la, Ama+Aita jokera ezbardinen arteko eztabaidan.

Akadiarrek ama-eskolara eta laborantzara baino burrukara eginagoak agerten dira, batez ere *Gilgames*³ heroia, Uruk uriaz jabetu eta gazteak gudura deitzen asten denean⁴. Sumer herriak jainkoen omenez jaso zuen Zikurata, errege berriak bere gotorlekutzat hartzen du. Bere ganora matxistak ez du neska bat bakean usten. Arrabots eta iskanbila sortu zan urian, jainko andiak astoratzera. Anu jainkoak Aruru, euren jainkosari, deitu eta ba dinotso: “Hi haz, Aruru, *Gilgames* sortu enduena. Orain bihotz

3 *Gilgames* ugariteko *Itu* jainko armatuaren arketipoari lotu dager, *Enlil* euren jainko bezala. Sumerrek ez zuan onartzen haren jainko duintasuna, eta euskarak ere *aul*, *il*, *ol*, *loi*, *lur* ordezkatzeko erabilten du. Beraz *galai hilkia ames*, horixe zan tituluz eurentzat *Gilgames*, hotz giza hilkor ameslaria.

4 (*Gilgames*, I, 10-19, DB. n° 7)

kera gartzuko bere kidea sortu behar dun, elkarrekin indarrak neurtu ditzaten eta bakean utzi beingoz Uruk herria. (*Ibi.* 30)

2.3. Aruru>aur>or>arorró

Egipton *Or* eroiaren ospeak erantzuna du Sumerreko akadiarrenan. Gilgamesen ama ez da Nintu, Erra edo Ator, haren alabaren kastako *Aruru* baino, hotz, *Or>Aur* leinuko, eta *aurrari arorró*⁵ abesten dakian ama, euskerak ere hala ulertzen bai-du. *Aruru* ama saiatu zan eta *aur* berria edatu zuan mundura mortuan, eta Enki ospetsuaren omenez *Enkidu*⁶ deitu zion. Herriaren onerako “zear politika” halako asmo batez funtsean, gaur gure artean erdu erdaldunen artean-eta ematen den antzera.

“Enkidu mortuan jaio zan eta mortuak hezi zuan [...] ez zituan ezagutzen gizakiak, ez eta herri eskolaturik” (*Ibid.* I.II, 35) “oreinen kideko, belarrak elikatzen zan eta iturrietan asetzen egarria [...] halako baten ehiztari bat ikusi zuan aurrez aur eta astoratu sentitu zan [...] arpegiz ibilbide luzea egineko gizasemearen antza bai-zuan. (*Ibid.* 45-50)

Ehiztariak aitari, aitak Gilgames aipatu zion eta haren gorteko neskaren baten txarma... (*Ibid.* I.III, 10, 25) [Ohar, emakume eskuak eta espirituak manadatik berrezkuratzen duela Enkidu, hotz, aberesko izatetik, gizartera erosten duela]

Gaurko gizakia Uruk uriko Gilgames garaikoa bezelatsu da funtzean. Ama Eskola faltan, gizakia manadara doake eta, Ama Eskolak, hain zuzen atoratzen du gizartera, gizartereko eremu guztietan, bai eta ere Gilgamesen eratako politikan.

Sumeriar Ama Eskolak ondo aztertzen du Gilgamesen sikologia Enkidu kidearekin gonbaratuz. Akadiarren jokerak nahi lituzke etxekotu eta, nahiz eroiak erratu bideak korritu hilezkortasunaren bila, emakume oharrek jarraituko diote ondotik aholkari on.

5 *Arorró*, seaska kanta, guantxea da eta *arrau* deitzen da “*aur*” ama-zig edo bereber hizkuntzan ere. *Erra* arketipoa koptoa da eta bere *arrakastaz* (ikus or. 22, 17 oharra) esana.

6 *Enkidu>Enkitxu* dator samur deikeran euskeraz, *semeto>semetxo* datorren bezala, edo *maritu>maritxu*.



Anu Jainkoak *Aruru*, Ama Inkoari agindu zion: “hire seme *Gilgames* horri bere kidekoa sortu behar dion, Uruk herriak bakea izan dezan”.

Aruruk *Enkidu* sortu zuan basoan, *arorró* seaskakoa abestu zion *aurrari*, baina basatiak halakoak mortuko oreinen *manadara* jo zuan.

Eiztariaren aholkuz gorteko emakumeak zibilizatuen herrira jaso zuan Enkidu eta *Uruk*-eko erregeari aurkeztu zion. *Anu*-k Gilgames eroiaren larregikeriak ibitzeko asmoa zuan, baina, bakezkoa barik, *errotiko iraultza* ekarri zuan herrira. Hala ere, Aruru *amaren alabek* haren bizitza errakor osoan aholku onez jarraituko zien eroiari.

2.4. Gilgames eta Enkidu

Gilgamesen gorteko andreak eskolatzen du Enkidu. “Ale, poza- ren alaba, [dinotso Enkiduk] eroan nagin Anu eta Ishtar-ren etxetenplu sagaratura [...] indarrak neurtzekotan.” (*Ibid.* I. IV, 43-48)

“Asmo onak eta elkarganako fedea aipatzen dute bidean, ea Uruk herriaren deseina eta etorkizuna aldatzeko unea ete zen, jainkoarren⁷ basakeriak utzi eta eskolatzeko”. (*Ibid.* I.V, 5-24) “Emakumearen aholkuak bihotza ikutu zion [...] eta [neskak] eskutik oratuta, ume bat antzo, gidatu zuan”. (*Ibid.* II.I, 65-72)

Esan ziteken jadanik “Gilgamesek kidea eta Ishtar-ek⁷ ohan-tzea gertatu zutela”. (*Ibid.* 190-193) “Bidean joazela, kalean bertan aurre egin zion [Gilgamesi...], elkarri oratu eta zezenak bezala, burruka egin zuten”. (*Ibid.* II.I, 196-217) “Gilgamesek lurreratu ebanean, oinak lurrean, baretu zan [Enkidu] (*Ibid.* 228-230) eta aintzat hartu zuan Gilgamesen nortasuna eta trebezia”.

Izkribuaren utsune bat geroago, Enkidu negarbera agerten da eta Gilgames konsolatzen diatorkola, basamortuan bizi zeneko

7 Jainkoen izenetan jatorrizko *Anu* gelditzen da, haren alaba Maite jainkosa Inanna=*Ishtar* dela, Enki=*Ea* eta Enlil dager Anu-ren ordezkari armaduna lurrean (Ikus or. 30) Patriarkatuak jainko izenen garbiketa egin duan.



Eskumatik: Anu, Enki urak daroazala, Utu mendartetik itoitzten, Uso goitik eta Idi aldamenetik kide dituela eta Inanna, Maite Inko loretua, nebearen berotasunera intzigidu: Sumerreko jainkotegia. Andik ara, basoa eta Enlil akadiar jainko armatua, Inanna-ren leoi ohia beragaz [Judakoa irudi] daukala. Izena ere galdu egin dute, hizkuntzari dagozkion arketipoak kinkan jarriaz: Anu ba dirau, baina Enki Ea da, Utu Shamash eta Inanna, Maite jainkosa, Ishtar edo Ishara da.

segeretu bildurgarria kontatzen dio: *Humwawa*⁸ eta bere basoarena. (*Ibid*, II.III, 105-109) Gilgamesek entzun eta bereala dinto: “Zedroen basora igon gura joat” [Enkiduk dirautso] *Wer* jainkoak babesten jok, *Humwawa* dok bere zaindaria eta eguno ez j ok lorik egiten. *Wer*⁹ jainkoak eman jotsak indarra eta *Adad* [*Adar* (euski) *Ifer*-aize erasoak] marruma. (*Ibid*, 129-135)

Gilgamesek jainkoen aduaz eta giza bizitzaz dihardu *Humwawa*-ri aurre egiteko. “Cedroen basoa erauntzi gura dioat eta izen hilezkorra neureganatu [...] Ator neugaz”. (*Ibid*, 159-161)

8 *Humwawa* edo *Humbaba* eta euskal mitologian *Basajaun* aipatu *Jaun Baba*>*Humwawa* egina da euskararen belarrian eta antxinako hizkuntzen eta Ama Eskolaren batasun alde. *Basajaun* eta *Basanderearen* mitoa autore askok tratatu dute gurean eta bereziki J.M^a SATRÚSTEGUI, *Mitos y Creencias*, 133-140, Txertoa (1980) Euskal *Jaun-Baba*-ren alderik bereziena honetan da: bere ondoan *Andere Baba* dager eta gure geinuaren nortasun bildugarria izadiaganako maite ikutuaz gozatuago agertzen zaigula.

9 Ikusten denez, *Wer* jainko hori *Iber*>*Ifer*-aizea da, *Far West* tokizetaren ere agertzen dena. Ingelesa ere euskeraren alde dagoke, baldin ingelesak ezagutuko balute Lingüistikaren euskerak duen balioa! Antxinako mitologiaren barri gehiago daki euskerak, grekar eta latin idatziek baiño.



Enkidu basati eta Gilgames uritar indarrak astatzen eta giza mailara egokitzen.

Gilgames eta Enkidu, errementariagana joan eta iru talentuko aizkorak, makets andiak eta talentu biko aiztoak egitea erabaki zuten. Halatan armaturik, Gilgamesek herriaren aurrean axut egiten dio *Humwawa* bildurgarriari.

Herriko agureek ohar egin zioten Gilgamesi: “Gaztea haz, Gilgames, eta sukarrak hago; erabagi nai dokan guztiaz ezer ez dakik”. (*Ibid*, II.V, 190-191) Gilgamesek otoi dagitso Shamash bere jainkoari, bere adur bidean lagundu deion eta osasunez itzuli al dagian Uruk-eko plazara. Norbere jainkoaz ari zaio Enkiduri ere, norbere jainkoa jartzen du lagun beste jainkoen aurrean.

Ninsun jakintsuaren tenplora ere, amagana lez, urbiltzen da, laguntza eske: “ez dakit ze burruka egin behar dodan, [...] ez dakit nongo bidea hartu behar dodan [...] Shamashek gorroto duen gaizto hori erreinu honetatik garbitu beharrean” (*Ibid*, III,I, 25-30)

Herriko agureek ere ohar berean, “heure gogoia dok-bai eta busti egizak heure oiñak *Humbaba* ibaian⁸”. (*Ibid*, 266) [Agureon aholkua ba-dirudi, “ikusiko duk” zentza bidezko ohar halakoa]

8 Ibaia, “jainko ibaia” Sumerren, *Basajauna* aipatzeko, eta ura “uin” Anu arketipoa, Ma.at Amaren sinboloa eta aginduetan (25) “Ez ostopatu uraren bidea” edo (12) “Ez kaltetu Izadia” gogarazten digute.


2.5. Gilgames eta Enkidu vs Basajaun

Shamash “eguzkia” eta *Humbaba* ibaia izadiko indar beheine-nak arinki aipatzea da eta Ekologian uraz eta suaz jolastea beze-la. Hagaitik ohar egiten digu euskal jakintzak “ura eta sua, belau-netik berakoa”. Ura, amatiar gai aipagarria da, agureen oharrean ere, *Humbaba ibaia* agertzen bai-da. Ma.at-en (4.5.6) agindue-tan (7) bederen: “Ez egin gizaki edo abere mindu dezaken kalterik” agertzen da. Burruka hau ama urruxa denaren sinbolo aurkako ezeze, *Ma.aT* ama bera hiltako asmoa dager, hotz, hizkuntza guztiak ezagutzen dituzten lehen arketipo bien aurkako arramantza *Ni, My* eta *Tu, zu, you*. Kultura bata bestearen aurkako hau jasaten dugu gaurdaino gizartean.

Bide luzean, mendira igon eta mendi jainkoari uruna opaldu eta otoi dagitso Gilgamesek: “Mendi, bialdu egistak lagun dakidan amesa” (*Ibid*, IV.I,15-16) “Ames zoragarria dok, ene lagun, ikusi dokan mendia [...] oratuko jeutsoguk Humababari eta erail egingo joagu”. (*Ibid*, 40,41)

Beste gau bat eta beste ames gaiztoagoa. Amesak egiztatzan saiatzen dira. Shamashek ohar hau egiten deusku: “Eraso egizue bera [Humbaba] basoan izkutatu aurretik [...] eta bere zazpi soinekoak” jantzeko astirik izan ez daian” (*Ibid*, IV. V, 43-45) Zedroen basora eldu eta “*Irnini*”-ren tronua ikusten dute” (*Ibid*, V.I, 1-7), usain gozoz da landare-tza, sasiak bidea eragozten deutse. [*Irnini* (Ishtar) *nirni^(eusk)*=”disdira-tsu” dino, beraz *Ishtar*=*Ishara*=*izar* edukin bereko izenak dira]

[...] Gilgamesek ohar dagitso Enkiduri: “Burruka aldiand desagertu egingo jakok jainko disdira”. (*Ibid*, V.II. 11-12) Enkiduk ernai, dirautso: “Lenengo eta behin makil-kada errepikatuez eraso behar deusak eta erail bera eta bere morroiak”. (*Ibid*, 14-19)



Humbaba Basajauna

10 Mendi bakoitza jainkoren bateri eskei-
nia da, Euskalerrian ere mendiak jainkoren izenari eskeniak dira; *Ainamendi*,
Anboto, *Oromendi*, *Aunamendi*, *Erremendi*, *Ramonte*, *Lamendia*, etab.

1 Zazpi gonako jantzia Sumerretik Tarteso-ra ezaguna da, Euskaldunok
ere ezaguna dogu “Gure aitak amari” abestian “gona gorri-gorria/ zazpi jos-
tunek josia”. Mitoetan bat etozenak, ama hizkuntzeko herri ziran/dira.



Enkidu eta Gilgames

Anu jainkoak bataren larregikeria
bestearen tiriaz konpondu nai
izan zuan, baina biek alde berera
tiratuz, gaiztakeria anditu zuten
eta gaiztakeria eskola halakoa
antolatu Uruk urian
euren manadakoan pozerako.
Ondo armatu eta Humbaba
Basajauna hiltera doaz,
izadiko indarraz jabetuz,
eroien maila lortzearren.

[Gilgames “errege ameslari”
eroi eroen antzeko gaizkilerik
aurki daiteke gaurko gidarie-
tan ere. Eskola zaharrekoak
dira eskola txarrekoak diren
bestean.

.....
Iratiko gure ekologizale den
Euskal Basajauna ere ez
dagoke zutik holako
barrandarien jokera.]

Eroiak gertu dagoz, agureek “kontuz ibili” esan die, intxak axa-xan beti bezala, “oraingoan jausi behar jok Basajaunak”, eta jausi delako aldarria aidean dabil. Izan ere, orduan ez zuten irudime-na baino beste argibiderik, geroak ebatz dezala legez edo arteziz, egin diezaiela eroei omenaldia. (Ikus Humbaba-ren heriotza or. 35)

2.6. Gilgames vs Ishtar

Susmo genduenez eta esana dagoenez, *cherchez la femme* errepikatzen dugu, eroeon ganora aztertzerakoan. Gilgames basotik harako, garbi eta apaian, errege tankeran aurkezten da Urukeko plazan. Orduan Ishtar gurenak “hator, Gilgames [dinotso] eta izan adi neure senar [...] eta neu izango nok hire emazte. [...] Sar hadi

12 Gilgames idazkiaren liburuak arrakasta andia izan zuan Aste Urbil
haretan. Niniveko izkribuak dinonez “Humbaba-ren heriotzan Zedroen ba-
soko marruma Libanoraino eldu zan”. Eta nork jakin, Iratiraino eldu ete ez
zen” Ama hizkuntza eta eskolakoak ziran Mediterraneokoan batetik bestera
eta ez zuten mitoen garaiko erleginoa baino beste bizikizun eta argibiderik.

zedro usaina darion gure etxean”. (Ibi. VI, I, 7-13)

Bilatu gabe ere, emakumeak ba daki aurea hartzen. Orduan da gizonezkoaren txanda: Gilgames eroiak Ishtar Maite jainkosaren aurrean bere neurria eman zuan. Aboa idegi eta “Zer emon beharko deunat, higaz ezkontzekotan?” (Ibi., 24) -esan zion. Erdeinu bigurria erakusten dio Ishtar jainkosari. Ez dio opa ondasunik, ez dedu eta ez emakumeari zor federik, bai agirikazko salapenik ostera: “Zein maitaleri gorde deutson eguno betiko fedea?” (Ibi, 43) Mito aldien aldi-ko maitaleen izenak aipatzen dizkio, eurretan *Utu-musu>Dumuzi*, edo *Tamuz Uda* eta *Negua* idurikatzen dituen nortasunekoa.

[Sumer+Akad kultura biren arteko ezin ulertua izan zan edo, gaurdaino entzutetsu diren bikoteen arteko porrota eta okerrenean, senarren epaia]. Halatan, Ishtar⁴, asarre bizian zerura igon eta Anu Aitaren eta Antu Amaren aurrean negar baten nasaitzen da: “Aita, Gilgames horrek irainez bete nau eta madarikapen hitzak esan deustaz”. (Ibi. 84-86) Aitak baretu nahi du alabea. “Okerrren bat egingo euntsan?” [...] Aita, gertuizu neuretzat odeietako zezena Gilgames hori eta bere etxea garbitu daian, ezpabe [...] inpernuetara jatxi eta hilak igonazoko ditut biziak iruntzi dagiezan¹³”. (Ibi. 88-100) [...] Ishtarren berbak entzutean [Anuk] Zezenaren sokamuturra eskutik eman zion Ishtarri. Ishkur zezenak furrustada batez leza bat ideki eta ehun gizon eroriazko zituan bertan. (Ibi, 121-124)

[Basoak bere sastrakak ditu, ibaiak bere zadorrak eta Ishtarrek bere alaben duintasuna du lurreko biologiaren pausadan. Eroiak ausaz, eza-gutuko dute bizien lurreon duten partelertasuna, umeko izan direlako egi-a ausnartuz gero, gizon eltzen badira]



Ishtar Inkoa, baso beraren antza, indarra eta zantzua gogarazten digularik

13 Ulertzekoa da maite poemak emakumeaz dinona: “gudaroste errimea bezain itzalgarrri” delakoa (Kantikan, 5,19) . 1

4 Ishtar izena *Ishara* eratan ere agertzen da, artean *Irnini* deierak argitzen digu *izarrak nirmir* egiten duela. Igelesak *Ishtar* formatik *star* bezala, ingelesak *estella*⁽¹⁾ eta *Ishtar* halako nirmiraz bereiten baleki.



Humbaba, Jaun Babaren heriotza eraileen eskuetan (babiloniar basoko irudia)

2.7. Gilgames zezenketan Uruk plazan

Ugaltasun abere den idiskoa¹⁵ Uruk-eko plazan soltatzea naste bildurgarria izan zan, “adar zorrotza, bustena motza, arrapatzen ba zaitu, jo ta bertan hilgo zaitu” kantzak ere gogarazten digunez eta toreatzailea eskatzen zuan. Zer egiten zuten hanartean gure eroiek?

“Enkiduk, zer egin ez zekiela, salto egin eta adarretatik oratu zion xekorrari” (Ibi.129-130) Idazki utsune baten ondoren, “adar eta sama artean... ezpata [...] Zezena hil eta gero Shamashi eskeini zioten haren bihotza (Ibi.154)

Ishtar, Uruk uriko almenara igon eta etsipenez, alamendu zan: “Ene!, ezetsi nauen Gilgames horrek Zezena hiltea lortu dau, Enkiduk Ishtar-ri entzu-



15 Gurean etxekotu zenetik, *zezen* “etxe sena” eta *txekor* izenak hartzen ditu, *xekor*^(eus)/*ishkur*^(s) ez dagoz elkarrengandik urrun. *Ekur* “mendi santutegia” *sikurat* dela jakinik, sagaratuaren mundura garoez, *aizkora*^(eus) *sekur*⁽¹⁾ izen mitikoak bezala. Ez aztu Adad/Adar ekaitzaren esku-armetan bat tximist erakarlea dena eta bestea *aizkora* hatan ere. Halatan, *aitz+gora* herri etimologia dirudi.

tean, Zezenari bezaburua aterata eta jaurti zion, “Heu izan bain-tzan menperatua, sorte bardinez minduko neunan, bere gantzak eurenaren ondoan eskegiko niñonazan”.¹⁶ (*Ibi.* 157-169)

Ishtar alamenka, bereekin bildu zan, “Gilgamesek bere jauregiko serbitzariei ozen: “Zein da gizakietan ederren? Zein da gerlarietan nagusi?” (*Ibi.* 180-184) “Gilgamés!” Festa egin zuten [...] Gau erdian jagi eta Enkiduk bere amesa azalduz, Gilgamesí galdez:”ene lagun, zer dela-ta batu dira jainko andiak kontseiluan?” (*Ibi.* 89-94)

2.8. Enkiduren damuak

Enkidu jainkoen kontseiiam dago amesetam. Sumer eta Akadeko jainkoak ez datoz bat erabakietan. “Anu-ren erabagia: “Zedroak ebaki dauzenak hil egin behar dau”. Enlilek orduan: “Enkidu da hil behar dauena eta ez Gilgames”. Shamash andiak, halan jardesten dio Enlil aintzatuari: “Ez zoazen ba euk agindu zerutar Zezena eta Humbaba hilteko? Eta Enkidu errugabea hilttea gura dok!” Enlil¹⁷ asarretu zitzaion zerutar Shamasi: “hori diñok egunero eurekana, lagun antzean, jaisten hazelako”. (*Ibi.* VII,I, 7-16) [...] Enkidu gaisorik ogeratu zan Gilgamesen aurrean. Gilgamesek negar baten: zergaitik zeu, ene anai, neure ordez, [...] zergaitik itzi naue ni libre, nere anaiaren ordez?” (*Ibi.* 18-21)

Enkiduk, korde galdu, kontatzen ditu Zedroen alturak, markatzen aukeratuenak, Nippur herrira urez ekarri eta saltzeko asmo-tan... [gure ohiko almadieroen ekintzak bailiran] (*Ibi.* 40-49)

Enkiduk bere zoria madarikatzen du, batez ere manadatik jarregin zuan gorteko emakumea: “garbia nintzana [...] mortutik hara gaizkileen mundura eroan nindunalako”. (*Ibi.* VII,III,31-34)

Shamasek entzun zuan madarikazinoa eta goitik dei egin zion Enkiduri: “Zergatik madarikatu dok gorteko neskea¹⁸, pozaren

16 Odol zema hau aldien joanean akadiar kulturak berak egiztatu zuan Marduk, eroe berriak, Tia-Ma.aT erritualki ezpatz zatitu zuenean.

17 Ohartzeko da *En+Ilu* arketipoen aurkakoen ezkontza eta Utu=Shamash iduzkiaren ustea, Gilgames izena eta (Ikus Enlil armatua or. 30) Ohar bai eta jainkoen kontseilu honetan ez dagoela ez Nintu, ez Aruru ama Inkorik, ez Inanna edo Ishtar Maite Inkorik, patriarkatuak hartuta dago-ta.

18 Igarria da Shamash=Utu⁽⁶⁾ Iduski nortasunaren adeitasuna jain->



Enkidu, ama Aruru-ren semea, gaisoak jota, Gilgamesen besoetan hilian datza eta Shamash iduskiak amesetan bisitatu du eta jainkoekin onean baketu. Madarikazinoak itxi eta manadatik askatu zuen neska bedeinkatzen du eta jainkoen erabakia ontzat ematen. Gilgames negarbera, Enkiduk bizi izan duen mundua ekarri nai luke bere hiletara, eta bere armak opa dizkio: aizkora, ezpata, eta eskutua....

alabea? Berak jainkoen janari dokan ogia jaten emon euan eta jainkoen edaria den garagardo fina edaten eta soineko apaina prestatu euan janzteko...” (*Ibi.* 35-39)

“Shamas-en berbak entzutean, Enkidu baretu egin zan eta madarikazinoak ezetsi egin zituan: “ene madarikapena bedi ostera bedeinkazino, errege eta printzeak maite aginala, [...] gudariak ardura barik, maitez, erregaliak egin dakinazala...” (*Ibi.* VII, IV, 1-6)

Enkidu ogean datzalarik, amesetan ogartzen eta ulertzen du gaisoaldian jainkoen erabagia eta gero Gilgamesi kontatzen dio “hik eta nik” (*Ibi.* VIII,VI, 17) alkartasun iraunean.

Enkiduk bizi izan duen bizikisun guztiak erakarri nahi leukioz, Gilgamesek haren erostariekin batera, negar egin zezaten. Berari opa dizkio bere armak “hiretzat neure aizkora lepotik dindilik, lagun zindo, hiretzat nire gerrikoko espata, aurreko eskutua eta neure jantzi apaina” (*Ibi.* VIII,II,5-7)

Enkiduk jadanik ez du entzuten, Gilgames doluz dago, koroia kendu eta biloak nastatzen ditu, “Orain ene lagun [ene anai] oge arroan etzanazo haut” (*Ibi.* 49-50). Oparia dagitso Shamas-eri.

>koetan eta Inanna-ren neba deitua (Ikus or. 30) neba-arrebek Enlil jainko arrotzaren aurrean egiten duten alkartea. Izan ere *Utu Aita* arketipoa da.

2.9. Gilgames Herio bildur

Gilgames ordekan zehar alderrai doa Utanapistin, *Ubar-Tutu* semearen bila “hiltan banok ez ete nok izango Enkiduren zoriko? (*Ibi*, XI,I,5-6) Gauez, trokarroetan *Sin*¹⁹ iretargiari otoi dagitso. [...] eta ilunari erantzuten: “Neure aurretiko Utanapistin bilatzen dot, hako jainkoen batzarrean onartua izan zena”.

Ibilian gero ta ilunado egiten zitzaion bidea, “Bederatzigarren leguan *Ifer*-aizeak arpegian eman zion” (*Ibi*, IX, V, 35-39)

Mendia igarotzean, lur berrialakoa dakus, “Siduriren ostatura eltzean” (*Ibi* X, I, 1) Siduri emakume ostalariak susmo txarra hartzen dio Gilgamesi eta atea izten. Gilgamesek dirautso: “Ostalari, zergaitik itxi daustan atea?” (*Ibi*, 20) Ate zerrailak apurtzeko semaz, Gilgames adurlaria arro aurkesten zaio andreari. “Gilgames, dinotso andreak, horren entzutetsu baaz eta ekintza guztiok egin badozak] zergaitik hago betarte maskal eta itxura galdu?” (*Ibi*, 43-44) [...] “Herioaren bildur najoanan mortuan zehar alde-rrai” (X,II, 7) Enkidurena kontatzen dio emakumeari. “Bera hil denetik ez jonat Bizitza aurkitzen”. (*Ibi*. X, III, 10) Bere bizitza alaiak eta festak ere kontatzen dizkio. Emakumeak orduan: “Gilgames, [...] bilatzen dokan Bizitza ezin dok aurkitu. Jainkoek gizadia sortu joenean, heriotza erabagi joen gizakientzat eta Bizia euren eskuetan gorde”. (*Ibi*. 15-19)

Siduri ostalariak beste bizi aholku batzuk ematen dizkio Gilgamesi: “jan, edan, dantza egik, bainua hartu, txukun jantzi hadi eta eskutik oratzen hauen semeari begitu egiok”. (*Ibi*, 24)

Gilgamesek Utanapistin-ganako bidez galdetzen dio ostalariari. “Ez dago biderik” [erantzuten dio Sidurik] eta itxasoa igaro eta zer? Hantxe diagozak gu banantzen gozaken Erio-urak-eta? Hantxe diagok Urshanabi, Utanapistinen ontzizaina” (*Ibi*, 21.28)

Gilgames hara abiatu zan bide luzean. Urshanabi aurkitu eta beraren agindura kainaberazko ontzia egin zuan eta Erio-uretara abiatu ziran hilabete eta erdiko bidean. Eldu zirelarik, eskuekin urik ikutu gabe, lortu al izan zuan Utanapistin aurkitzea.

19 *Sin* jainko honek badu mendi seinalaturik gurean ere, *Txindoki* edo *Ixtina* mendietan, ez bakarrik Egiptoko *Sina* mendi entzutetsuan.



Utanapistin [Noe sumeriarra] datorren Ugolderako ontzia prestatzen. Ez du ontzia ureratu beharrik izango, ura bera etorriko zaio azpitik gora jasotzera.

Gilgamesek Utanapistin-eri begira, gende arrunta ikusten du begien aurrean daukan eroiagan. Bere bizitzaren barri ematen dio, bere ohiko burruka lehiak kontatzen dizkio eta zera galdetzen: “Esaidak soilik zelan lortu hendun hik jainkoen kontseiluan jesartea” [...] Segeretu bat iragarriko deuat, Gilgames (*Ibi*. XI,I, 7-9) [erantzun luzea eman zion Utanapistin-ek] Jainkoek zelan erabagi zuten ugoldea, Enlil eta Enkiren arteko etsaigoa (ikus or. 30), salbamen ontzia antolatuz zutenekoa, *Nergal*²⁰ (*Ibi*. 101) ugateak askatu zituana, *Anunakiak*²¹ (*Ibi*. 104) suziez sortu erreketak, “egun guztian ekatxa furrustan, uriolen ondarena (*Ibi*.109). Jainkoek ere orduan ugoldearen bildurrez, Anuren zerura igoteraino (*Ibi*. 13-14) “Ishtarrek, aurginetan lez [...], garraxika esanak: “uxela egun hori izan ezbalitz, jainkoen batzarrean idea okerrak izan bai-nituan” [...] gizakiak, neuk maitez sorturiko herria ondatzeko gerla aitatu bai-neban, ene, zelan bete neinken itxasoa eurekin, arraintxoak bailiran! (*Ibi*, 118-124) Anunnakiek ere negar egiten zuten [...] gero jainkoen-

20 *Nergal/galarren*^(eus) > *galerna* idulestara, itxastarren oroitzan.

21 *Anunaki*^(s) > *Ainaniñoko*^(eus) “deabru kume” garai bateko baserrian.

tzat prestatu oparian, Ishtar-ek erantzun: “baina Enlil-ek ez dagiela dasta oparia, burugaberik erabagi bai-du ugoldea”. (*Ibi*. 167-169)

2.10. Hilezkortasun belarra

Utanipistinek ugoldearena kontatu artean, Gilgames lokartu hainean zan eta ia etxera itzultzeko ordua egin zan. Utanipistinen emaztea errukitu egin zitzaion: “Gilgamesek bidean jasan daue-nagaz [...] zer emon behar deusak bere herrira itzuli daiten?” (*Ibi*. 259-260) [emazteak mogidu zuan gizona] “Gilgames, isilekoa esan behar deuat: Ba diagok bedarki bat, lar arantzatsu halakoa hor [...]. Lortzen ba dok, eurea dok betiko Bizia”. (*Ibi*, 266-270)

Saiatu zan Gilgames, lortu zuan urpeko bedarra eta pozez etorren etxera Urshanabiren ontzian, *Bizi bedarra* bere jauregiko loretegian landatzeko gogoaz. Etxera bidean gaua egiteko gelditu ziran. Iturri bat zan hantxe, Gilgames garbiketa egitera jaxi zan [...] hanartean belarraren usaina sumatu zuan suge batek [...] hartu eta jan zueneko, eskatak [zaharrak] utzi zituan”. (285-289)

Ezintasunaren negarra jastatu zuan barriro Gilgamesek. “neurea zen onura gordeten be ez joat jakin”. (*Ibi*, 295)

Etxera eltzean, bere jauregira gonbidatzen dau Urshanabi eta bere arresiak erakustean, “ikus egik oinarriak arrillu ondo erreaz tajutuak dagozanetz” (*Ibi*, 306-307), kontakizuna amaitzean.

2.11. Jainko bizardunen Kontseilua

Jainko arrak jakingo dute zer dela-eta Ama Inko edo Maite inkorik onartzen ez den euren Kontseiluan, Sumerren eta Egipton onartzen zen bezala. Ala amak ez ete du bere seme-alaben auzian esatekorik edo eta Maite Inkoak bere maitaleez oharrik? Kontseilu hori, gizonezkoen Kontseilua, ez ete dago argitu gura ezik, eta argitu beharreko arketipo baitatuen ilunpean?

Ma.at-en jusoa (or. 23) oroitzea dagokigu, Nin-Ursag eta Enkiren arteko patxarea (or. 27) edo Inanna=Ishtar-ek Ugolde osteko Batzarrean esanak (*Ibi*, XI, I, 118-124) Esan beharra dago, gizonezkoen batzarrean armak eta giarrak direla nagusi. Eurek menderatu zutela Ama Eskolak ulertu eta azaldu Izadia eta oretu Bizia, aurrera-koan Gizonezkoen Senak bestelaz gidatu zezan mundua.



Gilgames hilezkortasun belarra eskuetan duela, ames-ohargabetu, subeak ostu egiten dio eta behingoan subeak larru zaharra erantziz doa. Agur Gilgamesen amesak: Ezingo du landatu belar hori Uruk jauregiko baratzean...

Hala ere, ez egozan *amatu*><*amakatu* burruka horretan denak ados, >*magia* hori zihurtatu beharra zegoen, beti ama-erriaren mende ez egoteko, eta obeto esan, amaren manamenduetatik jaregin izateko. Errito berezi batez sagaratu behar zan halako ituna.

Akad-ek ez zeukan hatarako nahiko alturarik, ez Uruk uriko arresiko arriluek nahiko laberik. Hatarako EXARRA eraiki beharra zan, hango jauregian bai, gizonezko jainko guztiak batzarteko toki apain eta egokia izango zuten¹⁹. On eritsi zioten jainkoek halako egitasmoari, baina, hala ere, zein izan behar zuan denen nagusi? Tia+Ma.aT ala Marduk? Bat edo beste? BATekoa izan behar zuan eta ez BIKoa. *Marduku* Sumerren eskondu *marittu* zen *Martu* beraren semekoa asmatu zuten emakumezkoaren aurkari eta Marduken armak eta magiak garaipena eman zien gizonezko jainkoei Babilonian.

Menfisko abadeek aldarrikatu zuten Sorkuntza bera arranditsua go eta erritualki sagaratu zuten Exarrako abadeen dotrinak, *Enuma elish* idazkiak dakarrenez. Geroko Grezia eta Erromako eupadak hiruzur horren meneko morroi arrozko baino ez dira gaurdaino.

19 *Enuma elish*, 119-124. Cf: “etxe bat eraikiko dot hantxe, egoitz oparoa, gela bereziduna” (*Ibi*). *Exarra/Etxarri/Arretxe*>*Artze*>*Arze*>*Ars* tokizen ezaguna egiten zaigu antxinatik gaurdaino. Izan ere, horixe dauka euskerak, antxinatea gaurkotzen dizu eta gaurko akatzen iturburua salatzen.

2.12. Azken Jusoa

Ospetsua izan zan eta bildurgarria, *Dies irae* deitu zioten eta hileta guztietan abesten zan abotzetara. Gaitzerdi eleiza mailan aztu genduna, Vatikanoko II ostean. Baina hor dago oraindino Miguel Angelek marraztua eta Vatikanoko arte bikaintzat erakusten dena, gizaldietan dotrina garbitzat emana bailitzan²⁰.

Josefateko Zelaian izango ei zan, bada halantxe dago Joel Igarleagan idatzita (Jl 4: 2 eta 12) eta eskerrak mitoak eta Itun Zaharrak bereizten dakiguna, eskerrak batez ere, guarko medioei eguneroko jusoa Orokor egiten laguntzen digutena.

Biblia ulertzeko Gilgames irakurri behar da eta Inko Ama+Aitaren sorkuntza ulergarria ulertu, gero ama-semeen arteko burrukak, ugoldea, jakintza eta hare gehiago, jainkoen arteko burrukak eta zehatzago *amatu* eta *amakutzen* duten jainkoen arteko burruka, edozein eta edonoizko gizarte politikan bezala.

Ma.aT bada manatuen emailea, ezin daiteke gero jusoan ebaitsi *amatigo* barik, ez eta *amaino* barik, emerik ez aipatzearen, Ama bako Irutasuna asmatu duten teologoaren antzera, bestela, Ishtar-en semak lez (or. 34), ez hilak lurrera bakarrik, ezpaere emakume denak urtengo lukete/ dute kalera, zuzenbide eske.

Espirituak manadatik atera ginduzan persona duinak izateko, Ama Eskolak zutunik lurrean ipini eta sentzun argiekin izadiko edertasuna begitu, haren zentzuna somatu eta irakurten erakutzi, harago: Inko izenak (or. 22) agozkutzen entzun geure ume abotzen armonia ederrenarekin, gero ames gaiztoko sorkari gilipoila [astapotro] batek etorri eta, intzentsu lainoen artean gure kulturako argiak kolpean amatau daiskuzan.

Ogena legearen ondarea bada, nor da etxeko umeoi legea eta beharra ezarri diguna, ama ezpada? Umeen arteko eztabaidan, baserriko aitak amagana bidaltzen zituan eskuak garbitzera. Arrigarria da *Ma-aT*-en manamenduen bilduma (or. 16) eta ez gutxiago Maisuaren gardiz, Lege osoa bitan bildu eta bata bestearen

²⁰ Eskerrak Vatikanoko ez den Eleiza, Kapera Sixtina baizik. Lotsagarria da, ez piuren bilusiagaitik, epailearen ganoragaitik baino eta lekuko den Andre Mariaren auldadeagaitik, holakoxea delako matxismoaren jokera edozein arlotan.



M. Angelok Vatikanon ikasi zuen Teologia Salbatzailea-kondenatzailea edo eskumak ezkerrean nahiko bilosik eta pekatarien babesle deitu Andre María, ezinaren urrengo.

heineko ematea: “Jainkoa gauza guztien gainetik, bihotz-bihotzez maitatzea eta lagunurkoa norbere bura lez²¹. (Mk 12, 29-31).

Legelari zaharrek ere Ama Inkoen izenak aipatzen zituzten euren eman legeen berma lez²² eta Sumerreko *Eduba* Ikastolak Nin-Saba Inko jakintsua ohoratzen zuan beti²³.

Azken jusoa aurretatu beharra egon da, azken hamarkaden boladan. Izan ere, jusoaren halako luzapena ez zan fidagarria, ez *naiz zure Jainkoari baino gehiago fida* euskal jakintzaren arabera, edo Apostoluaren “Kristoren maitasunak behartzen gaitu”. (2 Ko 5,14-20). Noiz arte itxaron genezaken *Azken jusoa*, dagoneko kale-kalean delarik? Juso horretan ez da emakume salapenik faltako, nahiz Exarrako Jainkoen Kontseiluan, Inko Amari eserlekua ukatu. Jada ez da fidagarri Patriarkatuaren jainkoa?

²¹ “Jainko zure Jauna bihotz guztiaz, adimen osoz eta indar guztiekin maitatuko duzu”. Eta bigarrena: “Zeure lagunurkoa zeure burua lez maitatuko duzu. Ez dago hoiek baino manatu andiagorik» (Mk 12, 29-31).

²² “Nannaren adorez” dino Ur-Nammu Legeak asieran, “Nin-Isinaren jargoia eta jakinduria aipatzen Lipit-Istar Legeak (MARIE JOSEPH SEUX, *Leyes de Oriente*, 16 eta 19, DB 15)

²³ (JEAN LÉVÊQUE, *El aprendiz de escriba*, 27, DB 26)

III. ANBOTOKO MARIren SEMEAK

“Zergaitik egin behar jakon noka Anbotoko Mariri?” Hizkera horrek elkar arteko sexuen berdintasuna adierazten duelako edo halako formak sagaratu zituzten asieran jainkoekiko erritualean. Ama Eskolako errituala zenez, aker-tipoak ez zekusen ondo, ez eta abate batzuk ere noka eta toka hizketa modua. “Hori sorgin berbeta da” esaten zuten. Beraz, *ba dakin, neska*, berari mesede bat eskatu edo otoitza egin gura ba *deutson, esaion*: Egunon, Andre Mari, zelan igaro *don* gaua kobako alturan? Egingo *deustan* halako mesedea? [*eskatuin* gura *donana*] Ez *deutson* heuk beste eskolan edo kalean ikasi *donan* lez berba egingo, ez ala?

Geuk ere, bardin, idazki zaharrez baliaturik, Anboto Mariren semeen arteko etsaigoa eta burrukak aztertu ditugu. Idazki zaharrok idatzi orduko herrien abotan ipuin bizi izan ziren benetan eta hizkuntza bera ere ulergarri Astetik Ostera² eta Mediterrane-ar itxasoan zehar, komunikabide aizatza zutela.

Ainamendi eta Bizkaï itxas Golkoa ere ipuinen gordeleku bikaina gertatu da eta *Anboto*³ Mariren atxa, santutegi barne segetudun, baina herriaren begietan toki nabaria gertatu da inguru zabalaren ordeka-sakanen artean, beti ere *An* “zeruak” bere seinaleen *botoz* mendietan *Anboto* egiztatzan diguna.


1 *Barazakuzu, Asaru, Tutu, Kinma*, etab. “esto parece euskera” esan zuan kapituloaren iruskina egitea egokitu zitzaion neska euskaldun barriak. Profesoreak serio-so, formalidade gehiago eskatu zion neskari. [Holakorik!]

2 Euskerak ba du ingelesak beste eskubide eguzkiak egunero seinalatzen dizkigun gida hoiek Ast/ West deitzeko, euskera delako maesak, obeto dakialako *aste* eta *oste* hitzen edukina.

3 Gure oinpeko bedarra korainaz ebaki gure leuken *Una historia de Vasconia* idatzi eta ETBaz goraiatu dutenen oinarrietan bat haxe da: gure etxean zeltak bizi izan ziren gu baino lehenago, guk ez dakigu tokizen askok zer esan gura duten: *Oka, Anboto, Oro*, eurretan, (F. ZUBIAGA, *Iruña Veleia bizirik*, or, 77-91)



Marduk ugaroan Tiamat txalupa duelarik



Mari Anboto edo Anbotoko Mari, tokia eta mitoa. bata bestea dakar herriaren gomutan eta bizitzan, “Bera bakarrik delako nire salbamen atxa, arkaitza” (Sal. 62, 7) eta nik neure fedea deusat Ama erraiak daukazan mendiari...

Orain bi mila urte-edo euskaldunak idatziz eman baziguten mito hoi berri, deigun Iruña Veleiako Paedagogiumean, eta arkeologoen eskuetan jausi, bardintsu izango zan⁴. Marduken ondorengo guda gizonek ukatu egingo zituzten, faltsoak zirela esan eta arkeologoen erruduntzat jo eta jusora eroan.

Mito idatzirik ezean, abozkoak ditugu, harago, Amaren arketipoa bezala, halako fedez bihotzean gorde arketipoak direnez gero, giza bihotzean gorde ditugu, patekoen tenplo eta plazetatik erraustuak izan zirenarren. Bihotzean gordetzen dituztenek transmisio egokia egin behar dutela gizaldiz gizaldi, oroitarrria *Anboto* eta azalpena euskera ditugularik.

Eskerrak ugoldeak mito iskribuak lokatzean estaldu zituena, bestela guda gizonek erre egingo zituzten beste herrien izena galtzea-

rren. *Anboto* mugarri bikaina ezeze, gomutarri mugiezina da. *Anboto*, izenetik izanera, Mariren etxea da, eta inguruko tenploen dorre urtenak bere omenez kanparririk jotzen ez dutenarren, Mariren koba da hango Amandrearen eskaratza. Amaren seme saheiztuak, euren sortzailea sorgintzat⁵ hartzen dutenarren, hor gelditen da bera, Anbotoko Mari, geure arketipoen azterleku eta argibide. *Anbotok* nolabait Mariganako fedea eta Ama Eskola zaintzen du, *Ainamendi* eta euskal mendi-itxasoak Euskal Herriaganakoa bezala.

3.1. Anbotoko Mari, Ama arketipoa

Zergaitik esaten zaio eskabideetan Mariri: “emongo *daustan* eta ez emongo *daustazu?*” Euskerak, hirule finak lez, Gramatikaraino zehaztu eta bultzatu zuelako hizkuntzaren errittoa, eta erritualki bereizten dugu hagaitik adizkeretan seksoa⁵. Baserrian beti egin izan dugu noka neskei eta toka mutilei eta eleiz gizonak ere aintzat izan zuten herri ohitura, baina, antza denez, ez denek eta beti⁷.

Mari, *Maddi* edo *Ane*. *Anne*, *Nagore*, *Nerea*, etab. izenak ere *Ama* arketipoa zaintzen dute aurreko, *Anboto* tokiak berak ere markatzen duenez. *Anboto* izenak, adibidez, lenengo silabatik gorde du *Ama* arketipoa. *Ama* arketipo hau geure *adn* eta Espirituaren bihozkerak Gramatikaraino eskolatu zuenak, ba ditu ekologia bizian edo psikologia-sikiatryan barne matasak arilkatu eta korapiloak banaka askatzeko beste hari batzuk⁸.

5 Grekar klasikoak eta latinak, sexoak ugarituz, gauza hilei ere sexoa ezarri zioten, errito zehatza igestearren.

7 Ezagutu neban Erregeoititik Muxikara ezkondu zan izeko bat, behin nire arreba umezurtzei agirika latza egin eutsena: “Ez da esaten *eztona ta baidona, ez dozu eta ba dozu baino*”. Katekesiren bat izango zuan. “XIX. mende inguruan Zabala apezak erraten zuen toka-noka satanen formak zirela” (Anne Marie Legarde)

8 AN “zeru” Inkoa da Sumerren, *Inko* “haren seme/alaba dogu euskeraz, *Inigo* bezala, eta *Inote* haren urteroko jaiotze ospakizuna. Hagaitik dino Sumerreko jakinduriak “Giza gazteak polikeria barik ospa dezala bere jainkoaren aintzazko berbea eta Sumer herri leialean bizi direnek haria bezala arilka dezatela”. (*El hombre y su dios*, 2-3, DB n^o 26)



Neosumeriar Ama Inkoaren irudia, Mari Langi errege oparia (Alepo-ko Museuan)



“Hoiak [umeak] ixilduko balira, harriek eurek egingo leukeek berba” (Mt. 21,9)

Espiritua, nai duen erataria komunikatzen da eta aragizko bihotzetan bakarrik dagoke, ez harrizkoetan (Ezek. 36:26-27)

“Zuen barruan neure Espiritua ezarriko dut eta neure legebidean ibiliazoko zaituet eta neure aginduak beteko dituzue” (Ezek. 36:26-27)

Ama ukatzen duten bihotz gogorak ixildu egiten dira, [guda gizonak ukatu egiten...]. “Zuen aragitik arrizko bihotza kendu eta aragizko bihotza ezarriko dizuet”. (Ezek.)

3.2. Mari eta Maddi izenak

Mari, *Mara* izenak <Ama+Erra arketipoen elkartez sortua da. Ma.aT<Ama+Ata aldiari gizaldi antzeko pausoa emon nairik. *Mari* Neosumer garaiko uriaren izena, Egiptori keinua egiten lez, Eufrate eskumalde, Siria parean da⁹. Erleginoa, bestalde, eta arketipo diren jainko izenak politika ezkontzak egiteko hari fina ziran.

Marra izena tokizenetan erabilten dugun hitza da, *Maroko*, *Markaida* bezala. Herri biren mugan degoela esan nahi du eta harago muga hori itxaso bada. Hortik egin du latinak *mare* eta hizkuntzan ezjakinek bera, latina, hartzen dute eredu eta sorle.

Biblian Moisen arrebari *Maria* deritso eta Ebangelioan Jesusen amari ere *Maria* deritso. Hala ere, Ma.aT>Maite>Maddi, *Mari* izena baino mila urte ta gehiago zaharragoak dira. Nork jarri diezakio urterik *Anboto* arkaitzari eta bertan bizi den Mariri?

9 *Mari* uria Tiro sumeriar portuari begira sortu zan, han eukazan Egiptoko nasa ezkerrean eta, Ati eta Greziako eskumaldean. (Ikus or. 46, irudia)

3.3. Mariren marrak

Manamenduak Ma-aT Inkoarenak dira (ikus or. 16) eta egoki da Mariren mandatuei *marrak* deitzea. Edozein ume jokutan *marrak* jartzen dira, oinak non jarri behar diren jakiteko eta *marr*a zapaltzea [falta] set egitea da = marka egitea, eta ausaz *esitua*>-*ejido* apurtzea da “set egitea”, Set-ek ohi bezala (Ikus or. 20).

Ardurazkoa ez da batera edo bestera deitzea aginduoi, ezpaere manamendu haiek Mari Anbotokoagan halako jarraipena dutela ohartzea eta somatzea. Hori es da deabrukeria.¹⁰ Hori mitoen legea onhartzea da, hotz, asierako jakinduriaren partele izatea.

Edozein amak ipinten dizkio esiak edo marrak umeei, minik

Mariren marrak

Ez ostu
Ez esan guzurrik edo ez den gauzarik
Ez inor hil
Ez arrotu
Aintzat hartu, errespetatu lagunurkoa
Emondako berbea bete, berbako izan
Bata besteek alkarri lagundu, auzolan¹¹

Moisen aginduak

Jainkoa gauza guztien gainetik maitatuko
Jainko izena ez alperrik agotan hartu
Jai egunak jai egingo dozuz.
Ama eta aita dedutan izango dozuz.
Ez dozu inor hilgo
Ez dozu aragikeriarik egingo.
Ez dozu ostuko

hartu ez dezaten eta elkarrekin onean konpon daitezten:

Aginduon aldea eta elburua errez ulertzen da: *Marik* gizartearen ona, gizatasuna, sikologia, bilatzen du, *marrak* elkar konpontzeko dinoe. *Moisek* goitik beherako arrastoa markatzen du, halako bildurra gehituz, gizartearen zentzabiderako. Taula biok, ostera, Ma.aT-en aginduekin gonbaratuz gero, azken bieri Izadiaganako ardura falta zaie, Kosmoa bai-da, biziaren Eskola

10 “Hori da *markie!*” esaten da, norbaitek Markitosen *markak* egitean, (Ikus or.25) edo “marka egin deusku gero!”, norbaiten barrabaskerian. Kiroiletan, barriz, “marka guztiak gainditu ditu” esangura baikorra dator.

11 Hori farisearrek Jesusi egin zioten salapena da: “Honek Belzebud deabruaren eraginez astintzen ditu deabruak”(Mt. 12, 24)

12 J.M^a. BARANDIARÁN, *Mitología Vasca*, o.c. p. 119



Mari Inkoaren mendia urbilketan. Zer dira laino zerrenda hoiek, zer esan nai dute? Nor dago/ dabil ur, laino, aire hoién dantzan? Ondo kontrolatzen dute dena gure sentzunek? Eta sinboloak badira, zeren ezaupide dira? *Anboto* izenak zer esan gura dau? “Zeruak seinu edo *boto* bereziak emoten deutozala”. Ardura deusku? Geure arketipoen mugarri, memoria da.

arquetipoen egotetxea eta Inko Espirituak ere Kosmoan hartzen duelako aragia, hotz, *amatzen* bai-da. Aginduok gizartera begira dagozen neurrian amatar pedagogia dira eta zenbat eta gehiago trantsendenzian kokaten diren, harago *amakutzen* dute.

Mariren marretan ez dager berarekiko zehaztasunik, baina, itanoz formaz gainera, bere gelan aurrezka sartu-urtenak beharrrak bere esanaia dute, hotz, “ez dagoela amari ostea emoterik”.

3.4. Mariren jusoa

Legeak egiztatzten du ogena edo peka eta, Ma.aT-en jusoa esagutzen dugunez gero (Ikus, or.23), ardurazkoa da Marirena ere jakitea eta gero Moisen epaiatz gonbaratzea. Mariren jusoa herriak gorde jakiturietan agertzen da, adibidez *ez egik gatxik eta ez euk bildurrik*” edo *gatx egiten bok, hainbeste itxadok*¹⁴, beraz, lojika onean esanda: “*lagun urkoa eure burua lez maitatu*. (Mat 22-36.

Marik heziketa onaz geure jusoan parte hartzera gonbidatzen gaitu: *gezurtia bere ahotik galtzen* esaten digunean, geure auke-rabidea eta erantzukizuna aipatzen digu eta bidea erakusten digunean, “*heu haz bidegile, heuk bilatu dok*” esaten.

Ma.at-en jusoan amaren amañoa nausitzen da, Mariren jusoan,

13 Ostea edo atzea ez emoteak Mariri ezin zaiola ezer izkutatu esan nahi du eta “amari ez yako guzurrik esaten” jakituriagaz bat egiten du.

14 GOTZON GARATE, *Atzotizak*, 243.

umeen psikologiako heziketa eta Moisenen, bildurra, gero ere, hain kutsatu, San Sixtoren Kaperan ikusten denez¹⁵. (Ikus or. 43)

Manatu gehienak "hau ez egin" eragozteko formaz emonak datoz eta gitxirenak "hau egin" baikor formara datozenak. Hain gaitik artzainak Mariri *zerez bizi haz?* galdetu ziotenean, *ezaz eta baiaz bizi nok*¹⁶ erantzun zion, hotz, bere auzoekiko jardunean esanak bete egiten zituela, *ez danean, ez, eta bai, danean, bai* eratarata, bakoitzak bere eskuz har zezan zegokion ordea edo zigorra.

Mariren amañoa burubidezkoa da, ez dager, behar bada, *Ma-aT maitearena* bezain *maitatia*, baina bai amatar maite senean oinarritua. Oinarri horren falta dauka, hain zuzen, patriarkatuaren legeak. Amaren legeak sortze aurretik eta idatzi orduko, gizakiaren bihotzean ezarriak dagoz, amak umeekin bat egiten duelako. Aitordeak, ostera, semealaben ardura barik, harrian idazten dau berari konbeni zaion legea: "bizia, bizi truk, eta "begia, begi truk" eratarata.

"Neu naz Hammurabi [...] munduko lau aizeak erasoz oratzen dituen [Anu eta Enlil, Sumer eta Akad-eko jainkoei, omen egin ondoren, jainkosei ere agur egiten die] jainkosa Teliturren maitalea [...] Ishtar-en bihotza pozten duena"¹⁷.

Legelarien etika euren eskubidean dago. Nondik jaso zuen Ma.aT-ek edo Marik eskubide hori? Amek berezkoa dute umeak gobernatzeko eskubidea. Umeen ama ez denak ez du berez, eskubiderik, Uruk edo Babilonia indarrez hartu zuen erregeek ere euren burua koronatu zute, eskubiderik gabe.

Maitasuna bera lege denean, emakumeak aurre egiten dio bizardun jainkoari ere: Sumerren Inan-

15 Nazareteko Jesus patriarkatuaren aurka jarki zan, herritik alde egin behar izan zuenarren. Ezkontza loitzeagaitik harriatzeko ekarri zioten emakumea ez du kondenatzen, aholkatzen baino. (Jon, 8. 7-8)

16 Gehigarritz aitortuak edo eskasian izkutatuak, Marik bere esku gordetzen zituan, hori bai-da egia eta zuzenbidea ikasteko bidea.

17 "MARIE JOSEPH SEUX, *Las Leyes de Hammurabi Prólogo*, 30, DB 15.



Hammurabi erregeak Utu>su (Shamahsen eskutik) *soz>jus* jasotzen du. Berak harriari idatzi eta eta oroigarritzak irudi eta guzti jasotzen du: "begia, begi truk", "bizia, bizi truk"...



Bai, andia eta artoa dala Babiloniako *Exarra*. Ohar *etxe goratu>ziguratu* dena eta zigurat gainean dagoen *etxe Exarra* deitua. Andia izango zan, baina gonbaratu Anboto atxarekin. Zerikusi duten bataketak eta besteak? Exarran Marduk da nagusi, Anboton, Mari. Herri bakoitzak berera aitortzen du bere kredoa. Giza egitura, ala Inko egitura da andiago? Kosmoan bakoitzak bere tokia du: ondo antolatu eta liburu idekiak lez, azaltzen du. Gehigarriak soberan dagoz. Herriak betik gora igotzen du, Inkoa goitik bera dator.

na=Ishtar ikusi dugu Enlil jainko armatuari aurre egiten eta Nippur-Duranki herriko bere Ekur tenploa erretzen. Anu-ren deseinak itzuli zituelako¹⁸ eta, bardin, Ugariteko Anatu maite-jainkosak Ilu jainkoa zematzen du, Balu maitaleari agintea itzuli diezaion¹⁹.

Mitoen garaiko jokamoldea ezagutzea geure aurretikoen jakinduria ezagutzea da: Orduan bat bigurria bazan, "*amak egin eta milikatu gabea haz* esaten zan eta zintzoa izanez gero, *jainkoak in da milikatze*. Ez da nonbait behi-ama bere txaltxoak milikatzen dituen bakarra. Maite negurri honetan esaten ez dena *DEBRUAK IN DA MILIKATZEKO*, bada, deabrua ez da kristaurik sortzeko inor eta, *amatu* barik, *AMAKATU* bakarrik egiten duelako eta, beraz, "ez den gauzarik ez da esan bahar" Mariren marrak dinon bezala.

Gaurko emakumeek Maite Inkoaren adorea ezagutuz, obeto ikasiko du maitasunez barik, bekaitzez diatorkon andikiaren utsak eza gutu eta bere biziko eragozpenei aurre egiten. Norbere arketipoa ezagutu eta jarraitzeko, **akertipoa** ezagutzea da biderik onena.

18 *La Lamentación de Urnammu*, 205, DB, nº 26

19 *El Palacio de Ba'lu*, 1.3 V, 19-34

3.5. Nippur Duranki Durangon

Duranki “zeru-lurren arteko doru”: *doru*=”erastun” + *an*^(s)=”zeru” + *ki*^(s)=”lur”, Enlil jainko armatuaren santutegia *Ekur*^(s) zan, Gilgamés-en alderdikoa (ikus o. 39) eta Hammurabi-ren eredu (ikus o. 50). Durango aldeko santutegietan ezagunak dira Tabira eta Mikeldi [Mikel ate, ibai bide], hango soloan agertu bai-zan basurde edo anka artean eguzki seinua duen iberiar urde *iduri*>*idoloo*.

Goiztar konturatu ziren agintariek herri baten bihotzaz jabetzeko [bada gorputza zapaltzeko, nahiko zuten burdinezko arma] haren santutegien adoratzaile urten behar zutela²¹.

Erromako enperioaren ostean, karistiarrek, mendietan adarra jo eta gaeuz su-deia eginaz batzen ziren Gernikako Arbolapean eta Ibaizabal buruko Durango-aldekoak Gerediaga Alkartean.

Naparroa eta Gaztelako erregeak laster konturatu ziran Durangoko Kunterria atal gustagarria izan zeitekela eta ermitak, dorreetxeak eta mugarriak ipinten leiatu ziran. Naparroa bera aurreratu zan, Yurretan Amatzako San Martinek, 1072 urtean, Kukuliako Done Miliari egineko dohain agirian agertzen denez²¹ Haraz gero, Gaztelako erregeak ere Naparroako erregetzaren mugarriak begiratzaren ditu.

Oiñaztar eta ganboar aide nausiak, errege bataren edo bestearen garazetan armatan ekin zioten, Bizkaia guztia narrutu ainean euken, herriko gende bakegileen begiramen barik. Ez ziran laketutu harik eta

20 *Duranki* zeritson Nippur uriko santutegien aldeari (*Las Leyes de Hammurabi*, 94, DB 15) Arketipoak aztertuz, Utu+Ra “iduski aita+seme” +An “zeru Ama”+Ki “lur”. uTu+Ra=*arte*^(eus). An+ki >*ango*^(eus). An “zeru”+boto > *Anboto*=*zeruak enboteretu*.

21 Amatz, Yurretan, Momoitio [ume+ota>Miota>Mota] otara doan pasa atetxoa da. tontorrean dago beste hilerri ta guztiko hermita izan den erainkintza. Hala dino agiriak: “*in confinio Duranci, cum decania partis Bizcaie, nomine Yhureta, reliquias sancti Martini ferens*”. Goiztarra da Martin Doneaganako jaiera ere, goiztarrak bai-dira, izan ere, *Marti gari*, *Marti* oilar udabarriko emoitzak. Cf: *Napar* testoari bakarrik falta zaio>



Goian Nippur>Nuffer>napar? B an ekur santutegi mendia zikan tu<itze goratu, Enlil-ena eta gu



Duranki^(s) “zeru-lurren arteko dorua” da, An>*anil* goitatik bera jausten jaku eta *Utu*>*iduskiak* betik gora, bere *doruan* sartzen ditu beragan zeru-lurrak,

herriko jendeak, alkateekin bat harturik, armak eta odol ordeak behingoz uzteko Erabagia hartu zuteino 1321 urtean.

Erregek bultzatu uriak eta forudun elizaldeak eratzen zuten Bizkaiko lagunartea eta alkar aintzat hartuz, alkarregaz bakezkoan bizitzaren ikasi zuten, batak besteari sor laguntzaz obeto osatzen zutelako bizibidea, baserriak ere kalean zuelako merkatua.

Erregeak euren erreinurako eskolatu nahi zuten Euskal Herria eleiaz baliatuz, baina baserriar seneko abade askok errege-or barik *etxeko or*>*txakur* urten eben, euskerak gaztelaniak bera baino urte batzuk lehenago ezagutu bai-zituan moldezko letrak²².

Beraz santu katolikoek ermitak ez ziran *Ekur* deitu santutegi jatorrez guztiz jabetu, Anbotoko Mari Amadrearen egoitzaz, adibidez, eta ez atxaren edo *ekur*>*arrokaren*, gotortasunagaitik bakarrik, bai eta ere amatar bihozka dutenen sen eta fede sendoagaitik.

>*Duranci*>*Duran*>*Durango* bidea egitea eta orobat *Nippur*>*Nuffer*>*nefar*>*nafar* etortea, (*El pobre de Nippur y Matin Motela*, FÉLIX ZUBIAGA), bada, *Wer*=*Ifar*<*Ibar* bidea dagoneko aztertua dugu (ikus o. 30), *Añibar* izenak adierazten digunez.

22 J..Leizarrsga, ugonoteak Bordelen, 1545 urtean, argitaratu zuan Biblia euskeraz, gaztelaniazkoa 1569 urtean argitaratu zan. Fray J. Zumarragak ere 1593 urtean, eraman zuan Mexikora nahualteraz imprimatzeko moldiztegia.

3.6. Mari eta Sugoi, senar-emazte

Ari denez, Marik Anbotoko koban egiten zituan egotaldiak eta Sugoi deritson senarrak ikustatzen ei zuan ekaitz aldietan, eurite, aizete, ekaizte, etab. Inatazia edo txingorra ere izaten omen zan halakoetan eta ez inizitua bakarrik. Guzti hori *Sugoi* nortasunarena da, izan ere. *Inizitua* zerua ostantzez eta tximistez argitzen deneko ikuskizuna da. *Utu>Su* ezagutuz gero, argi dago *Iduzkia Sua* dena eta *Su* hori goikoa bada, *Sugoi* egina da eta ez du beko sube narrastariagaz [Baradisukoarekin] zerikusirik. Harena analogiazko pozoi mingarria bai-daite soilik.

Sugoi nortasunak zera dinosku: Mari Amandrea izadiko indar bizigarri eta berriztagarrien partele dela, mama, uina, ura, hain zuzen eta “Ur goiena” hatan ere, goiko *uridin*<*ur duin*, euria antzo goitik bera ixuritzen dena. *Utu>Su iduzkia* gora doa ostera Ur goienei dion apeguaz eta bardin Anboto kobara, Amandre Mari, *ur bizi*en *utxa>urruxa* dena, ikuskatzera. (Ikus or. 69 irudian)

Euskal mitoak ez du Ama+Aita bikotea eskutik uzten, atzerrietako ATA aginteak AMA baztertu eta ahienatzeko agindua ematen dionarren. Ama baztertu geure herrian, Babiloniako Exarra nausian jainko bizardunak bakarrik jesarri direla-ta? Kia.

Inkoa MAITASUNA da (1 Jon 4:8) eta Kosmo naiz Baradisu mailan ama+aita bikoteak bakarrik erakusten du maitasunaren osotasuna, giza berriaren sortzaile den heinean. Biren arteko tiria barik, Bat-ekoen Teologia magian jausten da²¹. Inkoaren antzera sortuok biren arteko tiria dauka (Has.1,2) eta familia ugaltzeko doaia duela. Inko eredu, giza eredu dator, beraz hemen ere esan daiteke “Inkoak alkartua ez bei gizakiak banandu”. (Mak 10,9)

Ptah<Batekoen magiak edo patekoen aginte patetikoak guda-te galgarri eta odoltsuak sortzen baino ez dakite. Horrelako mendekuz jasarriten dute Ama Eskola eta maiteen Familia ugalkorra.

20 Barrankako errituak hala beresten ditu ospakizuneko abestian: “Ur goiena, ur barrena” mitoen garaiko usteei memoria luzatzen diela.

21 Ama+Aita bien arteko maitasunak familia sortzen du eta Maitasun eredu den Inko Espirituak berak osaten du gizakiongan Irutasun osoa. Hala Irutasunak ez du beste azalpenik behar eta bestelako azalpenak alperrikoak dira, “credo, quia absurdum” ez bai-da gizabideko eskola. okerreko trola baiño.



uTu>Su dator eta *Sugoi* “goiko sua”, eguzkiarena, dino, *Ama+Aita* ereduko maitasuna agertzen duena. Ikusi ere hala ikusten dugu eguzkia egunero. Ama adierazten duen ur goiienen uindegia ikuskatzen. *Sugoi* argizko seinu askotan agertzen da: ostarku bezala, zazpi margo ederrez, inizitu, iñestu, tximist, maiz ostots durundiaz. Gure asabek izadiaz zuten jakinduria jakin ezik, ezin dezakegu aztertu hitz bakoitzaren esanaia. Euskal mitoaren Enziklopedia Euskal Hiztegian dago oraindino. Euskal Unibertsidadeak euskal sustarretik aztertu beharko du egunen baten *Mikelats* ere Amaren Etxera bertan gozo egokitu daiten.

3.7. Atorrabi eta Mikelats, Mariren semeak

Anboto Mariren seme bion zoria aipatzean, gogoan ditugu mitoen garaiko Or eta Set, Ator Maite Inkoaren semeak (Ikus I atala), bata seme *aitorra* eta bestea sahiestua, Egiptoko jakinduriak azaltzen digunez: Or, amaren ohore eta *Set*, *set egile satanizatua*.

Gogoan ditugu bai eta ere Sumer-Akad elkargoaren eskolan Aruru Inko Amaren seme Gilgames eta Enkidu, azken hau lenengoaren larregikeriak emendatzeko asmoz, Anuk zerutik agindua. Ez ziren onean onerako konpondu, txarrean gaiztorako baino. Hala ere, Enkidu gaiztaginen damuaz hil zan, ez ostera Gilgames. (Ikus II atala)

Giza askatasunaren mitook aldi eta kultura beretsukoak dira, As-te aldean idatziak izan ziran eta arkeologoen lan bikainari esker, jakin al izan ditugu. Atorrabi eta Mikelatsen kontakizunak, ostera, euskaldun herriak landu ditu. Horrela ulergarriagoa dugu koptoa eta sumeriera Ama Eskoladun hizkuntzak elkarrenak direlako²².


Aska bidea beti da aukera ederra, naiz arriskutsua den. Zertara deslaitzen gaitu, zer galdu edo irabazi dakarkio, belarkiak erretzen edo zurrutada andietan markak egin apostua egiten duen gazteari?

Jainko seme alabak izan-arren, edo garelako, dohain horren gordailu ditugun *Ka/Ba* arketipoak aztertu behar ditugu, hotz, geure gihar edo gorpuzkera eta geure *baita* aztertuz, *Bestearen*²³ eskakizunekin adostu, sagaratuen itunbenean. *Beste* hori ezagutzeko, barriz, lainoetan galdu baino, erosoago dugu mitoen arlorajoz, Kosmoko elementu bizigarrietan erantzuna aurkitzea.

Argiago ditugu, *Ka>gaiaz* eta *Ba>baitaz* aparte, zeintzu diren Atorrabi zimel eta Mikelats mardoaren (Ikus or, 57) arketipo goitarrak ohartzera, Mari eta Sugoi gurasoenak, alegia: *Mari>marra* "itxasoa, ura" eta *Utu>Su* goi "iduzki, bero, argia". Eta nortzu diren playa horretan jolasten duten eroeak: Atorrabi eta Mikelats uretan, eguzkitan jolasten. Horra, bada, No, To, eRa²⁴ Gramatikazko pertsonen irukoitza. Nork sartu du artean *Akertipoa*?

No, To arteko maitasunak bizia eman dio *eRa>eroia* eren pertsonari. Zer egin dezake *eroe* aurrak gurasoengandik aparte? Ikustekoa da zelako arduraz jarraitzen dien *No* eta *To* gurasoek *eRa*-ri orbidean gora eta bera. (Ikus or. 75-75) Bada, *mitoa>mintzo*, ardura berberaz Mari eta Sugoi, arketipo berekoek, Atorrabi eta Mikelats seme eroei.

Amaren Eskola eta gurasoen arketipoak aldean dituztenarren, jendea libre da eta *AKERTIPOA*²⁵ sartu daitekie iruzkin lagun ezustez lagunartean (Ikus or. 57) zera esaten "amaren gonapetik urteteko sasoiadozue mutilok, titia baino gozoagorik emongo deusuet edaten. Horixe, magia zer den ikusiko dozue. (Ikus or. 20)




Leoi bikotx eRa tenploaren zaindariari AKER deritse. Gurasoa zein den jakinez gero, haren TIPOA hura

²³ *Bestearen* arketipoak aipatzean, maiuskulaz idazten du Jung sikiatrak. Geure ohargabe argituak emango digu nortasunaren barri eta Bestearen arketipoen argigarri. Zeintsu dira nire Ama, Aita goi arketipoak?

²⁴ Horrek dira Ni, Zu, eRa geure ohargabeaz aztatzen ditugun arketipo kutunak, Gramatika dinon lez. Gramatika Sikologiaren lagun mina da. Bakoi-tzak. dagokion txandan hitz eginez eta onenean adostasunera eltzen dira.

²⁵ *Aker* izenak fama du, oraingo *hackerrak* sortu baino lehenagotik, baina bitsuok ere *akertipo* galantak dira. Berari besteen arketipoez jabetzea gustatzen zaio, berak ezin duena besteei kendu edo besteen soinekoak jantzi...



Atorrabi eta Mikelats, bi anaiak, deabruaren koban ez bide zuten orduan eskola oberik [deabruak jakintsu fama bai-zuan, zaharra zelakoz, beste barik] *Akertipoak* arimatan kobratzen zuan: anai bieta-ko batek bere morrontzangelditu beharko zuan sekulako. Mikelatseri tokatu ei zitziaion, tokatu, baina Atorrabik bere burua jarri zuan anaiaren orde, berak jakingo zuan nola ziria sartu sasi maisuari. Bada Ama Eskola deitzen den ikasbiderik.

3.8. AKERTIPOA eta gizadia

Ez dakigu Anbotoko Mariren semeak Atorrabi eta Mikelats bateatu zirenetz, [hori buruzko ipuinak ez datoz bat] baina edozelan ere herriko abateen arazoa da. Dakiguna, *Akertipo* horrek, Ebangelioak alde batera utzi eta bere Gramatika²⁶ erakutzi gura izan ziela Mariren seme Atorrabi eta Mikelatsi (or, 57) ikusi dugunez. Geuri lez eta Nazareteko Igarleari ere beste horren beste gertatu bai-zitzaion. Zirikatu egin zuela mortuko bakardadean, hila beteko baraualdi ostean: 1. janari gustagarriaz, 2. botere orokorraz, 3. magia totalaz. Magiaz? Bai, Tenploaren gailurrera jaso zuan eta "bota ezak burua" inotson-eta. Bata, gizakiarena da, bia, agintariarena, irua, abategoarena eta irurei uko egin zien Maisuak²⁷. Lenengo zirikari, batzuk asean bizi eta besteak gose direlako,

²⁶ Gramatika hiru arketipoen arteko elkarrizketa da. Nortasunok hiru bakarka eta taldeka aurkezten dira. *No, To* bakarka datoz, haien ondare den *eRa* eroiak, binaka eta taldeka datoz elkarrizketara, eta *GU* nortasuna aurkeztean "Legionea deritsogu" (Mk, 5.9) pustutzen dira *GU>EGO* mailan.

²⁷ Hagaitik Deabruzko trukuak utzi eta Ebangeliora itzultzeko deia entzuten da gaurko igarleen predikan ere.

NORTZU GAREN

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
no/ni/en	to/tu>zu	era/ar	él/ille	bat/banek	gu/ego	txe/je
my, moi	yo/yi>hi	eurak	le/la	beste	kau, eketa	txeia
nor/inor	ide/ich	ura/era	alguno	batek	kide/quién	zein/zer
eni/mihi	txo/you	ari/ark	lui/ler	vobis	cui/cuyo	sibi/si
nos/noster	ode/zoin	ori/orrek	allelon	vos/vester	gure,ekeien	sfeis/sfon
nemo/nick	deus/tots	urlia	alter	hic/hoc	ekeinos	se=ses
neu/neure	su/zure	euren	alliquis	berendia	kori/qué	ése, éste
mengano	zutano	urlain	ulain	fulano	quaedam	sandia
nadie	uts/todo	rien/res	alako	pan/bakotx	gauza/cosa	ezer/ze
norbait	autos/tal	eren	lo/algo	ber/bera	qui/aquel	zerbait

“Jakinduriak bere etxea eraiki zuan, zazpi zutabez ornitu zuan” (Esa, 9, 1)

bigarren zirikari, batzuk, besteak ankapetuz, denaren jabe egiten direlako, eta hirugarren zirikari, batzuk amakatu egiten dutelako, benetako espiritua magia trukuaz besteak ostopazoz.

Jesusen iraultza ezin onartua izan zitzaien dirua kudeatzen edo hamarrenez hartzen zutenek: Tenploko abade eta Pretorioko gudariak, hotz, Jerusalemenez intzentsua erabilan kleroa alde batek eta Enperioko mutil armatuek bestetik. Botere biak, elkar hartuta, hain zuzen, Jesus kurutzatzea erabagi zuten²⁸. Abadeek Jesusen mirariak salatzen zituzten: Belzebud, deabru nausiaren erabagiz jaurtitzen ditu deabruak salapaneaz (Mt 12:27) eta errege izan nai zuelako gezurraz Pilato bera larrituz. Errubakoak salatzen ditu ondoren, errudunak nor diren ta kurutzatuak nabarmen.

Anbotoko Mariren aintza itzaltzeko salapenak egon ziran: “sorginkeriaz salatuko dogu “inoen abateek, dohan bai, baina magia egiten dituelako mesedeak eta bere jarraileak barriz, buru ust, *buru-utsak*> *bruxas* direlako, deabruak garaua jan deuselako”.

Durangoko kuntiak ere bere susmoak ditu, abategietan bildu diren abadeen burrundaz eta Etxebarriako²⁸ monastegia eraikitzea erabagitzean, bere asmoen aurka legokezanak deabruta-



²⁸ “Urteak 1013 zirela, Durangoko Kunti Munio Santxiz eta Legunzia andreak, [Etxe]Barriako Monastegia sortu zuten. [Testamentua egin ondoren, >



Jesusen inguru dabilen txoria *pikaraza*^(a) deitu *mika* bera da. Baltza da eta egoetan *peka* zuriak daukaz. Nortzukaitik di-no Jesusek “hilobi zuri-tuok”? *Pekatu* zuriak, diru zuriuak. *Latza* benetan *mika* txoriaren asalda karraxia. Izenean daro: *pekatsu*<*pekatu*. Oraingoan Jesus bera tentatzen ari da, baina Maisua Amaren Eskolan ikasia, korapiloa askatzeko, Deabrua astintzeko, Espirituak sagaratu Igarlea bai-da.

ra bidaltzen ditu, ezeren begiramen barik, “errege, gotzain, abade, eleizgizon”, ertzean aitatzen eta zematzen dituelarik. Ez da arritzeko halako giroan Mari Anbotori ere, semeetan bata, Mikelats, parte galdukotzat eta *txori gaiztoen*>*zorigaiztoko* emotea.

Anbotoko Mariren etxea ez dago Abadiñoko beste santutegi entzutetsuetatik urrun: Santroka Abadiñon, San Anton Urkiolan²⁹, San Pedro Apatamonasterion, triangela antzo aurre egiten diote betik eta goitik, herria bera nortasun oinarria galdu ainean, Muntzarazko alaba Nafarroako ezkontide zelarik eta haraz gero, edozein lapur bezala, Kastillako erregea mugarriak mugitzen hasia.

>aiñenak egozten dizkie hango hitzik aldatzen ausar daitezenei] eta norbaitek nausikeriaz hemen esandakorik markatzen badau, dela errege, edo gotzain edo eta abade, naiz elizgizon, aide nagusi edo edozein gizon, hala izan daite-la eskomikatua eta deabrua izan bedi bere serbitzari eta Judas saltzailea infernuko partekide.” [latinetik aldatua]

²⁹ Baserriko gendea gaurdaino mugitzen da San Blasetan neguko feriara Abadiñon eta San Antoniñoetan udakora Urkiolan, batean estulen osatzaile, saman lotzen den kordioaz eta bestean senargaien atoratzaile, harri magikoa lagun dituelarik, baserriko ganadua ikusgarria erakutzi. “San Antoniok gordeta” aitortzen dena, hortik bai-dator gaztelaniaz ere, *gorde*>*gordo* egotea.

3.9. Abatak Anbotoko Damaren aurka

Apata eta Abadiñoko abadeen ustez, Eva Baradisuan engainatu zuen Subea ikusten zuten Anbotoko Mariaren bisitari Sugoi-ren nortasunean. Herriak berezko harremantzat ematen zituela? Eurak oster, izadiko jakinduria barik, atzerriko errege eta gotzainen predikari jarraitzen zioten. Hagaitk Mari-ri *Andre* tituloa ukatu eta Anbotoko Amandearri *Dama*²⁹ deitzea erabagi zuten.

Herriak ba zekian zerez bizi zen Mari. Ez zion herriari zergarik ezarten. “*Urrik* bizi dok Damea³⁰”, *Urrika* deitu eutsoen. “Sorginen³⁰ buru den Belzebú indarrez egiten jozak mesedeak” (Mt. 12-27), fariseoen salapena ta bera asmatu zuten.

Frantziako karolingiar erregeek, Erromako Aita Santuarekin bat, Ainamendiko alderdi bietan monastegiak eraiki zituzten herria kristautzearen. Frogatzat Leire-ko eraikintzaren kriptak IX-koa utzi zituzten. Haraz gero Nafarroako monastegietan euskara onartua izan denik ez da entzun eta bai oster, euren elburuko erromanikoa finkatu. Monastegi buruari *Abad*<*Abate* deritso, eta sustraitik dakarre (ikus o. 19) herriez batasuna, *Bat bakar* egin irrika.

Karolingiar abategiak San Benito-ren erregekak jarraitzen zituzten, erromanistek, barriz, *lingua navarrorum*, “ezin eskriba zeitelako” izango zan³¹.



Amatasuna: Isis (Egipton), Maria, kristinoen artea. *Andre Mariaganako* jaiera herriak bihotzez onartzen du eta bederen *Antigua/Antxina*, edo *Moreneta* delako

29 Halako irainak eskola berezia du, *Adam* itzuliak >*Dama* asmatzeko, hotz, herrietik ez datorren bestelako

jakinduria. Non ikasi zezaketen *Ma.aT* itzuliak ere magia bera zuena?

30 *Sorgin* izena ez dator *sorte* latinetik, ezpaere, *sorte*<*sortze* formatik eta ama da *sortzailea* eta, beraz, *sorte* banatzailea. Baina Ama Eskolako ez den abadeak herriko umeak San Jaun Sutean “Gaur dala Doniene/ Sapok eta sorginak erre/ artoak eta gariak kaixan gorde” kantuz eskolatzen zituzten umeak.

31 Bizkaiko Aldundiak zerbait berri egin nai izan zuan Ziortzan, talde euskalduna eta Abade berri euskalduna lortuz. Olivako Abateak, Abade berriari deitu eta Olivako Abade buru jarri zuan, Ziortzakoa Olivakoaren menpean bai-dago.



Urkiolan harri magikoaren inguru magia egien, Abategiko dirua gitxi ez bazan edo Oiñaz eta Gebara ahaideen arteko burrukan jardun, Abategiko “San Antonio³¹ gordeta” edo harri biribilak duen arteziak lor dezake...

Urkiolako *abate*>*abadeek* San Anton txarriduna (ikus o., 64) hartu zuten zaindaritzat. Bere izenean eta San Antonio miraritsu gaztearen bermaz ospatzen da Urkiolan udako feria, bei ederrena ikusi eta *San Antonio³¹ gordeta* esaten da, neguko katarroak *San Blas*-en kordioak fedea deutsona osatzen duena lez. Urkiolako mirariak argizari irudietan erromesen ikusgarri ipintzen ziran bertan, elizako museuan³¹.

Eleiz katekesiak alde batetik eta Gaztelako errege eta gotzainen aleginak bestetik Bizkaitik, adibidez, Inoteak eta eurekin batera herriak Izadiagazko jainko harreman aztarrenak zeharo garbitu zituzten [eskerrak Nafarroako mendian gorde direna], ordetan *Aratuste* eleiztarra edo *Santa Águeda* bezalako kantaketak bultzatuaz gaurdaino.

Katekesi gidatuari dagokionez, aspaldi baztertua, baina egunotaraino gogoan izan dena dager: “*Gure Jauna bera dok BAT* [itanoaren garaikide]”, *Ptah*>*abate* ereileen [azi txarraren seinale] guztiekin³².

Andre Mariaganako jaiera herriak, maiz Ama Inkoaren udaberria

31 Argizarizko irudiak: buru, beso, oin [osatuak] mezededunen eskeintzok ez ziren Urkiolakoak bakarrik izan [dagoneko baztertuak]. Halako mirari frogak Galizian, San Breixo aldean ere ikusiak ditut.

32 Honela hasten da kantagaia: “Esak bat, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu. Esak bi. Erromako altara bi, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu. Esak hiru, Trinidadia hiru, Erromako aldara bi, gure Jauna bera dok Bat, berak salbauko gozak gu...” Horrela jarraitzen du leloak “Hamabi, hamabi apostoluak...” osatzeraino eta kantagaia “gure Jauna bera dok Bat...” amaitzean, “esak hamairu” galdetzean, “*Ez dok hamairu!*” planto egiten zan.

lez txalotua izan zan Iberia, Baradisu zaharreko eztaietan bezala eta ez jatortasun labelik gabe, “*Antxinakoa* [irudia], *la Antigua* [baztertua, putzura jaurtia, izkutatua], edo eta *Idoia*, *Idoibalzaba*, *la Aparecida* edo [azalaren koloretik ezaguna] *la Moreneta*.

Beste hainbeste gertatu zan Amerikako Kolonietan: Mexikon Tonantzín Inko Amarekin, Fray Zumarraga Artxepiskopuak Don Diego indioaren mirarizko frogak ontzat hartzen ziztuelarik ere, gudalburu kolonialisten aleginez, Guadalupeko Ama Birginaren irudia bultzatzeraino, edo Patxamama-rekiko arazoa Bolibian.

3.10. Andra Mariren martiriak

Abateen katekesia ermitagintza eta santu barrien jaierez nabaritu zan XI eta XII gizaldietan. XIII-garrenean Espainiako erregeak Inkisizinoa armatu zuan katekesiaren bultzagarri *erexeen* aurka. Ez zekiten *eretsi*>*heresi* datorrenik, baina sorgina=bruja berdintzen zuten eta erio zigortu. Kristau abateek ez zekizkiten *Ma.at-en aginduak* (ikus o.16), eleizgizon lez, ez egikeen inor hil, baina erexetzat salatu bai³³ eta Inkisinoaren eskuetan itzi. Inkisizinoak suari emoten zion epai ordelegoa³⁴: Abadeek, fede konberzinora deiez, misinoa aldarrikatzen zuten, eta Inkisizino katolikuak plaza erdian sorgin erreketaz ospatzen zuan *Fede Auto*=ekintza.

Durangori ere bere ordua eldu zitzaion XV asierarako³⁵. Haxe zan, hain zuzen, Anbotoko *Dameari* berea emoteko ordua, baina berari

33 Berandu, baino Franzisko Aita Santuak inor ez hiltzeko eta hiltzen ez uzteko agindua bermatu du 2019.an.

34 Arazo nastuetan sumeriarrek jainko ibaia hartzen zuten juso ordezkari, Burano=Eufrates-ko urak erabagi zezala. Uretatik norbait salba daiteke, sutatik ez.

35 Muntxarasko seme, Zumarraga fraileak(1468-1584), Mexikon Artxepiskopu zelarik, Durangoko gende arruntaz zera dino arrebari egin gutunean: “*juizio guichicokoa da gueyaena*, egiten dizkion eskon besusakaitik miramenik sor ez zezan, eta bide batez berak Durangon sortu konbentuko fraileez *frayde becatarioc* dino.



Andra Mari Uribarrikoa
Ama-umeak: amatasuna ar-
razten duen Andre Mari in-
baino bikainagorik ez dago-



Anboto Mari ere bere martiriak daukaz Ama Inkoaren alabak, Emakumea ikustean, giza saiestuak bere amagazko zorren mina sentitzen du, amaren irudia aienatuez gero, zorrak desagertzen direla uste du hagaiik, emakumea nondik oratuko begira dago [fariseuak Jesus hiltzeko bezala] Anbotoko Mari Amandrea aztuez gero, euskal baserria Gaztelara errazago egingo zela uste zuten/ dute inkisidore politikuek. Gure soina atxilotu, torturatu eta erail egin dute hainbatetan, baina arima dogun Ama Eskola ezin dute.

inondik oratu ezinean, bere alaben aragian emongo zien ordea eta halatan, suaren erabakiaz kizkaldu al izango zuten *Duranki* “zeru-lurren arteko *dorua*” izate zoria eta *Jainkoa Bat eta bera naikoa* herriaren bihotzeraino sartzea [hori lortu zuan beinipein Nippur-en, Enlil jainko armatuak, Gilgames eroaren bitartez]

Andre Maria zerura jasoaren aintza³⁶ gero, Aintzane askok ospatzen dute, Andre Mari guztiak titulu horrekin ohoratuak izan zirenean. Baserritarrek obeto ulertu al izan dute amaren gonari lotuta, eta Anbotoko Amandre Mariri emon botoen laguntzaz. *Duranki*>*Durango* kaleak jasan zuan, suminezko martiriaz, abadeen erratuz eta erregearen arrokeriagaitik. Martirion oroitzat ohoretzat hartuz, arketipo ilunak eta fedea argitzen laguntzen digute.

Andre Mariren irudiak koroatzeak ere aintza bera bermatzen etorri zan pasa den gizaldian. (ikus Andra Mari Uribarrikoa o.62)

36 Arketipoen iragarle eta predikari izan zen Jung sikiatra ospetsua ere gogotik poztu zan eleizak *Andre María zeruetara jaso*a dogma iragarri zuenean, arketipoen erretaula halako orniduraz osatua ikusten zuelako.

HIZKUNTZA ARKETIPOEN SINBOLO ORDEZKO DIREN KONTSONANTEAK

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
aMa	aiTa	eRoia	Lekuko	Bat	Gizaki	eTXa

3.11. Egiptoko padarrak eta Maria

Halan euskeratuak izan ziran “los padres de Egipto” santuen bizitzak. Eurretan ba ziran emakumeren batzuk, hala “Egiptoko Maria penitentzigilea” deitua, III, IV gizaldikoa. Santuen bizitzetan Jesusen jarraileen ereduak bilatzen ziran. Maria hau, Magdalako beste Maria, *pekadunak zirelako-edo*, >*pekatari* zirela aitortzen da eta gizonezkoetan bat ere ez da agertzen *pekadun*.

Hagaitik Anboto peko abatek ez zuten jaso aldarera Maria penitentzigilea, ez Madalenarik ere. Izan ere ez ziren euren ereduak. Euren ereduak Egiptoko padarrak ziran, deigun arketipo arazoa zela: Ama dagoen tokian Aita ipini eta Amari jesarlekua kendu, Menfisko *Ptah*-ren *abaten* trikimailuz. Ikustekoa da izan ere, *Padar/pADRE* tituloa bera ere arketipoen itzuliketaz ostua den, *aNDRE* zenari, lehen arketipoa trukatu, aulkia kentzearen. Ama *ANDRE* izenak lehen iru arketipoen txortat bilduaz bermatzen da³⁵. *Ptah-en abateak* magikoak ziran hizkuntzan ere, “ino in/ esan izan” ziren euren hizkune parekideak eta dena ama+aita parean banantzekotan. Eta umeak, amak uma+aita parean banantzekotan. Eta umeak, amak uma+aita parean banantzekotan. Eta umeak, amak uma+aita parean banantzekotan. Ez, euren magiak amakatunekoak baino.

Fariseuek behin zirrikaz galdetu zioten Jesusi: “Zilegi zaio gizonari emaztea baztertu eta beste bategaz ezkontzea, Moisek dinon lez, aske agiria behin emanez gero?” (Mt, 19-3) Jesusen erantzun zien: “Zeuon bihotz gogorkeriagaitik egin zuan hori Moisek. Baina asieran ez zan horrela izan, Inkoak emakume eta gizakume egin zituelako (Has 1,27) eta harrezkero biak haragi bat izango dira. Beraz, Jainkoak batua, gizakiak ez beza banandu”. Hala ere, *divide et vincas* dino faszioaren asmoak.

35 Grekoek ere hitzaren magia jarraitzen zuten hiztegi>



San Anton padarra bere txarritxu eta guzi abateek altarara tua.



Zosimo Deunak Gure Jauna dakartso Mariari. Satuen bizitzak Kristoren ereduak bilatzen zituan eta Egiptoko padarren artean Maria egitiar penitentzi egilea agertzen da. Padarrez ez da esaten bekarari-edo zirenik, Mariaz esaten den lez, eta bardin Magdalako Mariaz. Epaia nork ematen duen, halako jusa izaten da, inoiz ere ez Ma.aT-en manatuen arabera. Jesusen abaten kasta “farisear itxurazalea” salatzen zuen antzekoa da izan ere, eta hareago mortutik urira, Ama Eskolako baserritarrek, kristautu beharrean, txarto eskolatzen inhardun zirenak, gero Inkisizinoari salatu eta sutan erreteko.

Anbotoko Mari seme-alaben arduraz mendirik mendi deslari dabilke, inork es dezake moztu haren egada. Baina haren meneko seme-alabek gaur ere jaso dezakete haren arerioen ordea³⁶.

Patetikoak Teologia ere berea larritu dute, Biblia ere atzamarratu ipiniz: Eba Adanen sahietzeko ezurretik sortu zelakoa (Has, 2,21-25), adibidez, edo herriaren hizkuntza Jainkoak Babel-en nastatu zuelakoa (Has, 11), hotz eurek esan ta eginaren errudun Jainkoa eginik, Irutasun misteriotik, Ama arketipoa baztertu, Dogmatika puztu.

Patriarkalismoa bera da plaza erdira ekarri behar dena bere Dogmatikarekin batera, Eskubide, Linguistika, Antropologia, Sikologia, Gramatika eta diren Zientzien *beko su>foko* argitasunaren izenean.

>barrian, *andros/andre* “gizona” deklinatzean eta *gune/gunaika* “gune-dun/gonadun” eginez hitzaren magiaz.

36 XVII gizaldian beste Fede Auto bat egiteko asmoa sortu zan, baina Logroñoeko epilariak ez zuan sorgin arrastorik aurkitu. Frankok XX-an Anboto aidez gaudituz, Durangoko Andre Mariren elizagino, herria goizeko mezatan zegoela, bonbakatu zuan Durango, 336 durangar hil zituelarik.

3.12. Mikelats Amaren Etxean

Ba du horregaitino Anbotoko Marik adorerik bere seme biak Atorrabi eta Mikelats afaritara gonbidatzeko. Galdetu ere ez, bien alkar-
tzea posible ete zen, zeruarentzat ezinik ez dago-ta. (Lk 1, 37)


Mitoak herriaren eskarmenduagaz bat datozenean, orduan har-
tzen dute osotasuna eta azken baten, mito zena Historia gertatzen
da, idazleak tintaz zikindu aurretik. Idazleak “horrek mitoak dira,
hau da Historia” esaten jarraitu gura luke, baina ez da sinisgarri. Amo-
naren eta aitonaren memoria sinisgarriagoak dira, Amaren Eskola,
hizkuntza, euskera bide zigurragoa da, alboko zorumurruak baino.

“Aita batek bi seme eukazan”. (Mt. 21:28-32) dino liburuak. Amak
samurrago sentiten zuan, guk dakigunez: Amaz galdetu zuan etxe-
tik alde egin zuenak “nola dago ama? --Hil berri da”- erantzun zion
arrebak. “Ba noa” esan zuan bere kautan igeslariak, eta amaren etxe-
ra itzuli zan. Etorri eta konturatu egin zan amaren etxean, mundu
guztiaren azikina dagoela: legea, eskola, kultura, poesia, mistika eta
bertatik asi zan ikasitakoen aria berriro albaintzen eta bizitza urdu-
tzen. “Halan be, gurean obeto *Amaren sua defendituko dot*”³⁷ ohar
egin zion auzoko agureak aholku bila etorkon gazteari. Etxeko sua
amaren ardura izaten da, *amak* > *amatigatzen* bai-du sukaldeko sua,
garrak hartzen duenean, etxeari berari kalterik egin ez diezaion,
batianugarria kenduz, bestean tximiniari tiroa ertzatuz, amak ondo
astatua bai-dauka etxeko suaren erritua.

Anbotok altura doia dauka eta Marik lege zuzena (Ikus or. 48)
Lege hori urratzen dutenek errua Mariri egotsi eta Ama sorgintza
itxurgatzen dutenek emakumea erailten dute eta bizitza eragozten
munduan: Amari kalte egitearren, guda eta erailetak sortzen dituz-
te gaurdaino eta etorkin eta umezurtzei ostatua ukatzen.

Mitoak aipatu ditugu, baina mitoa ez da gure aisiak pasagarri egi-
teko ipuina, gizarteko eskarmendu minenak azaltzeko artea baino Du-
rankin eta Durangon. Jatorrizko mitoak, jatorrizko hizkuntza bezala,
Ama Eskolakoak dira, amaren hitz lauz familian ama arduraz konta-

37 Geure garaikideen eskarmendu bi dakarguz arira, bata Joxe Angel
Artze *Ez dok Hamairu*-ko artista. eta bestea G. Mendibil kantariarena, Bitor Ka-
panagari “*Aitaren etxea defendatuko dut*” G. Arestirena aipatu eutsonekoa.



Ez da izango!
Bai, posible zan eta legezko.
Amarena jakitean,
Mikelats bat baino gehiago
damutu egin ziran...
Ezulertzaren armak utzi eta
amaren etxera itzuli zirela.
Bidea eaginean ikusten dira
norbere erratuak ere.
Dena den Mikelatsek ere
Ama izango du lekuko
eguno izan duen
jusuorik zuzenenean.
Anartean utziko al gaitue
amaren etxeko bakean
aske bizitzen!
Politika borondate ezagaitik
Mikelats denak
ez dira zentzuzko eta herri hau
kurutzatu nai dute...

turikoak. Atorrabik amari entzun eta gorde egiten dituela memo->
rian eta Mikelats, amagadik igesi eta aztu egiten dituela amaren
oharrak. Zer dira, izan ere, Anbotoko Mari+Sugoiaren marrak edo
manamenduak, etxekoen bakerako ama+aitak egin oharrak
baino? Eurak azaltzen dute gainera ondoen, euskaldungoak
gizartean duen izate ganora eta sena.

Hatarako emon zaizkigu demokraziaren erregelak eta arnasa
ere, gudate lazgarrien osteko zentzunaldirako. Ohar demokrazia-
ren aurkako gendea edo demokrazia itxuran edozelako nausike-
ria bilaten dutenen jokera eta seme onaren eta seme gaiztoaren
irudia gaurkotua izango dituzue, Euskal Herrian eta Europan³⁸.

Ama Eskola seme-alaben eskuetan dagoke. Emakumea barri-
ren barri gizarte arazo eta heziketan sartuala ikusten da zenbate-
raino gozatu den eta amainatuko den bizitza egunetik egunera.

38 Suertetsua da Europa, patetikoen Guda Orokor bi galgarrien ostean
Angela Merkel bezalako andrearen politika onartzean. Baina seme saiestuak ez
dagoz lotan, Ama Eskola irauldu gurazko botere bila dabilta ibili.

uina, mama
[ur goiena
ur barrena/
bakearekin
osasuna]
Ama sinbolar
ur bizietako
sorkariak gara
aMa+aiTa
gure arketipoak
gu, eRoe antzeko
ama+aitak gidatu
ur andietan,
galarreenetan,
uren gainetiko
urakanetan



MITOA EUSKERAZ MINTZO DA

IV. AMAREN ESKOLAN

Amak mundura ekarri, lurraren gainean ondo jantzita zutunik ipini gaitu, jokabide arauak ezarri eta “egik honela” aholkuz lane-ra bidaldu. Aske egin gaitu eta egin geure eta besteen askatasuna zer egin erakusten digu bere eskolan, Amaren Eskolan.

Sakonki geu nortzu garen jakiteko, Amaren Etxera itzuli behar dogu ostera ere. Ama+aita arketipoen mende, han nortasun asko jaio dira eta tokia egin zaie, denek izan dezaten bizibideko egin-kizun bat. Asieran Amaren Eskola baserritarra zan eta gauzak obeto ulertzen ziran, bada zelaia kalea baino zabalagoa zan eta arloa gizalan hainbatekoa, aita eta ama aurreren inharduela lanean.

Kalerakoan, gizakiak lurrarekin eta lurra joritzen duten beste elementuekin urkotasuna galtzean, amaren irudia bera ere urrindu egin zan. Orduan zura burdindu egin zan eta burdina lantzeko zura erre: elementuen arketipoak aldatu ziran, baloreekin batera.

Sinbolo galduak edo desagertuak bilatu behar ditugu ekologiaren izenean. Andereñoak bezala, baratze ariketa egiteko jorraia hartu eta baratzerara daroaz umeak: (Ikus or. 69) lurra ideki eta



Ikastolak ere barazkia nola lurrari lotu sustartzen den, ureztatzen eta eguzkitan airatzen den erakusten du. Ez dago km^o zertan den jakiteko era oberik, ez eta elementu berriztagarriak ezagutu eta arketipoak aztertzen asteko.

bertan sartzen du aldaka, sustardun landara. Ikusi zelan suz-traiak lurrari atxikiak gelditzen diren, gainera ura botaten zaion...Baserriak emoneko lehen lezinoak, oinarria daukee.

Inoteak, adibidez, baserriak mitoen garaitik gorde dituen erri-toen ospakizunak dira. Kaletarrak kuriosidadez ikusten ditu, baina ez ditu ulertzen, ez duelako bizi baserri kultura. Une bateraz gero, baserriak berak ere ostaz ulertzen bai-ditu, baina lehenago-ko herriak zeruekiko zuen armoniaren ospakizunak ziran, hotz, “ur goienen eta ur barrenen” jarraipen irauna, “iduzki jotearen gozagarria”, “aire alaigarrien poza” eta jakina, “lurreko frutu jas-tagarriekaitiko Goiari esker ona”. Emoi gustagarriak bai, kaleak ere gogotik ordaintzen ditu edozein feriatan, baina nekesariaren frutuok lurrak zelan emon dituen ez daki. Iñotetan bardin, kale-ak zoroen festatzat-edo har ditzake, baserriak, eleizako apaizen zeremonietatik ate, ohitura beneragarritzat eta ikasiak ausaz, asabek Goikoekiko itunbenak bermatu eta zorrak kitutzeko erri-to ospagarritzat.

Izadiko elementuak [arketipoak Gizakia bere baitan

AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	AS
uin	su	aire	lur	ba>bai	ka>gai	as>ats
aMa	aiTa	eRoia	Lekuko	Baita	Gorputs	eTXa

“Giza arketipoak Inko arketipoekin burutzen dira”. (Jung. DR, o.c. 936-941)

4.1. aN>uiN, aMa simbolo eta arketipo

Mama=ura, uin multsoan, urak, adibidez, ur-utxa den eme arketipoa ezagutzera garoaz, bai Kosmo andian eta bizi dugun kosmo txikian. Uretatik gertu bizi gara, uretan jolasten, bainatzen, garbitzen eta Ma.at-en aginduak “Ez ostopatu uraren bidea” ezentzun eginik, anteparak egin genitun ibaietan, arrainei bidea eragotziz eta “ura da, gu gara” lezinoak hartu behar izan ditugu.

Sumer herriaren kultura ur garbien ibai ondoan garatu zan. Izenez Burano² deitu zioten, ibaiko “ur barrenak” ortziko “ur goienak” arrigarriri izpilatzen zutelako, goiko anila bean eta beko urdiña goian, elkarrizketa bezalako ariketan. Anila dundutzen zenan, ainubia sortzen zan eta urak ixuriten ziran: lambarra, euria, zaparradak. Ibaiak abiada hartzen zuan, norbait bizia baitlitzan, “jainko ibaia” deitu eta laguntzat hartzeraino. Herriko auzian etabaida gogortzen zenean, “jainko ibaiak erabagi dezala” esaten zan eta jainko ibaiak egiten zuan juezaren *ordeko*³. *Ordeko*> egite horri *ordalia* deitzen zaio gaur ere.

Europar gizaki modernook, uren abiada uztiatu dugu errotak mugitzeko, uren korrantea uriko loiak garbitzeko eta industria zoroagoaz Ibaizabal osoa baltzitu, atzitu, pozoitu gendun, ureta>

² *Urano* satellite *urdinska* <uraren kolorekoa da. Gerkeraz *Ouranos* “zeru urdina” da. *Ur* eta *Uruk*-eko ibaia *Burano*⁽³⁾ “beko zeru” zeritson goiko zerua izpilatzen zuelakoan, Grekoak ez zekian horren barri, euskerak jakin eta ulertu al izan duenez. Zertan datoz indioeuroparrak ez daiena azaltzen eta *Ouranos* Varuna induisten jainko izentik-edo datorrena esanez? Indoeuroparri ez ete die balio ez Arkeologia lorpenak, ez Ama hizkuntzak?

³ Sumerreko legeak *ibai*-jainkoaren ordalia ordekatzen zuten magiarekin zerikusia zuten auzian, egia zeinena zen jakitekotan. (SEUX, M.J., *Leyes del Antiguo Oriente*, DB.n 15, o.c., or. 31) Cf. Erromarrek suzko ordalia egiten zuten eta Españako Inkisizinoak ere bardin, kristau-ustezko jainkoaren izenean.

ko bizia, arrainak, arrankariak ito genitun. Zer ikus genezaken halako uretan, ze arketipo? Ez eta arpegi maitagarrikerik ere, ugerra eta heriotza baino. Noizbaiten konturatu eta “pozoitzen duenak or>dain beza” legeaz erabagi gendun, kolektorak egin, garbiguneak ugaritu, urak gardendu. Orduan bai, arrainak igon zuten ostera ere itxasostik edo jatxi albo erreketatik Ibaizabalera.

Itxasoarekin bakezkoak egin ditugu, edatekoak, lixibakoak, igienekoak berezi, baina Uronako *Amarekin* ezaupidea ostaz oraindino, hotz, beraren arketipo den uin-urak guri bizia, eta eguneroko elikua, ase eta garbitasuna prestatzeko egin dituen bideak eta aleginak ezagutzeko *antxinako* gizakiaren adikortasuna eta jakinduria falta zaigu oraindino, izadi-an Egilearen arpegia ikusi al izateko.

Erdia baino gehiago soinkeraz ura garela, ez ditugu bakeak egin urarekin eta ama arketipo den elementu honekin. Ba gerela urguriak eta urduriak!

Ba dago Urdiainen Uronako *Andre Mari* deitura duen ermita bat, hain zuzen ere “ur goiena, ur barrena” errituala gorde izan duen herrian. Ohore oroipena, *mitoaren* sakoneraino bizi izan duen herriari, gaurko gizakiari eta gure fedeari argi bide bat utzi digutelako, “zirelako bai-gara”.

Bestela, gu *Ama* Eskolako herri baketsu giñan: ez dugu eguno beste herri bat *ankapetu*. *Amaren* agindua *ontzat emon* dogu, “amak esan dau” legea da guretzat, eta oraindino ikasten ari gara ea zer esan *nai* duen “asmoz eta jakitez txikiak *andia* bentzuten” eta zelan jardun behar dugun egunerokoan, jakinduria hori geuganutzen.



“ama, ure”
eskatzen du umeak


4.2. uTu>Su, aiTa simbolo eta arketipo

Zeru dunduak eta *Utu* iduzkiak ba darabile zerbait esku artean. Haren anila ilundu dela? *Utuk dundutzen*. Uinak agortzen direla ibaian? *Utuk, odeiak sortuz*, uren *odi* eginten du, *euditan*. Urak *otzitu* edo leitu direla: *Utuk tulduko* ditu. Mama dagoen tokian han da *Utu*. *Utu>aitaren* arketipoa da, izan ere, *oso dula-brea* denetan, ezelako nausikeriarik gabe, ama beraren *ideko* bailitzan eta eskonduen *dorua* daroe erastuntzat eta *trumoiak* eta *tximistak* ere ez dute etengo “zeru eta lurraren arteko lotura (ikus o. 53) *Utu>su* denez, *Sugoi* ere ba da Anbotoko Mari bisitatzen duenean lez (ikus o. 55) Hala dakus herriak eta hala azaltzen du.

Arrigarria da egunero *Utuk* ortzi *otaraino* egiten duen bidea, arratzalde bakoitzaren *>ostean* egunsentia *>sor* daiten. Bide horren jarraile izan dira geroko bizitzan amesik egin dutenak, *>Iduzkia>adizkide doia* izan dute, zerura igoteko ere. Ez eitela falta, beraz, obi buruan *sortea sorteatzeko* harrigizona. Izan ere, zenbat eta fedea aulagoa den, harriaren magia urbilago behar izaten delako.

Ama+aitaren arketipoa alaba-semeengana luzatzen da eta *tiria* berak lotzen gaitu gaurdaino, odei beltzen gaintetik. Gizakia Kosmoan nora ezik, galdutzen *Utugana jotzen* du ohargabeen duen hako *dorua* egin diezaion. (ikus o.72)

Utu otsiz, ostean, otzak kikildu gauzkala, beragana *joz, txistu, turutu soinuaz, ospe* andiz, *otoi* egiten dio herriak euren hizkuntzan. *Otoitzak adoretu*, bizitzaren *ostean zoria idoro* naiaz, hilarrian zizelatzen du bere *jorana*: gona anilezko amaren etxea, *Utu>doi* gerta dadin: *Aita eten* gabeko *joanean* lez, Ama *eserita* izanean begira dagoen atzedenera eltzeko *joranaz*. Azken baten gizaki beraren *zoria idurikatzen* du *Iduzkiak, Jote* iraunean, baina beti ezbardin, *zoriaren* igeskora adi->



Sorapuruko harrigizonak iduzki doruan sartuta, bidelagun bikaina aurkitu du



Utu>Su da *>Iduski* uren gainean eta azpian sutan dator, bizia berbiziten du, sendiaren lagun, bidastiaren *ide* da. Etxera dator, *Or >urrezko* semea amarenera bezala.

erazten. Mitoa bizi duenak, mitikoki hitz egiten du: *aita* ere berekin *idorotzen* du. Ez dago arketipook banantzerik.

Utu>su, sukaldeaz jabetu eta etxekotu zenetik, amaren etxea ere santutegi egin du, han *Utuk>ostatuz* onartua izan zelako⁴.

Utu>doi izanik, ezagun dugu bere *jusoa>juicio Osiris*-en harakotik (Ikus or. 23) edo Enlil jainko akadiarra *doluz>dolido* salatzean (Ikus, 36, 2.8.), halaber *teila* zaharretan⁵.

Utu, ud ixurika dagoen *tuxua* da, *Utu>dona>doha>don>dun>dueño* dator Ama Eskolako hizkuntzetan. *Utu>dod⁽ⁿ⁾* “maite” hebraieraz, eta *dokean>docto* ume *jokuan* ere *Utu>edu* “modelo” aurkitu zuelako bere sartun-urtenetan puntuan *joten* dakialako. Hagaitik da *>dotore* “hermoso” *>totil* “hermosa”, eta *tolare* lanetan, barriz, *taula, dúctil^(gaz)*, bera lurreko sartu-urtenetan bezala.

Lagun ona, *tio>txo, osaba* etxatiar da, *ide>idea>idem^(l)* *>izen* dator, baina Batekoek. ziriz banantzearren, Ama izenen aurretik *Teu* jarri zuten: *Anatu>Tanit, Ma.aT>Tia.mat, Meter>Demeter*, etab.

4 *Filemón eta Baucis*-en grekar mitemak ere gai bera azaltzen digu.
5 “[Tú, Shamahs, despides al bribón que se rodea de astucias. Haces subir del Hubur [Iburni ^(euski)] (al inocente) [<inozo>inoxil^(l)] que un juicio retenía. Lo que tu dices Shamash, en juicio justo [no tiene apelación], claras son tus órdenes. inmutables y constantes”. (JEAN LÉVÉQUE, *Himno sapiencial a Shamash en Sabidurias de Mesopotamia*, 58-62, DB nº 26,

4.3. eRa>iru, eRoi simbolo eta arketipo

Era deritso Gramatikan>eren arketipoari, eta bi aurrekoen ondore lez, agertzen da. *Irukotx*⁶ hau *Irutasun* lez onar dezaken Teologian. Gure bi anai *eroiak* elkarren *arteko* tirriak edo zeloak dagoz maiz: *Or* eta *Set*, *Gilgames* eta *Enkidu*, *Atorrabi* eta *Mikelats* lez. Amaren menean esaneko izan ala bere kabuzko nor bizi, ama bako sorkuntzaz burua atera amesaz, amaren espilura eta aitaren *arpegira* begitu barik, hotz, bere burubideen aizetako egadan jainko mailara igon puzmindu super-gizaki bezala, edo norbere baitako geinu⁷ nortasun baiginan.

Gizakiaren askatasuna dago jokoan. Gu geure baitako garenetz aztertu beharko, maite legeak ala norkeriak garaia joko. Ikarro bezelako eroien mitoak ere gauza bera erakusten digute. Dena den, No, To, eRa nortasunen *artean irugarrena* egitea dagokigu eta ba daukagu nork gidatu, manatuak emanak bai-dagoz.

[H]Iruren elkar hizketa eta jardunketa honetan Gramatika zehatza dugu, naiz Nietzsche ez konformatu: “Gramatika egiturek aldatu ezik, ez dago Jainko ideari kuku egiterik, bertan dago-ta” uste zuan, “[h]iruko hori ukatuz gero, agur Jainkoa” bailitzan. Izan ere Gramatikak *hiruzkinera* deitzen digu eta ibiltari deslaituaren oin pean [h]arri koskor ostopagarria gerta daiteke *arketipo* hoiien bilaketa, Jung-en gardiz.

Gizakia den *eroi* nortasunean *argien* daukaguna bere *arketipo*-en nastea da, aberetasun adn alde batetik eta, Sortzailearen Espiritua bestetik eta halaber, bere mugatasuna, gihar pisuak lotzen bai du bere baitaren egada eta alde-rantziz, bere baitak, *eRaren* sugeñoak lez, ohar egiten, *Errensugearen* amarruak *erraz* itzuri ditzan.



erRa eroia Ma-at Ama aurretik eta Tot aita ostetik gidari dituela, *arrano* burudun, gainean iduzkia eta sugeño abisaria dituela. Gonbaratu eskumako *irudiarekin*...

6 Erak h-gabeko *Irutasuna* egiten du *eritsi>eresi* naitara ebakiz.

7 Inu ezagutuz gero, *ge+inu*, edo *geniu*⁽⁹⁾ haren *gizatasuna* dakusgu.



Erritual bat da Pagasarrin, kaletar gendea mendirantz, ama+aita+aurra lehen lerroan eta Inko espiritua denen barnean: poza, mendiketa eta bakea. Horra baserriak kaleari emon deutson frutueta bat: Ama Eskola bizian.

Eroi eRra, arkan ikusiz, gurasoek *ardura* larregiz *orutzen* diotela uste dugu, baina *aurraren arriskuak* ere ez dira txikiak, *Errensubiaren*⁸ mitema ere geure egin dugunontzat, *erra* bideak ez direlako *erraz ertsitzen herriaren segurtasunerako*.

Erregu eta hainbat *errezu* egiten diogu geure *Eroiari errime aurrera eroan* gaizan eta *arketipoen Irutasun* txorta banandu ezin eta nabaria familia alkartuaren *eran* ikustera *eroan* gaitzan bere *arkan*⁹. *Arraunlari* izango ditugu geure *arbasoak* eta ikasi barri den gure *Or>aur* edo *arriba*, eta *arribatu* al izango dira goiko *ortura*, haraz gero geure >*bortu* egina. (Ikus, or. 55)

8 Ezaguna Goiñiko Zaldunaren eta *Errensubiaren* kondaira *Aralarren*.

9 *Arka*> deritso *Erraren* ontziari, gero *gizatzu*, *barka* egin dugunari.

AN UTU RA ILU BA KA ASA

4.4. iLu>Loi, hiLkor simbolo eta arketipo

Laugarren arketipoa Eroien aldizko bizi leku, edo lekukoan lurra dogu. Balio ete du *Ilu>loi>lur* honek, Inko sortzaileen lekuko>Logos⁽⁹⁾ izateko? Gure asaba sumertarrek ez zuten zihurtzat, euren irudipenean Baradisu amesak porrot egin zuenetik.

Bitza lurkoiak ba du bere *ola* eta *oldea*, baina gero *oldu>old*⁽¹⁰⁾ gelditzen da, zelaiko *lorea lez* neguan edo basoko zuhaitzak *lez*, zahartzaroen. Agaitik sumertarrentzat *Ilu* arketipo honek ez zuan lortu jainko izenik, *alu>auleritzat* bai-zeukaten. Bere mezua *Ilu-no>ilun* da euskarak ulertzen duen *lez: ilargi, aldiz litx>lúcida, aldiz Ilu>Elohim*⁽¹¹⁾ alena izatera *eldu al* izateraino.

Amatar hizkuntzak ere ez zuan onartzen Elestian irugaren nortasuna, otso *ulu lezkoa* bai-da. *Ala* ere, Ugariten *lekua* egin zioten *Ilu* jainkoari eta han dager elea eta bere seme Balu animatzen. *Ilu lurrean luze* etzana dager bere *leze lorioan lurrari lotu, lotan* edo *ulitu*, neguko landaretzaren *albea* adierazten¹¹.

Sikiatريان Freuden jarraile eta hizkuntzan estrukturalista kume zen Lacan-ek hirugarren pertsonaren zeregina aurreko bien egia egiztatzea dela dino¹. Seme edo *alabak* berez egiztatzen du gurasoen nortasuna: amaren>*Ni, ena*¹² eta aitaren>*Tu doia*, baina *je moi* persona horren aintza ez zuan ulertzen, ez azaltzen. (Ikus o. 58)

Ezagutu ditugun *Enlil* jainkoa eta *Gilgames* eroia, arketipo honen partele dira eta Uruk-eko *legeen lertzaile*, hatan be. (Ikus 26-44) Iraultza horren *lekuko* dira jainkoen



Lokartu eta hilotz denez, listo datza, lotu, eta lekuz lekutara aldatuko dute.

10 El mito del "Palacio de Ba 'lu", 1,3 V 31, (MLC).

11 Lucha entre Ba 'lu y Yammu, 1.1 III 13-16

12 En>ena zehazten da eta noizbaiten, esaldi bakoitzaren ostean ohituraz ena gehitzen zen, geroago "como hay dios" "la verdad" eta abar esakera erabili direnez.



Lurretik loriara, lekuz aldatzeko aldia eldu denez gero. laugarren loriara largatu legea ailegatu zaie lehedabizi lekukoei.

Loria, loria lelotzen dute luzaroen letania lez, edo loretuago iladan gizatu forma alaiian, gloria, gloria, Ilargia lagun dutela halako lehian...

Lekukoak behin lurretik aparte, ez du lekurik betetzen,

ez lanik lortzen,

baiña ez eta lekukotasunik lagatzen, bera erorien leinuko dirau Elestian, dela eRa edo eL/eLLa, naiz jada ulertzeko eleketarik beharko ez duen halare, Ama Eskolako maite lezinoa lehen lez, lagun izango du, Alajaina.

arteko burruka herrien arteko burruka indartzera zetorren. Biblian zenbait *lekutan*, Babel-eko hizkuntzen nastean *lez*, agertzen den bezela, eta artean Jainko erruz, Ama Hizkuntzek berea jasan zuten, Babiloniako *almenatik* asi eta *Elade* eta *Lazioko Lege* garaietan *lenengo* eta euren *legeko* politika *altu>altsu* guztien eskutik gaurdaino, Ma.aT-en manatuei kuku egitearren¹³.

Herri nekatuek dakie beste inork baino obeto zertarainokoa den jasarpn hau, eurak *lupuen uluaz* egiztatzen bai-dute "homo homini lupus" dinoenean¹³, gu *ultzitzeraino>ulcire*⁽¹⁴⁾, al balute.

Hala ere, *Elish* "zeru" da euren hizkuntzan eta badaite hara bidean, *lurrekoetan* bezela, *ele/ laleo* gainetik, damuaren *eleison* asko abestu edo *legearen lokarriak larga* beharra izatea.

Maitasun *lilura* adierazteko ere erabili izan da arketipo hau. Hala *alaba, loba, iloba* izen maitagarriak ditugu familiko, *biloi>filiu*⁽¹⁴⁾ eta *loba>lov*⁽¹⁴⁾ "maite" gertatu direnak, amak *lez* dena emoten jakin eta ordetan *hiltzeko iltzea largatzen* digutenei.

13 Eladetik Laziora Likurgoren lidergoko lazedemoniar liskareroak eltzean, lupuen elikadura izan zuten alimoan, *Ilu* arketipoari lotu, eta, *Ilu/Al/El/Ella* jaso bai zuten, Gramatikan, eRa ordez, personen irukoitz mailara.

14 F. ZUBIAGA, *Iruñia Veleia, el Calvario de Euskal Herria*, 54-58.

4.6. Ba>Baita, sinbolo eta arketipo

Geure *baitako* ete gara ala *beste baten baitako*? Geuk auke-ratu ete ditugu gurusoak, bizi aukera, maite legea, etab., ala *beste batek* sortu gaitu eta hagandik hartu alkar aintzat hartze-ko neurria eta gida? *Filosofoek* teilatu eta guztiko sistema asma-tu du-telako ustea dute, euren ideologiak dena azaltzen duela-kotan: eurak ematen die gauzei *balorea*, eta jainkoak ze eginkizun duen adierazten, Gramatikan euren *aburuko persona bailiran*.

Ikuskizunen mundutik ate, mistikoa sentzunen gurariei uko eginez, sentikeren gaintik gailentzen da. *Bera* al da Espiritu sor-tzailea ala *beste baten begira* egon behar ete du? Zer dino Espirituak, hotz, gizakia, *abereak* ez bezala, adimenez jantzi eta *beragaz berba* egiteko, eren *persona* mailan *prestatu* duenak?

Gizakia *Ba* eta *Ka* da, arketipoz *bikoitz*, Ma-aT=ama+aita nortasun *bikoitza* da, euren jainkotzat *Bata>Ptah* asmatu zutenek ordea, gizatasuna ipini zioten buruko, ama bako aita alargundua eginik patriarkatu absurdo. *Bere begiko* egin gintuenak ete ginduzan, eme eta ar sortu? (Has. 1;26) Eta *familia baranoan* sortu eta eziok nola uste dute ama *bako* dogmatan *bildu* gu laket bizitzea, geure antropiako lurretik eten eta analogien mundutik total zurtzatu?

Bat filosofo horren *baitak* ez du teilaturik, lainoak ditu *buru* gaine-an, eta hain *biluz* aTa arketipoare-kiko nortasun asmoa ere eskutik jo-ako, amakatzetik ez datorrelako ze-ruan jainkorik, ez lurrean gizakirik.

Espirituak ere patriarkatu lege-tik bat [Jesus] erostean, ama bat aukeratu zuan aurretiaz [Maria], Espirituak, amakatu barik, amatu egin zuelako. Ama barik, *bakarka ibili* gureak *bidea* galazo die-zakio *bakoitzari*, Jesuek igundu *bidegabeko* magian eroriazoz.

Ala>alaba eta men>woman gizatzen dira eta Or etxezalea *beor*, *burro*, *perro* analogizatzen, goikoak *bekoei* eman eskubi-de eta garantia guztiekin, hizkuntza Inkoek gizakiekin egin itun-benagazko agiria delarik, Ama Eskolak halaxe antolatu *bai-*



Ni, ene *baitan*, norbaiti adi nagoko

Geure *baitako* ala *beste batenak* ete gu?

Mistikoa gal daite. *filosofoa* ere



baita, baitako

bihotz-bihotzeko

Baina norbere ustea ustel geratu daiteke eta eritsia> eresi. Espiritua da guri *bizia* eman diezaikiguna

zuan. *Berarekiko* ituna dut, *ba* dut erantzulerik neure *Baitan*, ur *bitako* teilatua du nere etxeak (ikus, or. 58), *babes berezia baitako* nere mugikorrak.

Gu dena *beharreko* gara: *falta* zaiguna lana da, soberan dugu-na, *beharra*. Umeak eskola aurretik dakiz etxeko *beharrak* egiten eta euskerak gramatikalizatu egiten dizkio: “egin behar dut”, *beraz*, “*behartuta* nago” onartzen du. Horrezaz gainera, *baldintzatuta* ere *banago*, *bada*, “*baldin* hau honela egiten *badut*” ondoren egokia eta *probetxugarria* izan dezaket eta ez *bestela*.

Amoregitean ere, *bai, baina...bideko* zoztorren *bat* alboratzen dugu, dena *baitatuz berbatzen* dugu, *hotz*, Ama Eskolak Ma. aT manatuak onartuz *betetzean, bezi>hezi* egiten gaitu burujabetzan.

Kauta>kausa>causa ere, -gaitik eratara ezeze, *bait-* aurrizki edo *-bai* formara erabilten ditugu: “berak garbi dezala, berak zikindu *bait-du*” / “berak zikindu du-*bai, ba* berak garbitu daiala”.

Ama hizkuntzaren orratz lana ikusten da denean eta arketipo-etan giza *Baita* arduratzen da, *Ka*-ren gaitasunak *bideratzen*.

4.5. Ka>gai, Gorputz, sinbolo eta arketipo

Egipton Ka arketipoa Ba arketipoaren abia zan, beraz >kabia ere, bata bestearen kaizua: Ka gordailu, Ba gordetzeko kaixa eta halanik ekusen giza nortasuna, arketipo bikoitzdun. Ka giharrak kabia izatea galduez gero, Ba>ave “txori” hegalaria lez, aske geditzen zan, noiz kabira itzuliko¹⁴, Benu>Fenix txori amesetan.

Gu garena ezagutu eta dagokiguna jakin dagigun, on dugu, arketipoei keiñu egitea, batez ere, aker-tipoen¹⁵ gezurrak eta kalteak ekidin gura baditugu. (ikus or. 70 eta 58)

Sikologiak berak dakus Ni nortasuna soiltasun eskuak eskari egiten eta Gu, ostera, harrotu, “gu ta gutarrak!” gartzuki ohiukatzen ekintza baterako indarrak batu guraz, hako legión deitu deabrua lez, (Mk. 5-9) edo Uruk-eko errege Gilgames danbor otsean herriko gudu ekintzarako gaztedia batzen. (Ikus or.31)

Ki sumertarrentzat “lur” zan, beraz Enki “An “zeru lurrean”. (Ikus or. 30) Enki tipoa zan Enkidu bera ere, “ganadu ganorako nortasunean¹⁵. Gizaki dinogunean, aurrizki edo atzizki markatzen dugu bere arketipo nortasuna, gizakume, gizaseme eta gizarte hitzak erabilten ditugularik¹⁶.

Euskeran -ki hori -ko gertatu da eta Nongo kategoriari erantzuten dator amako, “amaren alaba” [ama, etxea bailitzan, aztertzen duena], etxeko eta sen beraz adizkerara doana: etorriko,



Ka>gai, Kabi, Kaizu, Gihar, GuliK halako pisua jaso dezaKEt...

14 J. LÉVÊQUE, *Sabidurías del Antiguo Egipto*, DB, o.c., 11)

15 Bada txitxiburduntzi ospakizun bat Inotean. Okela erreba jaten dela? Akelarrea eta bera ulertu eta inoren baratza lardazkatu.

16 *Gilgamés*, I. I. 36-39

16 Ebangelioak halako izuaz gizaseme hitza utzirik, Jesus nortanaz “gizonaren semea” oker bikoitza dinoe: bat. gizasemeangandik bereizten dute Jesus eta bi, Antropologiaren aurka doa “giza seme” bai, baina “gizonaren seme” barik, “amaren semea” esaten delako. Patriarkatuaren erratuak Biblian agertzen dira beste inon baino argiago, eta urren gure Liturgian eta Teologian, emakumea gizonaren sahietzetik datorrela dinonean lez (Has, 2, 21-2) Hau konplexua! Ezin onartu ama-zulotik urtenak garena!



Santuek ere norbere gorputza astotxoa lez tratatu behar zela esaten zuten. Izan ere gorputzak gaukaz, giharrak garoaz, geu gara eta gutxi ardurara arrantzari geure Ni apala aztutzen dugunean. Orduan da geure arketipo nastu hau erratzeko zoria. Abe-razak gara hein batean, ez abereak, ki¹⁶ lurreko gizaki,

geroa iragarten, edo datorke, al bidea behenipehin zihurtatzen. Hala ere, bada-ezpadako susmoak bidaltzen dizkigu geure Ka arketipoak gaitasunei begira.

Arketipo hontatik analogizatzen du euskerak ukapena adierazten duen -ka atzizkia, muina>muineka, zur>sorga formetan lez edo -ke amaitzeke adizkeretan. Euskal senak ere zerbait ezkor ekusan arketipo onetan eta ama jakinduritzat har genezake geure arketipoen azterketan.

Uko egin, ukatu, ukoa erakutzi, ukai>codo soinkeratik datozke eta ukor><baikor elkarren aurkako dira, “espiritua baikor delarik ere, gorputza makal bait-da”. (Mk. 14, 38-39) Eta orduan, Ka arketipoak kia>ca esaten du euskeratik erderara. (Ikus or. 86)

Gizakien artean, gizon izen berezitzat hartu du gure eroeak, “xaon>jaun” titulutan bezala ugazabak<ugatz magikoak jantzi, ugazama bardintzearren, hirukoitz arketipodun “aNDRe” titulotaz grekoek ostu zutenean lez, “gizonezkoari” aNDRos egozteko. Pateko>patxutxoek denari oratzen die. (Ikus or. 19)

Egin dezaKEgu formetan gramatikalizatu du gainera, giza albide gehienak ustez giharrean oinarritzen direlakoan.

17 Batekoa “As” da karta jokuetan, bera da balore nausia, latinak “dirua” adierazteko eta gero aes “cuper”>kuperatzeko>kobratzeko erabilten dena.

4.7. aSa>ats, eTXa, sinbolo eta arketipo

Zazpigarren zutabe honek osatzen du (ikus, or. 58) jakinduriaren *etxea*. Zergaitik zazpi eta ez gehiago edo gutxiago? Kosmoan ematen diren nehurriak zazpikun direlako: hala ostarkuaren koloreak eta musikaren notak. Pintoreek, hala ikusiz eta musikariek hala entzunez, *zenbatzen* badute, harago Ama Eskolako hizlariaren arteak. Analogia honen marra markatu nai *izan* zuten klasikoek, *Hh* mutua *asmatu* zuten, musikan deabruzko nota lez.

“*Yakinduria etxea*” bit *yakin*^(s) deitzen zan Sumer, *yakin* baita^(eus) gurean, geu *etxekotu* aurretik. *Esiak* gurutzatuz, *etxea* *asmatu* gendun eta barrutik ate gelditzen *zan etxeko* ez dena eta *etxabe*>*xabe* eta *etxa* on>*xaon*>*jaun* edo *etxa* andre>*xandre* barrukoa. Une bateraz gero, babiloniarrek ere ez zuten *jainkoei eskeintzeko xaun* tituloa baino oberik eta euren *etxe goratu*>*zikuratua*^(s) *Exarra* deitu zuten (Ikus or. 51). Behin *etxekotzat* arturik, *etxa* onen tituloz *sagaratzeko*, aS arketipoa opa *zieten jainko izenei*: Baba *zenari Yawe*¹⁸, An *zenari San*, In *zenari>Ixin>Sin*, Antu *zenari>Santu>Sansu*, aRa *zenari>Isara*, Adar *zenari>Ishtar*, Enki *zenari>Xekina* eta Inko^(eus) *zenari Jaun Inko/Inko Jaun>Jainko*. [hau Babel]

Jainko izen asko gizaseme eta alabei deitzeko ere erabilten dira, hala *Sara*, *Eshter*, *Santo*, *Sanso>Santxo*. Gurean mendi batzuk ba daroe *jainko izenik*, hala *Itxinamendi*, *Sandamendi*, *Jainkomendi*, *Sandramendi*, etab.

Esku forma ere “uki” *seinua* indartzen dator, hitzak soinkera bermatzen duela, Lagash-ko Gudeak adierazten duen bezala, “neu ez naz, baina neuk ordezkatzan dut” bailinon, hitza ekintzaz bermatzen. (Ikus or, 82)

Uko forma ezkor aipatuak ere halako *sagaraz*, *esku* itunben gordailu izatera dator. Nor da *sagaratzailea* eta *zer sagaratzen* da



eskuan, eskutik, eskubi-dea eskuko eskutatzen...

18 *Yawe* hau izenez eta tituluz *Yaube>Jabe* bera da eta aldi beretsukoa. “En las inscripciones akkadias se encuentran ya desde el siglo XX a. C. nombres propios compuestos de *Yau* o *Yaum*”. (*Yahvéh* (IV), D.B. o.c., 2056)



Santutegia, etxea, eskua, ezkontza eskutua, etxandera>santera, as+biri-tu>espiritu: arketipo guztiak teilatupe ber-berak onartu zitueneko itunez: *aj*^(k), *zid*^(s), *xit*^(eus) *ats>asa* hartu zuteneakoa goiak beari, baimen beak goiari on-*espen*, aitaderak pontean umeari *atsa* eman zionekoa, Jesusek bataiokoan *Espiritua* hartu zuenekoa, *asperenez* bizia *asa* birietan *asi* zenekoa.

etxe honetan, *etxea sagaratua* bai-da berez edo Sortzailearen eta sorkarien arteko itunbenez? Hemen sorkariei, *seme*-alabei legez, *eskua* ematen zaie. Abaterik ez da behar [arriskutsuak dira gainera, izkribu agiriaz amari *eskuartzea* kendu ziotenetik] eta hitzaren *asmatzile* den Ama Eskolako ama bera da ordezkariarik egokiena. Zezegaitik *esaten* dugu *etxandera>santera* eratorriz, berez datorren ordezkaria Ama Hizkuntza guztietan.

Santutasuna adierazten duen aSa arketipoak, ez luke berez, Bernini-ko loriaren beharrik, magiazko lurrun orok, sorkarion baitan *Espirituak* ixuria dugun benetako bizi misterioa *estaltzen* duelako eta *Espirituak* non-nai ufatzen du bere indarra, berak egiten bai-du gure *Jainkoa* Irukoitz, Gramatikak No+To+eRa arketipoetan iragartzen duen bezala, Ama+Aitaren maitasuna bera delako seme-alabei dohan ixuritzen zaigun *Espiritua*.

Ez gara jaio, ez jantzi geure oldez. *ez* dugu *ezer* geuretik, gura-soek maitez eman digutena baino, bada “lurrezko ontzietan dugu altxor hau, halako indar altsua *zearo Jainko asmotik* eta ez geure *eskutik eskondu* dogulakoa ager dadin”. (2 Cor, 4-7)

AN UTU RA ILU BA KA ASA
 No, Ni, Mi Tu>Zu>Yi eRa, uRa eL, eLla Bera Gu>eGo eTxe>Je

V. GRAMATIKA, AMAREN ESKOLA

Hizkuntza abozkatua elkarren ulerbiderako asmatua izan zan, etxeko denak amaren oharra uler zezaten eta haren esanak zehatz bete. Ez zuan asmatu Maisuen Akademiak, Amaren Eskolak baino, ama arduratzen bai-da bere umeak txikitatik onean hezten eta eskolatzen, bakean elkar onar dezaten.

Geroago baten Ama Eskola abozkatua, Aitak idazkizunera jaso zuan, hala Tot idazkariak Egipton. Ama Eskolak berak antolatu zuan etxekoen elkarrizketa: iru nortasun dagerz Gramatikan, eta argi dago nortzu diren iruzkinlariok: *No*, *To*, *eRa* deritsaie. Hor Ikusten da Ama Eskolak *eRa* arketipoa hartzen duela *eren* nortasuntzat eta tirria zionek *El>Elohím>* ugaritiar *alena* sartu zutela euren heretajea. Geroago, *Gu* nortasun ugarikorraz *>eGo>Yo* greko-latinoa sortu zuten “legion” boteretsua bildu zutenek eta *eTse/-Txeia>Je* apala azkenik, auzokoek mailebuz hartu zigutena².

Zenbakien arteko burrukari buruzko iraultza (ikus o. 90) Ama Eskolak hasieratik Gramatika lana eginik utzi zuan eta Nietzsche eta arrazoi murriztu-zale mutilek konturatu zireneko, ia berandu izan zan eta *eGo>Yo* horrek oztaz ematen zuan “supergizonaren” tantaia eta Gramatika bera salatzen du: “Uste dut ez garela Jainko ideatik askatzen, Gramatika horri sinisten dioguno³, eta zuzen eta zeharka, Gramatikan *No+To* eta *Erena* atzindu aleginak egin zituzten, Indoeuropear dogma bultzatuz eta *Dius Piter* eta hola-

1 Egipton *Ma.aT* (ikus or, 15) *Ama>antze*, *Aita=uTu>zuhurtzi*: bien jakinduriak (Ikus (or. 72) zaintzen zuan *ErRa>aurra*, orbiako bidetan erratu ez zezan. Grekar zelokorrek, idazkaritan, Tot orde, Hermes geinua idatzi zuten idazkizunen asmatzaile, inoren lumez soinekoa egiten artetsu bai-ziran.

2 Auzoko lenen *kusuen>cousin kutsutik* garbi direlakotan, ez dakie gero arazoaren barri emoten, hala Lacan-ek *ni-neu*=“*je moi*” forma egina aztertzean, izarrak ikusten bai-ditu edo Erretorikazko akatz ematen.

3 *El crepúsculo de los ídolos*, trad. J. MARDOMINGO SIERRA, Barcelona, Folio, 2007, p. 29.



Begiez ez ikusia edin edo betaurrekoak baltzitu, bardin da, baina, hala ere herriak ikusi egiten du, amaren erraina eta aurrera ezin daitekezela banandu

ko berrikeriak kaleratuz, eta aldiz euskera zokoratuz, argia itzaliz.

Teologoek ere gauza bera egiten zuten Irutasun Santu dogmarekin: Aita, Semea eta Espiritu Santua eta Gramatikazko irukoaren elkarrizketa isiltzearen, *No+To+eRa* [*Ma+T+Ra*] ukatu, eta maitasun misterioa deituz, “*credo quia absurdum*”-eraino, amakatu, amatu beharrean. Amatu ezik, giza maitasunak jai du. (ikus hiruko argia o, 75) Gizabidea eta gizatasuna da herri Gramatika, Amaren Eskolakoa. Hor denok gara Irutasun partaide, naiz eta gure aintza eskutuan dagoen bizitza honetan (1Jn 3-2). Ama nortasuna Irukotik ezabatzea Ama Jainkoa hiltea da, Marduken erailketari arrazoi ematea. Ba ete ekian oker susmoko filosofoak Exarako andikeriaren barri? (ikus o. 51) Zelan inziniatzen du “Jainkoa hil da eta geuk erail dugu” Nietzschek? Errazago zuan susmakari halakoak “Jainkoa hil dugu” inziniatzea, gizakiak hizkuntzan egizta dezaken ituna ukatzea baino. Errezago da araua, hitzaren eraginez birau bihurtzea, Ulertuko al da behingoz ama ezin daitekela umeekandik banandu, ez eta arketipoak Gramatikatik?

OIHUZKOEN ANALOGIA, ARKETIPOEN ARABERA						
AN	UTU	eRA	ILU	BA	KA	ASA
ene/en	otoi.iso	ara.ario	alá(ar)	bea/vae	ka'kia	ixi'che'txen
enei	ut.ux,aida	arren	olé/iole	ba'bua	gel'gora	jau'chao
ño/año	txut'ixo	aro'rau	(h)il'lúe	ave'afa	ako'ecco	asa'ajai
oino	et'eit'at	arraio	ola'alló	eup'vah	gerô'coño	zaust
ena	uju.ujui	arre'aira	ely(h)	uf'huf	agur	xapi'zape
ainü	otian.utinam	rayos	elas'alto	hip(i)	courage	txist'chitón
aan	zut'tira.tus	arrano	ale'ela	vaya	kontuz	esti'este
ainintz	oste'ojalá	urra	al'alajina	balinba	kurra	ezbe


5.1. Ortografia vs Analogia

Antz formak, “Ana+logos⁽⁹⁾ “zeru+ele”, beak goiari dion tiria dino beraz goi argiei leioa erzteko, Analogiari uko edo ezikusia egitea zan. Analogiaren utsa zuritu ona zan Ortografiari keinu egitea, beraz, klasikoen arabera, idazkaritza bermatzea. Horretan grekoek ziran maisu eta haien lana estrukturalistek osotu dute gure egunotan. Or zela egitiar eroea? Horus idatzi eta deklinatu, eta Ator afrikar maite ereduari Aphrodites deitu eta atoratzaille zenari erosle> Eros aurkatu: hitzen jatorri seinuak apurtu, bubunaiko izateko,

Analogia zan Gramatikan hitzaren jatorria bilatzeko ariketa: Or Ator-en aurra. Analogiaz, Artzain-or “artzain txakurra” esateko, artzain <”ardi zain” bezala. Eta etxeko>orra?>txakur jakina. Gizakiak baitatu=etxekotu abereari ba+or>beor deitzen dio >beor, perro, borro, burro, emoten dituen. Ama-ren ime/ume ezagunetik analogizatu dugu abere kume edo zugatz kimu, izakia eta gizakia Ka mailan partekide direlako. Analogiak elkarrekin josten ditu, bereizkarri diren arketipoak aurritzituz.

Gramatikaren egitura ezin apurturik, Analogia atakatu zuten, hotz, hitzen atea>atakatu, biziaren sartu-urtenak eta mugida ostopatu, ito, Biologiaren edukin guztiekin, al bada. Klasikoek jada asia zuten lana, eta susmo gaiztoko filosofoen ostean estrukturalisten diseinuraino doan azpijana jasaten dugu gaurdaino²⁷.

27 “Significante significado” (SAUSSURE) zurtza erakusten zan Unibersidadean ere. Besterik ez galdetu. Hitz, oster, mordoka dator, familian lez.



Zeruan ala lurrean, nogaz edo zegaz gonbaratuko dut neure azkaia eta neure baita? Eta neure baitako ideak zeren antzeko dira? Neure hitzak eurak, pitz hitzak gera ez daitezcan, nondik jaso dute tentegailua? Iada zerutik eguzkiak gerizatu egin du lurrean, ohargabea antzo, naizen tantaia. Nik zer zor diot eguzkiari edo zeruari edo amari nirekin gonbara dadin edo eta ni berarekin? Ikus, hala ere, gonbaratzeko hizkiak or. 88. eta baietz dirudi...

Ortografiari lar garrantzi emateak berak diño, Analogiari kendukotik diatorkola; ots edo soinu materialak bakotx aipatu, unean uneko eta kito, amarik amatu edo aitarik aitatu gabe. Silegi dela, beraz, Or>aur>haur egitea, grekoek Or>Horus deklinatzen zuten bezela: Or semea Ator amagandik aldendu, umea amari ostu eta familiako sena edo zentzuna ezabatu, ohitura galazo.

Analogiak Biologiatik Gramatikarako bidea ematen digu eta alderantziz, baina bera arketipoei begira dago, umea amari bezala. Amaren manatuari kuku egin tirria duenak trabak ezarten ditu atean eta etika baloreak aldatu gizarte politikan.

Greziako klasizismo klasistak egin zuena, beste batzuk ere egin dezakete, hitzari klase berezia ematearren, ikaslegoa entretenitzearren, gauza errazagoak erakustearren. Ba dakigu norbere ohargabeko edo taldeko arketipoak argitzea, baitako oharketa sakona eskatzen diguna eta egin beharrekoa dena, Jung sikiatra sakonaren gardiz. Amaren manatuak jarraitzea baino errezagoa da norbere aburuko legeak asmatzea, eta estrukturalismoa aldarrikatu, Gramatikari Analogia ostu Ama Eskolaren aurka, haren irakaskizuna ukatu, sormen berriko Maisuen Akademia goraiptazearren.

GONBARAKETA ANALOGIAK ARKETIPOEN ARABERA.						
AN	UTU	RA	ILU	BA	KA	ASA
ain/ein/oin	duin	aren	lain	bein/bai	cuán/qué	zein/asina
-en/-ino	tan/zoin	arean	ala/ola	veluti	gino/gardi	zelan/selon
ansi/antzo	edu/uti	are	lez, legez	bezala	gisa/guisa	jas/yes/ez
onan	ide/adin	orrela	olan	bardin	kide/equale	sic/así/sí
nola	oso/total	eratan	aulan	bezain	cual/gara	sano
muy/anitz	txit/sumo	real	alen	behinen	como	sane
inobre	super	areago	alyn	presque	geiago	ya/según
ainbat	tanto/tal	urreean	alako	parecido	igual	semeios
máxime	thusto	eurrez	lar	vix/pene	guzti	aski/asko
nahiko	doi, soil	erruz	alaso	harto, pizka	gutxi	aseki/assed
minus	ttantta	ralo	labur	poxi/poco	ka/quia	eskaz
noski	utique	real	alegia	vere, bai	egiaz	certe
ante	tint'edo	ordea	aliter	bestela	contra	extra
nahiz	todavía	or	alor	baina/pero	agian	siquiera
modu	tankera	era	lege	baremo	kasa	zentzu


5.2. Prosodia vs Analogia

Orobat Prosodia ere goraiatu egin behar zan eta magnetofonoaz baliatuz, panpineri ere hitza eman²⁸. Beraz, hitzen organoa aztertu behar zan, mingain-agingen lana deskribatu, konsonante bakoitzak agozkatzean aurkitzen dituen estrepozuak aztertu, organogile lana egin, organista jakinak gero, edertien munduko beste armonikez [Analogiarenez, adibidez] unki gindeizan.

Analogia hizkuntzaren garapena da, Max Müller *Erlejino gonbaratuen* autorearen gardiz. Analogiak goi-beak izpilatzen ditu putso garbiak bezala, *nomina sunt numina* “izenak jainkoak dira” esateraino. Hala dagerz beintzat arketipoen zutabeetan. Froga, ezpaere, umetzaroko geure edo ohiko euskaldunen intziniak, deiak edo otoiak goiko taulan. Analogiak hitzen iturri diren arketipoekin elkartzen gaitu. Ausaz gramatikoek ariketa horretarako prest dagokez, ohargabeko gerizak argitzen ere lagungarri bai-ditugu²⁸.

Ama Eskola zehatzak kontsonante bakoitzari bere sinboloa ipinten dio begien aurrean. Ez eukan izadiko liburu idekia baino izpilu oberik, ikasleen hatzbeigiak atrapatzeko.

28 Muinaka bat muindun umearekin gonbaratu, halako arteziaz bizia baitatu duelakoan? Hori patekoen sorkuntza-lakoa, (ikus or. 18-20) magia utsa dozu edo euren Khum jainko bustinlariari bizia ufatzeko ala egostea.



Begiak so, belarriak adi, mingaina zoli, aginak gertu, gorga larri, biriak bete berba egiteko gai, baina ZER esan, edo idea irudikatu, sentzunek gauzen zentzuna uler dezaten? Etxeari teiltatua, organoari organista, hizlariari sena faltatuz gero?

Hizketan birietako *asa/atsa birituz* > *espíritu* egina ufutzen dugu, hizkeran sortu abotzak ideien munduan sartzen gaituelako, sorkuntza berezi zorrian. “Bihotzetik abotzera” esan zuten Menphisko abateek, Ama erraiak eta aginduak ezestearren

iLu, [loia edo iluna, bizitzako esnea eta ogia ematen dizkiguna]²⁹. Ekologiak ere horixe bera erakusten digu, eurak direla gu elikatzen gaituen indar berriztagarriak. [Eta zerk izpilatzen gaitu *uiN* gardenak eta *iDuski* argiak baino obeto? *AiReak* ere inguru eta barne oratzen eta bizi arnasea ematen digu, gizaki eldu izan gaitzen] Osakidetzak oinarriko elementuoi jara egiteko aholkatzen digu, gizakia berez, giro eta eliku sortzaileon eskeko delako.

Baina gizaki eldua ez da ume inozoa, eta gainera, Amaren Eskolan hezi denez gero, eta norbere eskermenduz giharduran eta baitan sentitzen duen araberan, goiko autatuekiko elkarrizketan parte hartu al izateko norbere izakerako ordezkariak aurkeztu zituan: hiru hatan ere, zaspikuna osatu zedino: *Ba*, *Ka*, eta *aSa*, hirurak ere goikoen dohai norbere oldez kudeatzekotan hartuak²⁹.

Zaspikun horrek hizkuntza gainerako arteen mailara goratzen du eta gizakia abere mailatik, Jainko familiaren heinera jaso-tzen, halako erritualez osaturiko itunbanean.

29 “Hizkuntzaren arrastoa da denetan sinistagarriena, herriek euren artean eta jainkoekin hizketaezko erabili duten medioa delako” MÜLLER F. Max (1823-1900). J. RIES, DD.R. o.c., 1261-1262)

5.3. Asaben Arbolatik begira

Zarraparren osteko memoria argia eta zuzena egin aleginatan dihardugunez, geure Sendiko Arbolaz ere arduratzeko unea ere artu dugu, “zirelako gara, garelako izango dira” jakindurian. Ez gara lotsa, gure asabek argazki eta guzti, geure Jatorrikoen Arbolaraz jasotzen. Geu garenaren bihotzkera edo arpegikera, azaltzeko ere izpilu onak bai-ditugu eta maiz izpilu beiratuak erakusten ez digutena, harexek, joaneko arbasoek, erakusten bai-digute.

Jatorrizko Arbola horren ostroek ohargabeko geure arketipoak argitzen laguntzen digute. “Goian Begoz” esaten dugu, eta esanaz batera, goiko Espirituari adi bagagoz, begiak, ez irudiak, erakusten ez digutena, baitako guztion espirituak adierazi diezaikigu, sorreran bertan hartu genduen espirituak, alegia³¹.

Familia Arbolak gure jatorria oroitarazten digu, memoria errazten. Lotsak bagongoz, Arbola hori ezabatu edo erre egingo genduke. Gramatika halako zerbait egiten dute Analogia baztertzuten dutenak eta gero Etimologia izenaz, inoren lumentz jantzi norbere bilustasuna. Espainia eta Fantziako hizkuntzalariek horretan maisu dira. Zer egingo dugu, bada! Lotsa ematen die abize->

³¹ Maiuskulaz idatziez gero, Espiritua<aSa biritua” analizatzen dugu, bera bai-da arketipo goitarrekin berbatzeko nabastarrea opa diguna ere.

ZENBAKIAK ARKETIPO ERATARA						
aN	uTu	eRRa	iLU	BA	Ka	aSA
un	dui	iru	lau	boga	seka	zapa
ZENBAKIEN IRAULTZAZ						
bat	bi	iru	lau	boga	sega	zapa

Arketipoak maiuskulaz: Teilape bakian, giza arketipoak. Jainko+gizaki=orokor
Izena arketipoz aldatzea kategoriaz aldatzea da: **aN**=ama Inko arketipoa, **BaT**= giza arketipoa+aita jainkoakoa: Ama arketipoa desagertzean, Ama inko eskola agintetik Aita giza jainkoa eskola agintera aldatzen da. Teologia iraultza hau Menfis Egipton, XIX dinastian *Ptah* jainko guzti-egile aitortzean, egin zan, Tebas nausitu zaino. Aldi berean, 2000 urte K. a. Sortzalde Urbileko jainkoen izenak titulo berezietz aurkeztu ziran¹⁷.



Gure Sendiaren Arbola, gure memoria eltzen denera eta harago: Amun, Atum⁽⁴⁾ amuma. aitiba gureak (G.B) eta Gure> Egooaren ondoraino. sustraitaraino: izan zirelako bai-gara, eta garelako izango bai-dira.

zenagino euskararen meneko direna eta grekoaren eta latinaren ohore eskeko makurtzen dira. Euren Unibertzidateetan ez da aipatzen euskerarik, eskola nausira gende aukeratua joaten delako, ez baserritarrik. Ausaz euskara betiko desagertu delakoan dagoz eta durdusiak hartzen ditu, oraindio bizirik dagola entzutean. Eta Historiak eta Hizkuntzez liburuak idatzi dituztenak larrien, jada susmo dutelako euren idatziak erratuak zirena, txobinismoak eta fatxismoak gidatu eta Unibertsitateek txalotuak. Hor agertzen zientziak ez dutela politikarekin zerikusirik, ez egiak sinisgaiekin,

Etxearen Jatorrizko Arbolan Emperadoreen, Erregeen, Printzeen, Andikien Familiko dira, gezurrezko gurasoen seme-alaben konplexua dute, eta hagatik Euskal Herria ere ontzat ematen dute, euren politikaren esaneko, menpeko izatekotan

Euren hizkuntzalariek, euskera bizi dela, eurak eta euren printzeak jaio orduko, euskera beti hemen egon dela, euren izen-abizenak, euskerak ezagutzen dituela, naiz eta izenak beste Ortografia batez idatzi eta beste Prosodia batez eta iguinduen hitz murriztuen halako igeskadan abozkatzen dituzten. Eurak dira gure anti-eredu Gramaika arloan eta geure Ama Eskolari zintzorro jarraitzeko akuilu.

ALOFONOEN JATORRIA						
AN	UTU	eRA	ILU	BA	KA	ASA
M	T	Rr	L	B	K	S
N	Tt	R	LL	V	Q	X
Nn	D		Y	P	C	Z
Ñ	Ts			PH	CH	J
	Tz			F	G, Y	SH
	Tx					
	DH, Y					

5.4. Morfología vs arquetipoak

Estructuralismo zaleak, murrizketaren filkosofuak bezala, argi ibili ziren herriko baratza iñausten, hemen moztu, han sakondu, gizaldietako Gramatikari barri itxura emotearren. Hasteko eta bein kendu “oraciones gramaticales” hako deitura mengela eta sakristiatik kalera atera, ala Dotrinako umeen exenpluez artegira behartu behar ete gaitue, “Jainkoa ona”, “Zenbat Jaungoiko dagoz?” “Jungoiko bakar bat eta bera nahikoa” galde erantzunezko apaiz maisutzaren mendeko? “Euskara, jalki adi sakristiatik plazara!

Estrukturalismoak horma barriak egin zituan erainkintza zaharren erauskinez. Orain “significante y significado=adierazle-adierezia” esaten da, erromatarrek “divide et vincas=bananduz zapaldu” aldarrikatu zutenaren orde, erroak eten, hitzen familia ukatu.

Estrukturalisten garaikide den Indoeuropeísmo ere ados etorren barrizkuntza lan horretan. Batzuren ustez, “zaharrak herriaren memoria direna”, besteontzak “zaharrak zakar ontzirakoa” da eta hizkuntza zaharretan, euskera, alegia: “hizkuntza isolatua”, eta klasisten artean “ezin klasifikatua”⁸ delakoz, aipatu ezinekua. *Bururatu* egin zitzaioen, *burutu*>*frutu* datorrela ohartu barik, eta ohartu ezik, eta merkatuan saltzen da den *frutrua* bera dela, hain zuzen, “pisu *brutoa*” dena, ondo *burutua*>*brotu* den galburu edo artaburu bezala, aurki eta txarto *burutua* barriz, *brutoen* salako, ez Ama Eskolako burutazinoa.

8 Abade-buruei ere “Aita Santua erratu ezina” bezalako dogmak asmatu zituan, eztabaiden amairako eta denen bakerako



Bera da lekukoa, mintoen mintzoa dakiena, Jabegoaren agiri-duma: maasti jabea, alegia. Kendu daigun begien aurretik eta geurea izango da maasti horren ondarea betiko. (Mt. 21, 33)

Erein barik uztatzea, askoren ametsa da, baina biologiaren aurkako amakatze utsa. Lurraren jabe denari errentarenak sor zaizkio. aurretikoen ornigarriez lur landuan erein dutelako, ezelan parabolako maasti errentarien bidea hartu barik. (Mt. 21, 33-43)

Euskera amaren seme, gure anaiek eureak ere, jabetza berriaren tituloaren bila, zein da ezkeraz ezker eginik, edo “que inventen ellos” ikerle ganoraz, sasieskola egin zioten Ama Eskolari, askaren urrango askatasuna datorkela barrundatuz, gosez hiltea baino hobea baida Estatuaren morroi bizibidea lortzea, arketipoen azterketa-gogarteak monjen arazotzat lagata.

“*Oratione*” Or familiako *orro* delakoa *orhoitu* barik, latinismo merketzat jo eta baztertuz, “perpaua” asmatu zuten ordetan gramatikari berriek, kontzeptu horren osteko errealitateaz hitz eta pitz eginik. Izan ere, euskara, “hizkuntza isolatua” ezpada, bedi izorratua sikan, hotz, birkolonizatua.

Umezurtz utzi gaituzte. Umezurtza amarik ez aitarik ez duen umea da. Izan zituen gurasoak, ama-aita maitatiak, ume jaio zenean, baina Sendiko Arbola moztu egin zioten, etorkin errukarri antzo utzi zutelarik. Eskerrak izeko baten babesean gelditu zena eta izekoak, mantenuaz landa, bere gurasoen berri eman ziona, etorkizun obeari begiratzeko zorian, burua jaso bai-du, makilkatu gaituzte, hildakotzat utzi eta hala ere bizirik darraigu.

5.5. Euskara sendatzen.

Gure arteko esames eta bidegabekeriaren memoria egiten dihardugun aldi honetan euskeraren aikomaikoak ere kaleratu genitzake. Ez dut uste, Frankoren garaian bezela, “dena lotu eta ondo lotuta” gelditu zen, iñoren Konstituzinoaren morroitzako ere ez garenez.

Osakidetza deritsogu Medikutzari gure uren analitikak egin eta gure giharren ozkak aztertzen ditunari eta ezkerak pilula bartzuren ernagarriez soinak beretik lortzen du osasuna. Halako aztaketa bat ondo diatorku geure “euskera osatzen” aipatu orduan, gaitzak aztertu eta emendioa bilatu preminan.

Osakidetza % 90 inguru emakumeek ornitzen dute, Amaren Etxeko baratza beti izan bai-da senda belarren zalea. *Ator* amak ere (ikus or. 11) osatu egin zuan Set setatiak ondatu *Or* semea eta *Ator*=*Isis*=*Nefertari* emazteak, berbiztu *Osiris* senar txikitua, haren gorpuzkinak banan banan, aurkitu eta konpondu ondoren.

Hizkuntza ere, Amaren Eskolako denean eta % 80 inguru alaben eskuetan dagolarik, osabide onean dagoke, amaren zehaztasunak, haren aginduei ematen zaien arretaz hartzen badira.

Hasteko mesfida arketipoen zerrendan tokirik ez duten konsonanteak. Bea zerbait adierazteko edo astoratzeko ete dagozen edo “ezer ez ta festa”, sasi-gomitatu diren. Lenengo berezi alofonoak jatorrizko konsonantea eratorriz ordezkatzan dutenak:

Beharrezkoa ete zan, hala nola “diabolus in musica” zazpikuna apurtzen, *H-*, *-h-* ren bat sartzea? *Bata*>*Ptah* forma ezaguna dugu *Menphysko Theologiatik* hara (ikus or. 19), hala ere inungo euskalduni ez zaio *Batha* idazteko zimikoa gertatu, kartetan bezala, batekoak beste inork eta ezerk baino gehiago balio duelakotan.

Konsonante alperrik ez da berez Ama Eskolakoa, naiz besteen arrimoan, soinua egoki edo hitz bardingoak bereizteko erabili daiteken, ez beza, hala ere, konsonante ezagunaren ordezkari urten, hotz, *abotz*>*vox* datorrelarik, *aho* idatzi, ez moztu sendi seinua Arbolatik, Ez ditzala inork ilundu *ur*, *uri*/ *iri* jatorrizko izen argiak, lehengo edo oraingo klasisten moda jarraituz, *Ninursag*>*Ninhursag* edo *Ator*>*Hator*, *Or*/ *Ortzi*>*Horus*, saieztuz.



Konsonante alper hau progresisten seinutzat oparoegi erabili izan da, grekar klasistek koptoa mailebatzean lez. Klasistak ostera, arketioei begira dagoen Ama Eskolaren aurkari dira. Erra arketipoari berea sor zaioi, *nora noa* bestela, *noa noa* bihurtuz, edo *zertara*>*zerta*, *zera*>*zea*>*ze* muskilduz? Hiztunen ezjakina eta aboskera alperra salatzeak dira⁹.

Euskera gaisorik dagonarren, euskera batua izan daiteke “euskera osatuaren” arerio, sarritan forma okertuak jartzen direlako ezjakinen eredu³². Euskera, Auzo Eskola barik, baserrietan gorde izan da ordaintzu arte. Oraingo ikasleak, euskeraren akatzak igesten eta osakuntza egiten ikasi behar dugu¹⁰. Euskera Ama Eskolako hizkuntza dela jakiteak asko lagundu diezaikigu haren zehaztasunak erritualki jasotzean.

9 Inoiz bertzoaren negurriak behartu gaitu halako elipsietara: “Gabaren erdian/ Jesus jaio da/ alaiki ta bizkor/ goazen Belena”. Nora? Gabon kanta polit hau abestean, gogoan dot Urdabai aldeko elizetan “goazen Belenera” tresilo eginik, abesten genduna. Naiago ritmo artesa apurtu, Gramatikaren erregelak zapaldu baino. Hagaitik inoiz esan dot Angeru Irigarayk esana: “Zuek bizkaitarrok, bizkaieraz jardun behar duzue, hitzak obeki osaten dituzuelako”. Esan dot eta esango.

10 Adibidez, euskera batua agindu zenean, Bizkaiko forma *bake*>*pake* bihurtu zan askorentzat. Jatorrizko forma ezetziz, exotikoa hartzea izan zan batua egitea, izan ere, exotikoa sakkorra goa da ezjakinentzat.

5.6. Teologia argitzen

Teologia Gramatikatik aske ikustea, *in principio erat Verbum* ez ohartzea da, hotz, gizakia bera ibili zela goiko arketipoen garatzetan, artesi andiko hizkuntza egite orduan, *asieran Berba zan* (Jon1,1). Asierako berbak utzita, Gramatikako elkarrizketarien irukoa beste nonbaitetik oratu eta aurkeztea, oinarrizko erratua da. Eta eratu hori historian emana da, Menfisko abateek, *Ma-aT* bikotea itzuriz, *Ata* alargundu-momifikatuaz, *Bata>Path* aldarrikatu zutenean, amagandiko sorkuntza bizia ezetsiz, arketipo mailan magiarena obetsi zutelako (ikus or. 19). Erratu hori Biologiaren aurka, Ekologiaren aurka dager Irutasunaren dogman ere.

Nazareteko igarle, Jesussek berak iragarri Erreinuko partele egin zituan gizaki denak, emakume edo gizonezko, artean ezelako bereizketa barik. Eztalakoa, emakumea bardintasun heinera jaso zuan, patriarkatu amorratuaren erdian, eta egintzat gelditu zan bere jarraitzaileen ohituraren, bateo soilaz Erreinuko abade eta errege leinuko egiten zirela. (Gal.3,28) Handik laster, Konstantino Erromako Kaiserrak IV gizaldian, Enperioko babesa eskeini zien kristianoei, herio jasarpenetatik jaregin. Bai baina, era berean, bera eta bere aialdeko abateak sartu zituan eleiztarren batzarrean, intzentsu, jantzi margotsu eta magia arrandiko liturgia eta guzti. Halan obeki azaltzen zan Kaiserraren batasun bakartia, *Bata>Ptah>-abate>patekoen* aukeran kukuriotu. Bakar ala Irukoitz Jainkoa?

Jainko Irutasunak sortu zuan eztabaida: ea *Logos*⁽⁶⁾¹¹ edo *Verbum*⁽¹⁾ Semea, Aitaren berdina izan zeitekenetz. Arrio bereberra, ez etorren ados Alexandriako teologoekin¹², Ama Andre titulua ere ez zan onartzen Aita Jaun tituluaren pareko eta Irutasun misterioak soberan edo faltan zituan hizketarien irukoak, Amaren Eskolako Gramatika ez aintzat hartzearren, edo ez hartzeagaitik. Berdin da orduan Espirituak jainkoari “Ama” edo “Aita” deitze-



Andrés Rublev pintoreak hiru nortasunak berdintzen ditu, nor zein den zehaztu gabe; ez du ukatzen Gramatika. Bere Erdi Aroan, Rusiako Eleizan Jainko emetasuna ez zan atzindu oraindino. Ni, Zu, eRa hiruen elkarrizketa naroa da

ko baimena ematen badigu ere. Ama ez da agertuko Jainko Irutasunean, Espirituak berak behartu barik eta mistikoen eratara aitortu ezik “oi ze atsegina den Jainko barnean atsedentzea, lagun batekin bezala berarekin hitz egitea!”¹³.

Espiritua da, izan ere, guri seme-alaba sena ematen diguna, izatez eta sinistez sentitzeraino eta halatan Gramatikak ba du zeresanik Teologian, Irutasunaren nortasunean bederen. Gramatika ez delako misoginoa, hein baten kristiano askoren Teologia den neurrian eta Jainko Familiako Arbola egitean, ez delako Amaz astutzen, edo Jesusen eredura, ez duelako emakumea baztertzen.

Jesusek iragarri Erreinuko agintean Dogmatikak ala Gramatikak daki iruzkinaren barri? Nork erakutziko digu nor zein den Irutasunean? Jainko Familia aipatzen da. Analogiak goi-beak bezela be-goiak elkartzen ditu ezelako trauma gabe. Eta trauma andia gertatu zan susmo gaiztoko teologoek Ama arketipoa atzindu zutenean, Aita alargunduari dena egosteko. Horixe bera egin zuten susmo gaiztoko filosofoek geroago, Amari nortasuna ukatzean. Bektor Sikiatria eta azaldu bekigu zer dela eta kendu zioten Amari etxea gobernatzeko eskua. “Bila ohargabe iluneko arketipoak” dinosku sikiatrak, “gure Jainkoa Jainko armatua da” guda gizonek.

11 *Logos* deiturak eRa/ eL hizketarien irugarren persona bereizen du.

12 Alexandriatik gertu zan Menfisko abate patekoen iraultza eta piramideen seinuak puntu bakarrera zeramazkin bere lau alderdiko lineak eta patriarkatu itxutuak ez zuan onartzen Ama arketiporik edo personarik Semearen [seme-alaben] sorkuntzan. Biologika nastuan ezin zuten erabagi, eredu mailan nor baikoitza bere exerlekuan jarri gabe, (ikus or.93)

13 Irutasuneko Isabel monjia/ *Isabel de la Trinidad* (1880-1905).

5.7. Angeruarekin burrukan


Beraz, lainoetan barik, Teologia ere, Irutasunaren arabera, geure baitan ere egozten den elkarrizketa da, ez Jainko armaturarekiko burrukan, ezpaere arma gabeko guraso eta adizkide soilarekiko eztabaidan, Jakob angeruarekin bezala (Has. 32:22-30) bakarka eta bakartadean, norbere gau ilunean bilutsik, norbere ohargabearen gerizatsua dakusgula aurrean. Eskeko garenez, eskari bat gendun berekiko, otoitz edo SOS aldarrikatu naia eta elkarrizketa bera bihurtzen zaigu buru-belarriko burruka.

Nik Bera hizketa kidea, neure alde egotea gura dot, Berak ni Espirituaren aldeko gura nau; hori da eztabaida, ez dago burruka larriagorik. gizakiaren aske minak xede egokira lotzeko alegina baino. Sikologiak lagun diezaikigu, geure arketipo izkutuen bilakaerak, hotz, geure Baita, bestearen Baitarekin adostean. Horrela ekidin desakegu geure baitako Or eta Seten artekoa, Atorrabi eta Mikelatsen artekoa. Gure benetako burruka barne burruka bai-da, gero kalekoa. "Maitasuna dagoen tokian ez dago botere irrikarik eta alderantziz. Bata bestearen geruza direlako". (Jung)

Elkarren konponbiderako amatar aginduak Giza Eskubideen araudian ere nahiko zehatz onartuak izan dira¹⁴. Eskubideok, amatar aginduak diren heinean, hobeto ulertu al izan ditu baserriak¹⁵ kaleak baino, baserriak ohitura zaharrekin, ezeze, izadiarekin

14 "4. Askatasuna besteen kalterako ez den guztia egiteko eskubidea da. Gizaki bakoitzaren eskubideak ez dute beste mugarik gainerako erkideen eskubideak aldeztekoak baino. Muga hoiiek araudiak berak bakarrik ezartzen ditu. (*Derechos del Hombre y del Ciudadano en la Revolución Francesa* (26, 8, 1789). "19. Bakoitzak bere opinioa izateko eskubidea dauka, eskubide berak babesten du eritsiokaitik jasarpenik izatetik, ikertzeko eta, beraz, besteen eritsien barri jakiteko eta zabaltzeko eskubide..." (*Declaración Universal de Derechos Humanos. Naciones Unidas*, París, 10, 12, 1948)

15 Arrazoi beragaitik Jung baserritarrak obeto ulertu zuan gizakiaren konplexua, haren Ka eta Ba ulertzeko, bere maisu-ohi Freudek baino: ezin zeitekela gizakia Ka utsa lez aztertu, haren Ba kontuan izan barik. Baserritik ekian zimaurretatik aza gustagarriak ematen zirena. Orobat baserriak ekian etxeko abere maila eta amaren seme-alaben ganora bereizten. Kaleak baserriko frutuak eta barazkiak beste behar du baserriko eskolaren argibidea eta eskarmendua.



Jakob Angeruarekin burrukan (Rembrandt)

Jakob norbere ohargabeak dago eta besoetan dauka, Angerua bera duela ohargabe. Jakob Jainkoari deiez; ez daki bere eskuetan dagoen. Berak asmo bat dauka eta Angeruak beste bat. Ni zurera, ala Zu nirera? Burruka itzela da: onaren eta gaitzaren arteko burruka lez, gizaki baitan, Ka eta Ba artean dagoen eztabaida ausaz, Or eta Set-en arteko konplexua Atorrabi eta Mikelats anaien arteko tirria antzekoa, Angeruaren laguntzaz bulartsu eta bakarka burrukatu behar duguna.

izan duen lotura ekologikoagaitik. Hizkuntzalaritza lana ere hobeto ulertzen du baserriko euskara dakienak, formaz zehaztu euskerak edo ezelako euskerarik ez dakienek baino¹⁶.


Analogien munduan *Or*, Jesusen arketipotzat jotzen da eta, beraz, *Set* Judasena, batak bestea saldu eta heriotzera emon zutelako¹⁷. Ator=Isis amak Or eta Nefertari-k¹⁸ aita Osiris berbiztu zutela? Jesus ere heriotz ostean, berbizkundez goratua izan zan. Horretan da gizaki duinaren, burruka ona egin duenaren garapena. Gaiztoak, Ka gaia serbitu dutenak, une igarokor batean nausitzen direla eta zintzoa, Ba baitako xedea jarraitu dutenak, betiko.

16 Frantzia eta Espaniako estatuetan ezin da hizkuntzalaritza lan bikainik egin Ama Eskolako euskerari gorroto diotelako, hotz, argiari leihoak itxi.

17 Gero ere "artzain onak" eta "<artzain-or onak" berezi eta ezagutu al izan ditugu on ez direnen artean, hotz, otso edo txakur direnen artean, bada Eleizako artaldean ere denetik egon da eta dago, geure eskarmenturako.

18 *Nefertari* izena dager Iruña Veleiako ostraka berezietan.

IZADIA ANALOGIAZKO IKUSPEGIAN



hIgDRASIL<LIZARDI

euskera hermeneutika begirale delarik,
vikingoak ere nabari dakusguz heuren
Ama Eskolako ariketetan²

Gabon Zorion gutuna Japandik³
Amaterasu Amaren eskuminaz

GIZAKIAK IKUSIALA ERANTZUTEN DIO IZADIARI
bera ere IZADI eta GIZAKI egina deneko

Japan aldeko Aestetik Eskaniako Ostera

Bidenabar erabili ditut aurreko irdi biak arketipoen mundua azaltzekoan,
bai *Eleiker* sailean eta bai [Voxentok aragotzi] email-ean

AMADA>AMATU>MA.AT> MATA> MADA>MAITE>MADDI>MATIA>ANTU>AMATERASU
izen maitagarri honek eta bere Ama Eskolak lurbiran irau du.

Gurua es dago txaman baten ikuspegitik urrun, mendi *korotik* Goikoei,
herriaren izenean *agur*-otoia egiten dienean.

1 *Lizardi* irakurten da itzuleztara. Hain zuzen ere zuatze hau arbola santuetariko da Euzkalherrian, suaren aurka duen bermeagaitik. Eekainean bere adar loretua jartzen da etxeko balkoian. *Lizarraren* gurdi ardatzak egiteko gai berezia zan, urteroko bere azkaien dornu-oskol labainkorra erregaitza delako.

2 Ohargarria dira *bizia Urdar* putzu ondoan ehunten duten *NORNAZ* iru iruleen izenak: *Urd* =urte, *Berdante*=linuzko oihala eta *Eskuld*, *eskolda*=trama.

3 Norbere lagunarekin argazkia atera zalea da gizakia edo norbere larrua halako irudiez tatuatzeko jokera du, alkar-maitasunaren ezaugarritz.

ONDORENAK

Mito>*mintzo* letorkena ulertzen ez duenak, nekez aipatuko du “*zirelako gara*” esakera ere, joanen memoria osatutzeko uneon. Oroitzapenak, aztu ezinak dira, barne zizta halakoak, geure aurretikoen akordua dakarskuenean, edo, sikiatren esanez, ilunbean ditugun arketipoak argitzera bultzen gaituztenean. Bide honetan mitoen mintzoak lagun egiten digu, joanak gero betetzeko gertakarien igarkizun ezeze, asaben jakinduriatzko atsotitzak lez, gaur ere bidea egiten laguntzen digutelako.

Asierako mito zaharrok aipatu zituen Ama Eskolak, bere sendian eta orduko gizartean jasaneko eskarmentutik: ama beraren bi semek, [amazalea bata, saieztua bestea], elkarren aurka etxean gerra sortu zutenekoa, jatorrizko eskola libreak “etxe kalte” edo Ama-kontrako Eskola armatua asmatzeraino. Babiloniar enperioak lenen, Grekar eta Erromatarrak urren, amaren aulkia iduli eta aita armatuaren templo arranditua eraiki zutenekoa eta jainko izenak aldatuz, arketipoak iraulka mugituz, antimitoak konponduz, ama-hizkuntza atakatu eta bizi-ez-bizi kinkan jarri zutenekoa.

Anai aserretuen mitoak berak sortu zituan zuzenbide eta bake-rako Ma.aT ama+aita aginduak, gurasoek etxeko konponbide baketsua bilatzen dutelako: “Hau ta honela jardun behar duzue, ene seme-alabok, eta ez bestela”, amak abotzez esaneko aholku eta aginduak ziran. Euskera bezalako ama hizkuntzak gogotan izan dute eta jakinduria einen azaldu “egik on eta ez euk bildurrik” eratan anai aserretuon kondairan. Ardura horrek berak egizatzen du hizkuntza berez mito bizia dena eta bata besteagandik datorrena.

Antxinatik gaurko egunera, bost mila urteren aldean, eta Sortalde Urbileko gunetik Euskal Herrira dagoen urrunteak urbilduz, “erlegino gonbaratuen” lana aurrera eramatea baino ez da: arek berea lagundu bai-zigun geure fedea ulertzen eta honek haren bat lagun diezaikigu geure eztabaidak konpontzen. Alegin honetan ezin daiteke aztu, naiz eta andikien eskolak metodo bezala, ukatu edo ixildu egiten duten, euskerak bere abotz eta egituretan memoria egiteko duen hermaneuta balorea, edo den herraminta.

Gurasoen etxeko burruka, kalean gerra izan zan eta Historiak dinoskunez, Egiptoko Faraoiak bere aurka jagi ziren hicso etorkinen agintea indarrez astandu zuan herritik kanpora. Halatsu dager israeldarren Exodoan ere, euren Patriarkatua ez zelako adosten Ma.aT aginduekin, euren jainkoa "Bata>Ptah "jaun bakarra", eurak Yapheth endako, Yawehtar zirelako (Dt. 6.6.). Mitoak mintzo, euskerak eta koptoak salatzen dutenez, Or eta Set anaiek Egipo Bea eta Goiaren arteko aserrea eta bata bestea zuntzitzeko amorrua adierazten digute.

Legea sortzen duten gurasoek eurak juzgatzen dute seme-alaben jarduera eta zigortzen obengilea, Ma.aT nortasunean agertzen den eratarra, gurasoak direlako seme-alaben bizitzaren eta eziketaren ararteko, hagaitik lekuko biek osatu behar dute epaimaia ere, ahalik eta epairik zuzenena izan dadin.

Moisen jainkoak hodeitik berba egiten du eta ez da bizi bere sorkariekin, ez daki nekasaritza edo artzaintza bereizten Kain y Abel-en arteko auzian, nekasaritza amaren arazoa izanik eta aitarrena, aldiz, artzaintza. Ez du guraso begiramenik, gizakiari itxuan menpetasuna eskaten dionean, eta gizakien arteko eztabaidatan alderdikeriaz jokatzean, hala Babel-en Ama Eskolako hizkuntza argia nastatzaileen alde urtetean.

Erleginoaren dogmek ez dezakete ezetzi gizabidezko zientzietan, deigun Sikologian eta Logikan oinarritzen den Teologia, jainkozko Maite Sorkuntza gizaki beraren onerako egin izan delako. Ezin dezake eskatu beraz, giza bide ez den agindurik "credo quia absurdum" eratarra edo gizarteko eztabaidetan Zesarren nausikeriaz sortu legearekiko federik.

Analogia deritson antz-bidea izadiko agerkarietan oinarritzen da, hotz, bizigai ditugun indar barriztagarrien bitartekotasuna sinbolotzat harturik, haien izen aboskatuak geure eta Bestearen arteko arketipo izendatu eta eredu eginik, mahai idekiko elkarriketa sortu zuen gizarteko eta gizakiak jainkoekin arrem bidea. Analogiazko loturak eten edo bizi indar bizigarriok zikintzea gizakia umesurtz utzi eta heriotzera kondentzea da, Ekologia gabeko Teologiak arnasa falta duelako.

Estrukturalisten lana filosofo murriztaileen asmoen jarraiki, hitza "adierazle/adierazia" eratako arinkeriaz aztertzea Analogiaren baratzaz mortu egitea izan zan, euren bekaitzeko Gramatika kalamatrika bihurtzekotan. Aldi bereko Indoeuropeisten asmoa, utzetik edo itxuratik sortuneko dogma egina, Ama Eskolako hizkuntza zaharreko memoria galtzeko, euskerarena baitikpat, edo Marije Gimbutas azterlan matriarkala ekidintzeko izan zan.

Mitoanalisiak Neolitos garaiko gizakiaren pentsamoldea aztertzen du, Kosmoaren argitasunean eta haren sinboloen disdiran hitza jaio zenetik hara. Giza jakintza asko, Sikologia, Erliginoen Historia, etabar Mitoanalisiak baliatuz, ondare bikaina uzta dute eta susmogarria ere bada, halako ikasketetan urrena den Linguistikak, kuku dogmatan burua gorderik, Mitoanalisi itzuritea.

Etimologiak, hitzen jatorria bilatzen nekatu zenez gero, hitzaren azaleko aldaketan Morfologia moda bihurtu zuan. Hizkuntza romanikoak erraz moldatzen dira klasikoen dundunera, naiz euren Etimogien soinuak dantzarien koruaz adozten ez diren.

Teologiak ere gramatikazko pertsonen irukoa ezezte, hako abaten *Bata>Ptah* jainko gizatu alargundua aldarikatetik dator eta *Ma.aT* ama+aita parekideen sorkuntza eredu iguintzetik, hala nola batasun behartuko politikak, aukera bide ezbardinen demokrazia usteltzen eta baztertzen duen. Irutasuneko pertsonen nortasuna giza familiako egituratik aldentzea gizabidea ezeztatzea ezeze, gizakigan aragia hartzen duen Espítua Santua bera tokitik kanpo utziedo uxatzea da eta gizakiok umezurtz uztea.

Jainko bakartasunak berez Jainko Irukoitza ukatzen du edo gure Kredoan haren nortasuna gizarteko familiaren egituratik ate, *et ex Patre Filioque procedit* ziriak oztopatzen, seme-alaben sendia Amaren bular gabe gosetu uztearren.

Frantzia eta Espaniako Unibersidadeek ez dira Linguistika lana osatzeko gei, mitoaren memoria gordetzen duen hizkuntza euren Ratiotik baztertu dutelako eta Arkeologiak suzperu kultura zaharreko zubiak apurtzen dituztelako.

Historiaren lekuko bizia den euskerak, asieratik eta gaurdaino

bere aragian jasan duena salatzean, auzira deitzen du amaren seme gaiztoaren doilokeria, eta hagaitik arriskuan dakus bere osasuna eta bizia ere, Ama Eskolak jasaten duen gorroto berberak lekuko ezegokitzat hartzen duelako nausikeriaren politikan eta Goi mailako maisutza murristuaren asmoetan.

Joaneko ekintzen memoria osatzeko irrika eta aleginetan XX-ren gizaldia arkeologoen argibide arrigarria gertatu zan, Arkeologia zadorrei esker, Mitoanalisiak ere giza Historiari argi luzeekin begiratzan eta Antropologiak sakontzen erakutsi baidigu. Bide beretik, XXI gizaldia mitoen garaikide den Ama Eskolako oroitzapena den euskera hitz aboskatua baztergotik jaso eta Europako Katedra Nausira jasotzeko aukera da, baldin Europak bere memoria murriztu nai ez badu.

PARA EL DICCIONARIO ETIMOLÓGICO

ETIMOLÓGIAZKO HIZTEGIRAKO

Sigla batzuk: aur. aurrizki "preposición atz. atzizki "sufijo" an. "analogía" adb. adibidez "por ejemplo" tok. tokizen ark. arketipoa (Ikus beste batzuk or. 7)

A

ab-<*Ba* aur., adb. *ab*-<*arrikatu* "asolar".
aba-<*Ba* "aita", konposagai, adb. *osa*+*aba* "tío", *izeba* "tía"
abail-<*Baal*>*Ba*+*Il*u "Iluren seme".
abal-<*ab*-<*al* >*apal* > *afable*.
abade-<*ab*-<*ata*>*apaiz* "cura".
*Aberr*i, Ainemendiko jainko, >*abere* zaindari>*haber*, *aper*⁽¹⁾>*affaire*⁽¹⁾.
abo/ago >*aho* (interferencia de la -h-)
 Sin la radical *abo*, se obstruye el camino
aboka-<*abo*+<*ka*>*vuca*>*voca*.
abotz-<*abo*+<*otz*>*voz*^(gaz)<*vox*⁽¹⁾
abutu-<*ab*-<*butu*>*putu*>*putsu*>*pozo*.
ad- aur.<*at*->*uTu* "iduzki jainko", adb.
ad-<*obatu*> *adobado* "jaki obetua".
adobe>*ad*-<*obe* "bustin obetua".
Adar-<*Ata*+<*Ra*, akadiar jainko "borrasca".
adore-<*ad*-<*doru* "ánimo" adb. >*at*+<*o*-*ratu*>*atoratu*>*adoratu*>*adorar*.
adornu-<*at*-<*orni*>*adorno*, m.
Adu-<*ado*>*patu* acadio>*hado*>*fado*
Adur "sorte jainkoa", *uTu*+<*Ra*>*Tor* "trumoe">*trueno*".
af- <*ab*- ekintza baitatua, adb. *afa*-<*itai*-*tu*> "afeitar".
ag-<*ak*-<*Ka* aur. "gaia", adb. *ag*-<*ertu*>
agertu "aparecer".
Agarre>*Garra* "despejado" adb. *Agar*-*ramendi*, *Garmendia*, tok.
ager, *agiri* <*ag*-<*erri*>"*agro*⁽¹⁾".
agindu-<*ag*-<*indu* "prometer".

ago<abo

agur-<*ekur*, "inclinación de cabeza al dios del santuario, adoración del *agure*".

agure-<*ekur* "anciano >*augur*>*gurú*".

aiene-<*ai*+<*ene* "endecha, queja".

Aiete-<*Ate*+<*eta*>*Atteta* tok.

ain, *aina*>*haina* "tan, tanto", <*aN* "zeru" gonbaratzekoa.

aina <*aN*/i*Nanna* "hermana mayor".

Aina/*Aniemendi*, *eNi*/i*Nanna* m. "zeru

alabari" opa santutegia", tok.

ainanino-<*anunna*^(s)<*aNu* jainko *ume*-

ak "ángel", *aiñaniño*ko "demonio".

ain>*aN*>*tan*^(gaz) gonbaratzekoa.

ainen-<*ain*+<*en* gehiengoan "maldición"

aintu <*ain*+<*tu* "elevar, dignificar".

airatu-<*ira*+<*tu*>*airarse*, ark. *Ra*.

aire-<*eRra*, *Ra*, dios egipcio "aire".

aita-<*atta* "padre" <*uTu* "iduski", su-

meriar jainko, hizkuntza arketipoa.

aitor-<*aita*+<*or* "noble", "*Aitoren seme*",

Ator^(k) *Ra* alabaren semea, analogiaz.

aize>*haize* "viento", an. de *aS*, arquetipo de santidad ritual.

aizkora "hacha", arma de Hadad^(a)

montado en el *Ishkur*^(s)/*Xekor* "toro".

aker-<*ak*-<*tar* "macho cabrío", esfinge

de leones, custodios del templo de *Ra*.

ak-<*Ka* aur., adb. *ak*-<*a*>*batu*"*acabar*".

akiti^(s) "*aNu* jainkoaren jaiak "corre-rías por el *ekur*".

akitian-<*akiti*+<*an* "brincando".

akitu-<*ak*-<*aitu* "fatigarse">*quieto*.

akordatu-<*ak*-<*ordetu* "recordar".

al-<*iLu*^(u) "poder", kanaandar jainkoa.

alen-<*alaen* gehiengoan, adb. *aliym*^(u).

al- aur.<*aLa*/i*Lu* "poder", adb. *al*-<*egin*,

allasso⁽⁹⁾.

ala, oihiu *aLa*-ri, "*ale!*, pasto".

alaba-<*ala*+<*ba*, *ahal* baitatua, "hija".

alajainko, oihiu "ojalá" <*aLa*.

alakatu-<*al*-<*akatu*>*halagar*.

alde<*al*+*te* “a favor”>*lado* itzuliketaz.
aldi “temporada” <*Aldi* diosa urartia de la plantación, >*aldata*>*aldaka*.
alen>*aLa*+*ena*/*ahalim*^(u) gehiengoan.
alke<*aL*+*ka*, “ahal gabe, lotza”.
altu<*al*+*tu*> *alto*.
am- *aur*. <*aN*, *adb*. *am*+*il*, *am*+*oratu*.
ama<*aN*>*madr*^(guz), *bizi* sorgua, *iturria*.
amai<*ama*+*in* “akabatu, concluir”.
amako<*ama*+*ko*>*amicu*^(l)>*amigo*.
amarra<*am*+*marra*, “*amarre*”<*Mari*>
amare^(l) “*amar*”, *amari*^(l) “*límite*”.
amatigo<*ama*+*tiko* “*serenidad*”.
amatigatu>*mitigar*.
amatu<*ama*+*tu*> “*amar*”>*amado/a*.
amatau<*mato*+*tu* >*amatar* “*apagar*”.
amil >*am*+*il* “*depeñarse, perderse*”.
amilaina<*amil*+*laina* >*amilanar*.
amilamia<*amil*+*lamia* “*nereida*”.
amore <*aMa*+*Or* m., *amorio*>*amor*.
aN>*aNu*^(s) “*cielo*” *ark*. *sumero-akadio*,
arketipo de *lengua*.
an-/*ana*-<*aN* *aur.*, *adb*. *an*+*bildu*, *an*-
tolatu, *ana*+*baino*^(g).
anae<*aN*>*anai*, *aina* “*hermano/a*”.
analogia<*An*+*logos* “*palabra del cielo*”
anate<*An*+*ate*>*ánade*.
Anboto<*An*+*boto*>*bote* “*cielo que le otorga el poder*”m..
andi<*aN*+*uTu*>*Antu*^(s), “*mujer de aN*”.
andre<*andere*>*aN*+*uTu*+*eRra* *hiru*-
koitz *arketipodun* *tituloa*.
angeru<*anunnaku*^(s) “*Anun uneko/de la esencia de Anu*”>*ainaniñoko*> *angelon*^(g)> “*ángel, demonio*”.
ansia<*antsi*<*an*+*etsi*> “*ansia*”.
antsi<*an*+*etsi* “*diligencia*”.
antu<*aN*+*uTu*>*an*+*tu* “*anditu, enchir*”.
antxitu<*an*+*atxitu* “*conseguir*”.
An.shar^(a)=*Sar.an*^(s), *padre* de *aN* “*cielo viejo*” m., como en *aN* “*anciano*”.
antzar >*ansar* “*zeru altuko txoria*”.
antzi “*suspiro, gemido*”.

antz <*aN*+*uTu*>*ANTU* *jainko* *sortzaile*
Anum.zaro^(s) “*Anu*+*n*+*azaro*” “*tiempo de aNu*”>*Ononzaro*^(eus) “*Navidad*”m.
anze<*Antu* “*destreza materna*”.
Añomendi/*Montaña* “*monte de ANU*”.
Añua<*aNu* “*cielo*” m.
ap- <*ab*- *aur*. *ap*+*aindu*>*apañar*.
apa<*aba* “*beso, abuela*”.
Aprile/*Abril*<*bere*+*ile* “*mes del ganado*”.
aR<*Ra*/*erRa*^(k) “*aire*”>*eRra*^(eus), *Egip-ton* *jainko*, *hizkuntza* *arketipoa* m.
aragi<*ara*+*ki*>*arRa* “*carne de Ra*”m.
aratz<*aratu*>*rado*^(l)>*raso*^(guz).
arau<*ara*+*du* “*eRraren erregela*”.
arerio <*ar*+*erio* “*eRraren etsa*”.
argi <*ar*+*ki*>*eRra*+*ki* “*lúcido*”.
arketipo>*arje*^(g)+*tipo* “*eredu zahar*”,
Jung *sikiatraren* *izendegian*.
Aramendi/*Ramonte* “*monte de Ra*” m.
Arra- *aur*.<*Ra*, *adb*. *arra*+*kalatu*> *recallar*>*regalar*.
Arraba/*Barria*>*Arreba*/*Berrio* *tok*.
arrakasta<*arRa*+*kasta*. m.
aramantza<*eRra*+*manata* “*maquina*”
ción *contra* *el Ra*”.
arrano “*buitre, águila*”, *mascota* *de Ra*.
arrapatu<*arra*+*batu*>*arreatar*.
arras “*prendas, totalmente*”>*raso*.
arrasko<*Arra*+*ska* an. “*bieldo*”
arrauts<*arra*+*auts* “*huevo*” <*Ra*+*uTu*.
arrazio<*arra*+*zio*>*Ra*+*uTu*> “*razón*”.
arrazoin<*raso*^(g)>*Ra*+*aTon* “*grato a Ra*”.
arre *zamariak* *zurujatzeko* *ohiua*.
arriba<*eRra*+*ba* “*hermana*”m.
arren <*Errari* *otoi*, “*¡por Dios!*” m.
arri>*harri* <*arRa* “*pedra*”.
arritu>*harritu* “*volverse de piedra*”.
Arthe, *Ainamendiko* *jainkoa*<*Ra*+*uTu* “*tiempo de Ra*”>*arte* “*sosiego*”.
artezi<*arte*+*esi* > “*ardid, magia*”.
artza<*artezia* “*bieldo*”
aS>*ax*/*ats*>*asa* “*aliento*”, *hizkuntza* *arketi-*
poa, *erritzoko* *santutasuna*, *adb*. *asaba*.

as-<*As* *aur*. *adb*. *as*+*beratu*>*aspirar*>
aspertu, (*aspertuarenak* *eragiten* *digu*)
as+*biritu*>*spiritu*^(l)>*espíritu*.
asaba<*as*+*aba*>*asabatu* “*antepasado*”
eta *euren* *eguna* *Sabbatu*>*Sábado*.
asabotu “*pasatu*>*pasado*”.
asaga<*asaka*>*asag*^(s) “*azken* *erasoa*,
postremería”>*zaga*>[*a*] *sacco*^(b)m.
Asaro<*asi*+*aro* “*sementera*”m.
Asaru^(s), *título* *de* *Marduk* “*que esta-*
bleció la sementera”=*asaro* m.
asi>*hasi* “*comenzar*” *de aS*.
asma<*as*+*ama*>*asma*+*tu*.
asmatu “>*asmar*, *inventar*”.
asperatu<*as*+*beratu* “*suspirar*”.
aste>*as*+*ate* “*comienzo*” >*Ast*^(l).
asti>*aste*<*asi*+*te* “*semana, comienzo*”.
asun<*at*+*une* “*hortiga*”
at- *aur.*, *adib*. *at*+*otsi* “*acoger*”<*uTu*^(s)
“*iduzki* *zoria*, *arrazoro*”, *atoratu*>*azorar*.
at<*ate*!”, *uxa* *oihua*.
ata>*atta*>*aita*>*aitxe*<*uTu* *ark*. >*iduzki*.
ate>*at*>*aitz* “*puerta, paso, pato, peña*”
iduzkiaren *sartu*-*urtenen* *ateak*.
atabut <*at*+*abutu* > “*ataud*, *puerta* *de* *la*
ensoñación, *introducirse* *en* *el* *pozo*”.
Atar/*Arrate* *tok*.
atari>*terra*^(l) “*portal del sol=tierra*”.
atertu>*at*+*ertu* “*escampar*”.
ato “*hermano mayor*”, *sumero-euskera*.
atoratu<*at*+*oratu*>*adorar*>*Ator*^(k)
“*diosa del amor*”>*azorar*.
atta<*ate*>*Aita*^(at)>*Hades*^(g) “*heriotz* *ateak*”.
atta+*ra*>*Adar*^(h)>*adar*, *dios* *del* *tiempo*
atmosférico, *borrasca*.
ats<*at*+*aS* “*aliento*”.
atso<*at*+*oto* “*anciana/o, ayer*”.
axari<*asar*+*tu*>*asarratu*/*aserretu*.
atín<*at*+*une*> “*tino, experiencia*”.
Aturri>*Adur*/*Urrate* *tok*. <*ate*+*ur*.
aur<*Aruru*, *diosa* *madre* *acadia*. m.
aut- *aur.*, *adb*. *auteman* “*considerar*”
auta>*auta*+*tu* “*elección, elegir*”.

autetsi<*aut*+*etsi* “*averiguar*”.
autor<*aut*+*Or*>*aitor* “*confesar*”.
auzi<*auzu*>*hauzi* “*pleito*”.
auzu<*aut*+*usu* “*permitido*”.
az- *aur.*, *adb*. *az*+*atoratu* “*revolver*”.
azaga<*asa*+*ka* “*sin aliento, postri-*
mería, >zaga>*zaguero*”.
azagako “*escatológico, final*”.
azaro<*Asaro*^(s) “*sementera*” *de* *azi*+
aro “*tiempo de sembrar*”.
Aya<*Atta*<*uTu*>*ate*>*Atxa* *tok*.
azari<*axari*<*azagari*<*asag*^(s).
azpiratu<*azpira*+*tu* “*someter*”.
azti<*azi*+*te* “*mago, insuflador*”.
aztu<*ak*+*kastu* “>*gastar, olvidar*”.
B
Ba “*baita, psykhe*^(g)”, *hizkuntz* *arketipo-*
a, *adb*. “*ene* *ba*!/*iay* *ba*!, *ara* *ba*!” *oihuz*.
bala<*Ba*+*aLa*>*Baal* “*jainko* *gizatu*a, *bu-*
rrukari *alena*, “*abail, bala, arma* *izenak*.
baba>*faba*>*haba*. “*lekan* *baitatu*”.
Ba *benatu*>*penatu* “*Ba* *apenado*, *adib*.
Benu^(k)<*Ba*+*Inu* “*Fénix*^(g)”, m.
baga<*baka*>*bake*>*paz* “*Ba* *barik*”.
bagatu>*pagar*, *ba* an.
bai “*si*”<*Ba* *baikor*/*Ka*>*quiá, ukakor*.
Baigorri/*Gorbaie*<*ekur*+*ibai*.
baimen<*bai*+*men* “*permiso*”.
bake>*paz*<*Ba*+*ka* “*sin* *ba*”, *paz* *roma-*
na, *resultado* *del* *exterminio*.
baltz<*ba*+*altza* “*negro*”.
bar^(ar)>*parau*^(h) “*Ra* *hijo, faraón, par*”
bar- *aur*. <*Ba*+*Ra*, *adb*. *bar*+*duindu*.
barau<*ba*+*arau* “*norma* *aceptada*”.
Baratzakusu<*baratz*+*kusu*, *Mardu-*
ken *4º* *tituloa* m.”*vigilante* *del* *huerto*”.
bardin<*bar*+*duin*>*pardina*^(guz).
barka “*atabut, zendua* *Niloz* *zehir*”,
barku> “*perdón, indulgencia*” *sobre*...
barkatu>*parcere*^(l) “*perdonar*”.
Barrena/*Nabarre* *tok*.
barrendu<*barruen*+*du* “*interiorizar*”.
barrundu>*barruntar*<*barru*+*undu*.

bart<ba+arte "a noche".
 ba- aur., adb. ba+azertu.
 basa<baso<batu "salvaje, reunir".
 Basajaun m, "señor del bosque",
 genio mítico, émulo de Humbaba^(s).
 Bat/Bata>Ptah^(s)>patekoen jainko Men-
 fis Egipton, "gure jauna bera da Bat"
 gurean katekizatu eta lehen numeral-
 tzat onartuaz gintuztenak.
 batu "reunido", ata+batu>asabatu, "an-
 tepasados, idos, recordados en Sábado,
 bai eta llurrean zapatu izan zirenak
 be "bajo", actitud Ba, behe "suelo".
 beatu>behatu>"abajado" eta hizku-
 nez, "beatu/beato"="muerto/ feliz".
 ben<be+ena, "verdad aceptada".
 beena>bena>bene^(l) "verdad, bien".
 beetu>behetu "abajar, sepultar".
 behar >deber, necesidad".
 beka>peca, negación de la obediencia.
 Bekas>Pikaza/Caspe tok.
 bekatu>peccatu^(l)>pecado.
 ben⁽ⁿ⁾>van^(al) "hijo del dios aN".
 ben+az "en verdad".
 beor<be+Or "yegua">perro.
 ber->per- aur. adib. ber+bezi, perfecto.
 bera "mismo, único">vera/veru^(l). ana-
 logización de be+Ra aceptado.
 bermatu<ber+ematu>permeat>afirmar
 beor<be+Or >berro>perro m.
 berro<be+erro>berru>feru^(l)>hierro.
 bete>betatu "cumplir, pleno".
 bezatu>"avezar">facere^(l)>faire^(l)
 >hacer>facienda>hacienda.
 bide>fide>fede "camino/fe".
 biloi>filii^(l)>hijo de iLu".
 birau<biratu<be+iratu "blasfemar"
 bortits>fortis^(l)>"fuerte".
 botu>voto>pot esse^(l)>poter^(gaz)
 kontra-esan "maldición".
 biri "pulmón, liviano",
 biritu>virtu^(l) "tomar aire, poder".
 buru utsa>bruxa^(gaz) "buru saldu".

Butzu>Ap-su^(al) m. >pozo>puto.
 D
 Dagenil "Agosto-Septiembre">Daganu^(s)
 m. "sumeriar jainko, dios del tiempo.
 dama<Maat^(s) itzulezara "título de dio-
 sa", patriarkaduaren iraultza agirian.
 damu>dammu^(l)>daño<Damu^(s)/Dumuzi
 m. jainkoaren zoria.
 damutu>Damu+-tu>dammatu⁽ⁿ⁾.
 de- aur. <uTu, adb. de+bekatu.
 deado<de+atu>deitu "clamar".
 Deba/Abade>Abadie>Badia tok.
 Deba<ate+ibai "puerto de ria".
 dedu<de+uTu "honra".
 dei>deitu "llamada, llamar".
 dena<deuna "Andreña Maria, Santa
 Señora María".
 deun<done<aToN^(s)>Adonar^(h) jainkoa.
 deus<deusa "algo", Deus^(l)>"Dios".
 deusa<de+usa "cargó, cuidado".
 dino
 doi<uTu^(s) "uduzki/zuzen, justo",
 doha<dona>done>don<aToN.
 doan<doan+n "gratis".
 dogo>Utuku>Utua+-ko m.
 done<Aton^(s)>Adonar^(h) jainko "santo".
 donga<done+-ka "maldito".
 Doniene gehiengoan "el más santo",
 San Juan, eguzki mugako jaia.
 doru<uTu+oRu>"poder, anillo solar".
 duin<uTu+iNu>dignu^(l)>dino.
 Duranki^(s)<uTu+Ra+An+ki "lugar del
 cielo y la tierra. Mari Urrikaren lurra".
 duzti<uTu+eztu>guzti "todo"
 E
 edatu>edere^(l)<uTu+-tu, "Utuk ina".
 edasi<ed+asi>idatzi "contar, escribir".
 eder<eter^(al)<uTu+Ra "bello, hermoso".
 edosi<ed+osi=osotu<uTu>"redimir".
 eduki<ed+uki>educar "conseguir".
 egal<ek+-al "ala, alero".
 egi "horizonte", de eki "sol".
 egia "verdad" de horizonte humano

según eki/egia "sol/verdad".
 egin<ek+-in "hacer (humano) frente
 a in "acción divina de iNu "cielo".
 egortzi<ekur+-tu "ungir">aegroti^(l)
 "enfemo", según egortzi/aegroti.
 Eguberri "Solsticio de
 invierno=Nuevo día", Navidad.
 Eguen "(día) de Egu "sol", Jueves".
 eguriki "aguardar", actitud del dios del
 ekur o del guru que le atiende.
 ek-<Ka aur. adb. ek+arri "esfuerzo
 físico de arrear".
 eg-<ek- aur., adb. egortsi, egari.
 eina>heina "tanto como", de ENI "cielo".
 Ekain, de Eki+gain "solsticio de vera-
 no, o de Ekien "(mes) del sol", Junio".
 eki "soleado, sol".
 Nuevo día", Navidad.
 Eguen "(día) de Egu "sol", Jueves".
 eguriki "aguardar", actitud del dios del
 ekur o del guru que le atiende.
 ek-<Ka aur. adb. ek+arri "esfuerzo
 físico de arrear".
 eg-<ek- aur., adb. egortsi, egari.
 eina>heina "tanto como", de ENI "cielo".
 Ekain, de Eki+gain "solsticio de vera-
 no, o de Ekien "(mes) del sol", Junio".
 eki "soleado, sol".
 ekur^(s)<Ka+oru "monte santuario" m.
 ekur^(s)>egur>kur>gur "templo monta-
 ñero", ekur (inverso)>roca .
 ekuri/ekuri "atseden, firme"
 el!<iLu, aLa, eL jainkoari deia.
 elbi<elui/euli<iLu+-ba "mosca"
 ele>elekatu "palabra, hablar".
 Eloim^(h)>llu+-m "alen" gehiengoan.
 eme<ama, aN arketipoz.
 eri^(s)<ain<iNu "nagusi, pontífice máximo".
 -en atz. gehiengoan, adb. ederren.
 en- aur. adb. endone "muy santo".
 en- aur.<eNi, adb. en+baratu, enoitu.
 ena<eNi dios, muletilla "en verdad"
 enda<aN+uTu "raza divina, gente".
 ene!<eNi. poz ohíu "¡Dios mío!".
 enei!<eNi, neke ohíu. "¡ai de mí!"
 eni "a mí", eNi "jainkoa" hurriteraz.
 Enki<aN+ki^(s) "aN lurrean".
 epe "plazo", tiempo del arquetipo Ba.
 era "modo", addb. euskera, erdera.
 era- aur. adb. ebaki>erabaki.
 erregu<er+egu "mimo, protocolo".
 erregu<er+ko>rogu^(l)>ruego "pira
 de ofrendas para rogar".
 errekitu<erreki+-tu>requerido "ali-
 mentos cocinados para enfermos"
 eresi<er+etsi "himno, decir".
 erin<er+in "expiar" >erinia^(l).
 eretxi>heresi^(l)>heresia "pensar".
 ereru<er+an>eroan "llevar", >ruo^(l)
 eroiu <er+oiu "quejido humano".
 erosi>er+otsi "redimir", acción de uTu.
 eroso<er+oso "cómodo".
 err-<erRa aur., adb. erresi.
 ERra, Ra, egiptiar jainkoa, "aire, eroe",
 hizkuntza arketipoa.
 erran<erra+ino>narro^(l), itzul. "decir".
 erra "ira, resquemor", acción de RA.
 erraldo>erra+altu>eraldo
 erratu<Erra+-tu>errar.
 erraztu<erra+z+tu "facilitar">rezar
 erre "quemar, cremar", acción de Ra.
 errege<erRa+-ge "jainko gizatua".
 erregu>rogu^(l)>ruego, erRa erritoan.
 Erremendi "monte de Erra/Ra.
 Errensubia "Serpiente de Erra=Ra".
 erres>arras "prendas", analogía de Ra.
 erresatu "facilitar">rezar.
 erresuma "reino de Ra".
 erretu<erre+-tu>reto>rezo.
 errezatu<erresa+-tu>erraztu "rezar".
 errezu<erretu "ofrenda de cremación"
 erria>arria, cambiar posición.
 eron, "posición de huevo" tal que Ra.
 es-<aS aur., >es+biritu "espíritu".
 esan<esa+n "decir".
 eseri<es+erria "sentarse" >essere^(l)> ser

eseritu<eseri+tu>sedere⁽¹⁾.
 esi<et<uTu "tope, límite".
 esitu<esi+tu>seto>sitiar>sitio.
 eskaini<es+kain>gain "ofrecer".
 eska<esa+ka "pidiendo".
 Eskana>Escania>Escandinavia.
 eskar<es+kar>"gracia", itzuliz.
 eskari>eska+ari "petición".
 eskatu<eska+tu "pedir".
 eskondu<esku+ondu "conseguir".
 eskora<esku+ora "apoyo,>escorar.
 esku<es/etxe+ko "mano, derecho".
 eskuratu<esku+-ra+tu "domar".
 eskutu<es+koita>escudo"refugio"
 espe<es+ba>spe⁽¹⁾ "ansia, espera"
 espen<espe+n gehiengoan "elogio".
 espiritu<es+biritu>spiritu⁽¹⁾ espíritu
 esti<et+uTu oihu, "alto!, retro".
 estitu<esti+tu "loretasuna atzeratu go-
 zoa bermatzearren".
 eta>et⁽¹⁾ "y", lotura egiteko hizkia.
 etxandera<etxe+andera>santera, que
 cuida la liturgia de la casa, etc.
 Etxezarreta<Etxe+zearreta, top.
 etxola<etxe+ola>sheol⁽¹⁾ "cabaña".
 euli<uli<ILu>aul>il "dios mortal?"
 euki>eduki<uTu an.
 ex- aur., prep. adb. exeri, extradire⁽¹⁾.
 exeri<es+erria "sentarse, ser", según la
 corona de Aset⁽¹⁾>sede>Isis.
 ez "no" de et "interjección alto!"
 ezkondu<esku+ondu "casarse".
 eztegu<eztei+egu "boda".
 eztei<esitegi "educacional".
 ezti<esti "miel, dulce".
 ezitu "txertatu, para "endulzar" el fruto.
F
 fan<ba+joan>buán">"van",
 fede<ba+ide>bide "fe" "camino/fe".
 frogatu<burukatu>borogatu>provar.
 fulcro<bulu/buru+coro Maat buruko
 luma, bere jardukeraren seinu.

G
 gabetu<kabe+tu "privar, abstenerse".
 gaindu<kaina>cam⁽¹⁾>"ganar".
 gailen<ga+ILu+en "triumfante".
 gal⁽¹⁾<ga+aL"rey", iLu humanizado.
 galai<kaila+en>galán "apuesto".
 galarren>galerna>Nergal⁽¹⁾, uriola sor-
 tu zuen jainkoa, itzulia.
 galen<galan/galen hizkunez "pérdida".
 galdetu "preguntar".
 galdu<ka+aldu ezkor "perder"
 ganbiatu<kan+beatu>cambiar⁽¹⁾>
 gar<kar "llama" (Girra⁽¹⁾) dios Gerra).
 garaitu<garai+tu "vencer".
 garbai<karba "arrepetido".
 garbi<karbai>garbo, "aseado"
 garbitu "limpiar".
 gardi<kardi>kardia⁽¹⁾ "uste".
 gau uts>chaos⁽¹⁾>caos.
 gauza<kauta>causa⁽¹⁾>cosa.
 gazi "salado".
 gehinatu<ge+inutu>sainar.
